
EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN BALIO OSOARI ETA BALIO ERANTSIARI BURUZKO TXOSTENA

**Erakundeetan sistema ezartzen
laguntzea.**

2021eko abendua



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA	
SARRERA.....	3
Aurkezpena	3
Justifikazioa eta ikuspegia	4
TESTUINGURUA.....	8
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala.....	8
Ekonomia sozialarekin, enpresa sozialarekin, “laugarren sektorearekin” duen desberdintasuna.....	11
Hirugarren Sektore Soziala euskal gizarteari egiten dion ekarpena. Alderdi kuantitatiboa.....	12
Hirugarren Sektore Soziala euskal gizarteari egiten dion ekarpena. Alderdi kualitatiboa.....	13
Hirugarren Sektore Soziala eta zerbitzuen hornikuntzarako eredu mistoa	15
Aurretiazko esperientzia batzuk.....	17
AUTOEBALUAZIO SISTEMA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA	19
Guztizko Balioa eta Balio Erantsia	19
Hirugarren Sektore Sozialako erakundeen balioak	20
Bitartekaritzaren adierazleak	22
METODOLOGIA ETA LAN-PLANA.....	23
Faseak eta lan-plana.....	23
Metodologia. Galdetegia eta landa-lana.....	30
EMAITZAK. EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN GUZTIZKO BALIOA ETA BALIO ERANTSIA.....	34
Sarrera. Kasuaren azterketa	34
GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA arloko erakundeak	35
ENPLEGU arloko erakundeak	36
OSASUN arloko erakundeak.....	37
GIZARTE ZERBITZUEN arloko erakundeak.....	48
Arlo SOZIAL-TRANSBERTSALEKO (ZIBIKOA) erakundeak.....	64
AISIALDI arloko erakundeak	65
ONDORIOAK	68
Adierazle orokorrak.....	68
Balio osoaren adierazleak	68
HSSan Balio Osoaren eta Balio Erantsiaren ondorengo azterketetarako gogoetak	69
GEHIGARRIAK	72
Galdeketa	72
Parte-hartzaileen ebaluazioa	84
Ez-parte-hartzaileen ebaluazioa.....	85

SARRERA

Aurkezpena

Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak (EHSS) euskal gizarteari egin dakioken ekarpenari buruzko ikuspegi partekatua eraikitzen aurrera egiteko duen interesari dagokio jarraian aurkeztuko dugun txosten hau. **Sektoreko erakunde bakoitzaren ekarpen soziala ezagutzean, agerian jartzean eta areagotzean** datza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzu Zuzendaritzak erakundeen balioa sistematikoki neurtzeko adierazi duen laguntzarekin eta interesarekin garatu da zeregina.

Euskadiko hirugarren sektore sozialaren estrategiaren baitan dago jasota jarduketa. Estrategia horren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak neurriak sustatuko dituzte, sektorearen eta erakunde bakoitzaren guztizko balioa eta zerbitzuen hornikuntzari, batez ere erantzukizun publikokoari, zer balio eranstean dioten identifikatzeko, aitortzeko eta sustatzeko. Jarduketa lotuta dago Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen 12. artikuluaaren laugarren atalean aurreikusitakoarekin¹

Ildo horretatik, zerbitzuak ematen parte hartzen duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde askoren praktikak abian jarri ziren eta pixkanaka erantzukizun publikoko zerbitzu gisa finkatu dira. Kontuan izan behar da praktika horiek bat datozela erkidegoko eredia eta gizarte-zerbitzuetarako Europako borondatezko kalitate-esparrua (pertsonalizazioa, osotasuna, jarraitutasuna, arretaren gertutasuna...) zehazten duten estandarrekin, eta horrenbestez, baita erantzukizun publikoko sistemek eskaini nahi duten arretaren ezaugarriekin eta araudian zehaztutako pertsona eta familia erabiltzaileen eskubideekin ere. Eta, hala, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzari balioa eranstean diote.

Eta, bestalde, funtzio hori oso garrantzitsua bada ere, sektorearen ekarpen globala, balio osoa, zerbitzu estandarizatuen hornikuntza baino zerbait gehiago da, beste funtsezko funtzio batzuk tartean sartzen baititu, hala nola sentsibilizazioa, salaketa eta eskubideen sustapena, berrikuntza, beharren ikerketa eta hautematea, eta herritartasunaren parte-hartze solidarioa antolatzea.

Erakundeen gizarte-ekarpen osoa eta erakundeen askotariko funtzioen arteko oreka babestea eta sustatzea, beraz, funtsezkoa da, lehenik eta behin, esku-hartze sozialaren hartzaileentzat, eta oro har, gizartearentzat, baina erantzukizun publikoko sistementzat eta espazioentzat, esku-hartze sozialaren esparruan Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen lankide direnentzat, ere bai.

Sektoreak egiten duen ekarpenaren inguruko gogoetarekin eta ekarpen hori modu sistematikoan eta objektibagarrian neurtu ahal izateko adierazleen sistema sortuta duela lau

¹ EUSKADI. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 94. zk., 2016ko maiatzaren 19koa. Hemendik hartua: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

urte abian jarri genuen lanaren emaitza izan da txosten hau (2020). Adierazle-sistema hori abiapuntu gisa hartuta, **erakundeek barne-autoebaluazioa egin ahal izateko eta sektorearen baterako balioari buruzko informazioa jaso ahal izateko online tresna bat (galdetegia) sortu dugu**. Horretarako, beharrezkoa izan da:

1. adierazleak lehenestea eta sisteman aurrez zehaztutako adierazleak galdera bihurtzea, eta hala, online galdetegia sortzea.
2. erakundeekin galdetegia probatzea baliozkotzat jo aurretik, adierazle-sistemaren eta sistematik eratorritako galdetegiaren konplexutasuna dela eta.

Horren ondorioz lortu den **tresnak/galdetegiak hauetarako aukera ematen du**:

- erakunde bakoitzak balio osoarekin (gizarteari egindako ekarpen osoa) eta balio erantsiarekin (esku-hartze sozialeko erakunde bakoitzak zerbitzuen hornikuntzari, erantzukizun publikokoak edo ez, erantsitako balioa, derrigorrezkotzat jotako elementuez haratago) lotuta **autoebaluazio-sistema** bat izatea.
- Erakundeen **gizarte-ekarpenari buruzko informazio erantsia sortzea**, erakundeek emandako datuak oinarri hartuta, eta horrenbestez, sektore gisa emandako gizarte-ekarpenari buruzko informazioa izatea.

Hala, horrelako prozesuei esker, sarean ikas daiteke lankidetzan; esperientziak trukatu eta gizarte-ekarpena hobetzeko moduei buruzko jardunbide egokiak sistematizatu.

Zenbait erakunderen parte-hartzeari esker sortu da online tresna hori eta ondorengo txostena, eskuzabaltasunez elkarlanean aritu badira galdetegia probatzen eta alderatzen. Etorkizunean, galdetegia sektore osoko erakundeei irekitzea aurreikusten da. Halaber, Sareen Sarean xede horretarako sortutako batzordeari eskerrak eman behar zaizkio, proiektuarekin izandako konpromisoa dela eta.

Justifikazioa eta ikuspegia

HSS eta EHSSko erakunde guztiek ekarpen adierazgarria eta espezifikoa egiten diogu euskal gizarteari, beste sektore batzuen osatzen baitu, eta beharrezkoa da aitortzea, finkatzea eta sustatzea. Euskal gizarteak ez litzateke bera izango hirugarren sektore sozialaren ekarpenik gabe, kohesioari, inklusioari, partaidetzari, demokraziari, berdintasunari, solidaritateari eta justiziari dagokionez.

Esku-hartze sozialaren eremuko kasuen koordinazioan, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza) eta erantzukizun publikoko sistemen eta eremuen kudeaketan administrazio publikoek eta HSSko erakundeek egiten dugun elkarlanari esker, sistema eta eremu horiek nahi dituzten ezaugarrietara egokitu daitezke: arreta eredu komunitariora (SSLren 8. artikulua), Europar Batasuneko Gizarte-Babeseko batzordearen gizarte-zerbitzuen kalitatetarako Europako esparrura....

Horregatik, Sareen Sarea sortu zenetik eta sare eta erakunde kideak lehenagotik, EHSS aitortu, finkatu eta sustatzeko esparru egokia sustatzeko lanean aritu gara; eta baita, oro har, esku-

hartze sozialaren arloan eta, zehazki, erantzukizun publikoa duten sistemen eta eremuen sorreran, finkapenean eta hedapenean egiten duen ekarpen espezifikoan ere -egungoa, oraingoa eta etorkizunekoa-.

Hala, besteak beste, Sareen Sareak eta sare eta erakunde kideok:

- Aktiboki hartu dugu parte Euskadiko eta Bizkaiko elkarrizketa zibilerako mahaian eraketan eta garapenean, eta HSSarekin eta bere jarduerarekin zerikusia duten euskal legeak egiteko prozesuetan. Eta, zehazki, 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoaren lanketan. Lege horren aurreproiektua Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaian egin zen.
- Hainbat lan egin ditugu, berezkoak eta lankidetzan, HSSko erakundeek pertsonen arretarako zerbitzuei eta erantzukizun publikokoei ematen dieten balio osoa eta balio erantsia aitortzera bideratuta, esku-hartze sozialaren eremuan eta, bereziki, itun sozialaren eta hitzarmenen araubide bereizia bultzatzera bideratuta, kontratuak baino egokiagoak baitira esparru horretako erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran lankidetzara publiko-soziala gauzatzeko, eta, era berean, horrekin zerikusia duten Euskadiko, Estatuko eta Europako Batasuneko araubideen inguruko proposamenak helarazteko.

Euskadin aurrerapauso handiak eman ditugu norabide horretan, baina ezinbestekoa da ematen jarraitzea eta elkarrizketa sustatzea; hain zuzen ere, une honetan:

- **Sektore publikoko kontratuen lege berria onartu** dute, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Erregelamenduan albo batera geratu dira. Aurreproiektua zuzentzeko proposamena egin genuen HSSko beste sare batzuekin batera.
- HSSn egiteke dagoen garapenaren esparruan berraktibatu egin da **Kontzertu (sozialaren) Dekretua** onartzeko helburua, eta EHSSLn aurreikusi denaren arabera, esku-hartze sozialaren esparruko beste sistema eta eremu batzuetan ezar daiteke.
- 6/2016 Legeak, maiatzaren 12koak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoak, jasotzen duen **Euskadiko HSS Sustatzeko Estrategia** egin eta martxan jarri da, eta EHSSko erakundeek eta sareek ekarpena aitortu eta sustatzeko helburuak eta ekintzak ere jasotzen ditu.
- **Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren hedapen eta finkatze eraginkorra** eta EHSSko erakundeek duten zeregina lantzen ari gara, erantzukizun publikoko zorroko zerbitzuetarako sarbidea eskubide subjektibo gisa aitortzea indarrean sartu ondoren, 2020rako sistemaren unibertsaltasuna bermatzera bideratuta dagoen eta agertoki gisa 2011n zegoen titulartasun-egituraren mantenua proposatzen duen **plan estrategiko baten bitartez**. Testuinguru horretan, agertoki hori betetzen dela bermatu beharra dago eta proposatu: a) plan estrategikoa ezartzeak EHSSan izango duen eraginaren azterketa egitea, EHSSLak aurreikusten duen moduan; b) planak jasotzen dituen beste helburu batzuk lortzea eta zehazki, Kontzertu Sozialaren Dekretua onartzea.

- **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua berrikusteko proposamena egin da, lan-bitartekaritarako tresna gisa finkatzen ahalegintzeko**, zerbitzu pertsonalizatuak eskainiz. Halaber, testuinguru horretan, gogoeta paperean egitea pentsatu behar da, baita HSSko erakundeek zer ekarpen egiten duten ere gizarte- eta lan-esparruan eta enpleguaren arloan, eta Euskal Enplegu zerbitzuan zehazki.
- Halaber, **eremu sozio-sanitarioa eta zerbitzu sozio-sanitarioen zorroa** EAE osoan irizpide homogeneoekin finkatzeko beharra ere azaleratu da, baita HSSko erakundeek bertan parte hartzeko beharra ere.
- Proiektu honen arabera, **erakunde baten edo sektore baten guztizko balioa esaten zaio “gizarteari egindako ekarpen osoari”**.
- **Eta zerbitzuen hornikuntzaren balio erantsiari**, erantzukizun publikokoa edo ez, **baita erakunde batek zerbitzu bati edo zerbitzu jakin batzuen konbinaketari edo sareari dagokionez egiten duen ekarpenari, betiere ekarpen horrek baldintza jakin batzuk betetzen baditu**.
- Zehazki: a) guztizko balioak eta balio erantsiak **objektiboa izan behar du, edo hobe esanda subjektuarterkoa**, aurrerago ikusiko dugun moduan, horrek esan nahi du erakundearen interes taldeek hala aitortu behar dutela; b) balio erantsiak **ez du zerikusirik zerbitzuetan bermatu beharreko alderdiekin** (eta, zehazki, erantzukizun publikoko zerbitzuekin, baldintza material, funtzional eta pertsonalekin edo araudian derrigorrezkotzat ezartzen diren beste alderdiekin, betiere behar bezala eskatzen badira eta ez bermatzeak kontratua, hitzarmena edo itun soziala deuseztatzea, etetea edo ez berritzea baldin badakar).
- *Erakundeen eta sektore osoaren guztizko balioa eta erakundeek zerbitzuei gehitutako balio erantsia identifikatzea, aitortzea eta sustatzea funtsezko gaia da* sektorearentzat berarentzat, baina baita sektore publikoarentzat ere, harekin lankidetzan baikabiltza zerbitzuak eskaintzen, eta azken buruan, hartzaileentzat eta oro har euskal gizartearentzat ere funtsezkoa da. Zerbitzu horiek pixkanaka-pixkanaka erantzukizun publikoko zerbitzu gisa sendotu dira.
- Eta hala da, funtsean, hartzaileei eta gizarteari egiten diegun ekarpen bereizgarria bermatu eta areagotzeko, eta ematen ditugun zerbitzuei edo haien hornikuntzan elkarlanean aritzen garenei balio erantsia emateko. *Eta ez gure ekarpen osagarria eta espezifikoa egin behar duten beste sektoreekin alderatzeko, ezta, esan dugun moduan, gure ekintza erakundeen zereginekiko interesa duten taldeen behar eta interesekin, batzuetan kontrajarriak, lerratzeko ere.*
- *HSS gisa, gure nortasunaren (helburua eta balioak) ezinbesteko dimentsioak osatzen dituzten, eta gure balioa, osoa eta erantsia, indartzeko ekarpena egiten duten HSSko erakundeekin partekatzen ditugun alderdiak identifikatu behar ditugu -eta haiekin identifikatu-, eta baita euskal gizarteari egiten diogun ekarpen-multzoa ere.*
- Guztizko balioak eta balio erantsiak lotura estua dute erakundeen helburuarekin eta balioekin (balioek balioa eransten laguntzen dute), ekimen sozialeko erakunde gisa identifikatzen gaituzten ezaugarriekin eta gure erakundeen egiteko moduekin. Egiteko moduak eragina du egiten den horretan, egiten duguna eraldatzen du eta balioa eransten dio.
- Beraz, *balioa sortzeak ez du esan nahi egitea soilik, baizik eta modu jakin batean egitea, balioekin koherentzian, eta zaindu beharreko ekosistema behar du*, baita faktore jakin batzuek proportzio eta konbinaketa jakin batean bat egitea ere.

- Bestalde, alderaketa zilegi da eta interesa sortzen du beste sektore edo arlo batzuen artean (soziala, kulturala, hezkuntzakoa...), eta zentzu osoa du EHSSko beste erakunde batzuekin, sektorera egokitutako dimentsio eta adierazleetatik abiatzen bada (beste sektore batzuetan komunak diren batzuk sartzea eragotzi gabe) eta etengabe hobetzeko elementua bada.
- Egia da, aurretik dagoeneko adierazi dugun moduan, beste sektore batzuekin ere alderatu beharra daukagula eta egiten dugun ekarpena defendatu, berretsi eta sustatu, baina, batez ere, *autoebaluaziorako eta koherentzia bilatzeko ikuspegia hartu behar dugu, erakunde gisa hazten lagunduko diguna, gure nortasuna indartu, ebaluatu eta gure helburua betetzeko plangintza egingo duena etab.* Eta, halaber, beste sektoreek, beste gizarte eragileek, eta herritarrek ulertu, baloratu eta ebaluatu egin behar dute egiten dugun ekarpena, eta baita lau sektoreen ekarpen bereizgarria babesteak eta sustatzeak gizartearentzat duen garrantzia ere.²
- Hala, aurretik izandako esperientziak kontuan hartuta, hala nola REAS auditoretza sozialerako tresna, hainbat irizpide identifikatu ditugu eta HSSko erakundeek haien guztizko balioaren eta/edo balio erantsiaren autoebaluazioa egiteko prozesua diseinatu dugu, nahi izanez gero sektoreko beste erakunde batzuekin alderatu ahal izateko eta hortik abiatuta hobekuntzen plangintza egiteko.

² Lehenengo sektorea (sektore publikoa), bigarren sektorea (irabazizko sektore pribatua), hirugarren sektorea (irabazi asmorik gabeko sektore pribatua edo, hobe esanda, gizarte-sektore pribatua edo gizarte-sektorea) eta laugarren sektorea (antolatu edo formalizatu gabe dauden elkartasun-ekimenak, familian, auzoan edo beste eremuetan egiten direnak).

Sektore hau laugarren sektore gisa definitu ohi da, hein batean, antolatutako elkartasun-ekimenekin (hirugarren sektorea) bat ez datorrelako, baina Fernando Fantovak noizbait aipatu duen moduan, lehen mailako elkartasun-ekimenen sektore gisa ere definienezake (elkartasun edo babes “ez formala” edo “informala” beharrean) edo, Joaquín García Rocak dioen moduan, “ezinbesteko munduen” arlo gisa.

TESTUINGURUA

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

HSSko erakundeak, sareak eta sektore sozialeko adituak urte luzez saiatu gara Hirugarren Sektorea eta Hirugarren Sektore Soziala definitzen.

Hirugarren sektorea EZ den horretan oinarritutako definizioak gainditzea zen helburua. Hala, hirugarren sektorea GKE (Gobernuz **Kanpoko** Erakundeak) gisa definitu izan ohi da, sektore publikotik (lehenengo sektorea) eta zehazki administrazio publikoetatik bereizteko. Edo irabazi-asmorik **gabeko** erakunde gisa, irabaziak dituen sektore pribatutik (bigarren sektorea) eta zehazki enpresetatik bereizteko.

Baina, batez ere, **erakundeen ezaugarriak azpimarratu eta gizarteari egiten dion ekarpen bereizgarria nabarmentzeko.**

Hala, HSSk eta erakundeek egiten duten ekarpen sozialaren inguruko gogoeta egiterakoan - guztizko balioaren eta balio erantsiaren inguruan- jorratu beharreko lehenengo alderdietako bat da HSSren definizio “positiboa” egitea, bere nortasunarekin eta gizarteari egiten dion ekarpen bereizgarriarekin bat datorrena.

Halaber, prozesu honetan proposatu zen **gizarte-ekintza (gehienetan gizarte-zerbitzuekin dago lotuta) esku-hartze sozialaren eremu zabalagotik bereiztea, hainbat sistema** (gizarte-zerbitzuetako sistemak, enplegua, diru-sarrentzako eta gizarteratzerako bermea...) eta **eremu** baititu (gizarte- eta lan-esparrua, arlo sozio-sanitarioa, soziohezitzailea...), baita **garapenerako lankidetzatik** bereiztea ere, eta hala erantzungo die:

- sektorea definitu eta egituratzeko prozesuei (Euskadin, GKEen koordinakundea Sareen Sarearen parte izatera igaro da berriki eta eskatu du garapenerako lankidetzaren EHSSLn sartzeko);
- eta garapenerako lankidetzako erakundeek lankidetzan aritzen diren herrialdeetan, gure kasuan Euskadin, gizarte-ekimeneko eta esku-hartze sozialeko gainerako erakundeek egiten dituzten esku-hartzeak bezalako ikuspegiei, bai eta batzuek eta besteek Euskadin egiten ditugun jarduera komunei ere (sentsibilizazioa, garapenerako hezkuntza, boluntariorik ezaren sustapena...).

Hori horrela, EHSSLren 3. artikuluan honela definitzen dira ekimen sozialeko erakundeak (beltzez daudenak eta oin oharrak gureak dira).

“Euskadiko hirugarren sektore sozialeko **ekimen sozialeko erakundeak** dira formalki eratuta dauden eta nortasun juridiko propioa duten ekimen sozialeko³ fundazioak, elkarteak, kooperatibak eta beste entitate oro, baldin eta honako ezaugarriak badituzte:

³Irabazi asmorik gabeko kooperatibak dira:

Ekintza boluntariokoak: oinarri soziala boluntarioz, bazkidez, gobernu-organoetako kide diren pertsonen, edo erakundearen boluntario gisa laguntzen duten bestelako pertsonen osatua dutenak⁴, erabat edo partzialki.

Gizarte zibilaren parte dira, gizarte zibiletik eta gizarte zibilarentzat sortuak: euskal gizartetik sortu dira eta, jatorritik, lotura eta konpromiso egonkorra mantentzen dute lurraldearekin eta haien jardueraren hartzailerak diren pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateekin; edo, zuzenean, pertsona eta familia hartzailerak eurek eratu dituzte, eta zehaztu gabeko pertsona-taldeei zuzenduta daude, eta ez pertsona jakin batzuei.

Pribatuak: instituzionalki administrazioetik bereiziak eta autogobernatuak; haien gobernu-organoaren partaidetzaren gehiengoa ezin dute irabazi-asmoak dituzten enpresek edo instituzioek osatu aurreko artikuluan aurreikusitako balizko kasuan izan ezik.

Irabazi-asmorik gabeak: haien helburua ez da etekin ekonomikoak banatzea, eta, duten figura juridikoa dela eta, behartuta daude balizko etekin oro erakundearen misioan berriro inbertitzera, edo, beste era batera esanda, ezin dituzte etekinak banatu.

Parte-hartzailerak: erabakiak hartzeko orduan, modu parte-hartzailerak erabiltzen dituzte, haien figura juridikoari aplikatzen zaion araudiak ezartzen duenaren arabera”.⁵

Eta esku-hartze sozialerako jarduerak, 4. artikuluan.

“1.- Esku-hartze sozialeko jardueratzat edo esku-hartze sozialeko esparrukotzat hartzen dira hauek sustatzea xede duten jarduerak: gizarteratzea, garapenerako lankidetzat, biztanleria osoaren eskubideen aitortza eta zaurgarritasun-, bazterketa-, babesgabetasun-, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen edo komunitateen beren eskubideak eraginkortasunez baliatzea, gizarte-bazterketaren, marjinazioaren, babesgabetasunaren eta indarkeria matxistaren kontra borroka eginez. Halaber, jarduera horiek gizartea eraldatzen dute, gizarte bidezkoago, solidarioago, berdinzaleago, parte-hartzailerago eta demokratikoago bat lortzeko bidean aurrera egiteko.

2.- Zehazki, esku-hartze sozialeko jardueratzat hartuko dira aurretik adierazitako helburuarekin gauzatzen diren zerbitzu sozialak, enplegurako sarbidearen sustapena eta beste edozein jardura, betiere esparru, politika eta sistemen elkarrekin-guneetan gauzatzen badira, esate baterako gune soziolaboralean, soziohabitazionalan, soziohegiztazionalan, soziosanitarioan, soziojudizialean, soziokulturalean edo beste batzuetan.

3.- Interes orokorreko jardura sozialtzat hartuko dira 3. artikuluan zehaztu diren ekimen sozialeko erakundeek abiarazita langile kontratatuek edo boluntarioek irabazi-asmorik gabe eta askatasunez gauzatzen dituzten esku-hartze sozialeko jarduerak. Zehazki, halakotzat hartuko dira honako hauek:

- a) **Sentsibilizazioa**, salaketa, arauak egiteko edo aldatzeko prozesuetan parte hartzea, edo sektore publikoarekin edo bestelako agente sozialekin solaskide izatea.
- b) **Sustatzea** eta antolatzea elkartasun antolatua eta herritarren parte-hartze soziala, zehazki, gizarte-boluntarioena, elkar laguntzarena, eta esku-hartze sozialaren hartzailen asoziazionismoarena.
- c) Beharrak **hautematea**, ikerketa eta berrikuntza.

⁴Artikulu osoan plurala erabili dugu testuak erakundeei egiten dielako erreferentzia, pluralean, eta gainerako kasuetan ez duelako adierazten.

⁵Ohartu nortasunaren aldetik desberdintasun esanguratsuak daudela hemen hirugarren sektoreko figura juridikoen artean, praktikan beti hala ez izan arren: fundazioak daude alde batetik, eta elkarteak eta ekimen sozialeko kooperatibak bestetik.

D) Erantzukizun publikoko beharren, edo hortik kanpokoen **hornikuntza** (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza), eta esku hartzeko beste jarduera edo proiektu batzuk egitea”.

Esparru horretan, definizio positiboa bilatu nahian, Sareen Sareako erakundeok honela definitzen gara duela denbora batetik.⁶

“Euskadiko Hirugarren Sektore (Ekintzazkoa) Sozialeko erakundeak gara, euskal gizartetik sortuak, eta bazterkeria, babesgabetasun, mendekotasun eta/edo desgaitasun arrisku-egoeran dauden pertsona, familia, kolektibo eta komunitateen gizarteratzea eta haien eskubideak modu eraginkorrean gauzatzea sustatzen dugu. Gizartetik bertatik sortzeak honako hau esan nahi du:

- Egoera eta behar jakin batzuekin konpromisoa duten pertsonen egonezinetik eta ekimenetik sortu gara, aurpegia duten pertsona eta familietatik, eta, batzuetan, kaltetutako pertsonen, familien, kolektiboen edo komunitateen bultzadatik.
- Gure jatorritik, lotura eta konpromisoa mantentzen dugu zerbitzua eskaintzen diegun pertsonekin eta familiekin, haien eskubideak aitortu eta modu eraginkorrean betetzen direla ahaleginduz eta haien bizi-proiektuak ahalik eta autonomia gehienarekin egin ditzaketela bermatuz. Helburu hori lortzeko, lotuta dauden hainbat funtzio ditugu, hala nola, gizarte-sentsibilizazioa, salaketa eta eskubideen sustapena, boluntarioen sustapena, elkar laguntza edo zerbitzuen hornikuntza, besteak beste. Eta zerbitzu eta jarduera horien bitartez erantzun pertsonalizatuak eta osoak ematen dizkiegu haien beharrei, eta haien gizarteratze-prozesuan, edo beharrezkoa bada bizitzan osoan zehar, laguntzen diegu.
- Herritarren parte-hartzea motibatzen dugu eta, horretarako, boluntarioz osatutako (bazkideak, zuzendariak eta/edo kolaboratzaileak...) gizarte-oinarria daukagu, eta, batzuetan, soldatapeko langileak ere baditugu.
- “Tokiko” erakundeak gara, gure jarduteko eremua gehienetan udalerria, lurralde historikoa edo autonomia erkidegoa izan ohi da.

Euskal gizartetik sortu gara, euskal gizarteari erantzunak emateko. Parte-hartze sozialaren bidea gara eta gizarte zibilaren antolatutako elkartasunaren adierazpena. Beraz, ekimen sozialeko erakundeak gara. Eta etengabeko konpromisoa daukagu pertsonekin, familiekin, kolektiboekin edo komunitate hartzaileekin, baita lurraldearekin ere. Kokatuta gauden erakundeak gara. Egon gara, gaude eta egongo gara. Pertsonekin eta gizartearekin daukagun konpromisotik sortu gara eta horri erantzuten diogu; konpromisoa ez dago abaguneen menpe eta ez du interes ekonomikoak gidatzen, gizartea eta herritarren eskubideak hobetzeak baizik.

Zerbitzuak eskaintzea gure ekintzaren parte izan da hasieratik, eta bitarteko garrantzitsua da, gainerako funtzioekin batera, gure helburua betetzeko, zentzua hartzen baitu. Eta beharrei erantzuteko eta, era berean, eskubideak eskatu eta eraikitze bitarteko nagusia izan da, ekimen publikoarekin elkarlanean gizarte-zerbitzuen, erantzukizun publikoaren eta partekatutako ekimenaren sistema finkatu arte.

Helburuan aldi baterako edozein etekin berriz inbertitzea, gure kasuan, ez da konpromiso bat bakarrik, gure izaera juridikotik eratorritako betebeharra baizik, gure nortasunarekin eta gure jardueraren helburuarekin koherentzia dagoena.

⁶ Sareen Sarea. *Erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen hornikuntzan ekimen sozialak duen parte hartzea. Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Zuzendaritzak kontratazio publikoen inguruan duen proposamenaren inguruko gogoetak*. Laburpen exekutiboa Sareen Sarea. Bilbon, 2013ko martxoaren 30ean, 26 orri. Definizio hori HSSak HHSSLan duen definizioarekin alderatuz gero, ikus daiteke HSSren definizioa zabalagoa dela bere osotasunean -ekintza sozialek harago (gizarte-zerbitzuak)-, eta nabarmen izan duela sustatzen diren eskubideak herritar guztien eskubideak direla, nahiz eta eskubide horiek gauzatzeko zailtasun gehien dituztenak defendatzen diren.

Ekonomia sozialarekin, enpresa sozialarekin, “laugarren sektorearekin” duen desberdintasuna

Hirugarren sektorea definitzerakoan bi ikuspegi handi daude: ekonomia sozialaren ikuspegia, Europako tradizio kontinentalarekin lotuta, erakundeen dimentsio demokratikoa nagusitzen dena (jabetzarako modu kolektiboak), **eta Irabazi Asmorik Gabeko Sektorearen ikuspegia,** tradizio anglosaxoia duena, etekinen banaketarik eza eta boluntariotzaren garrantzia agerian jartzen duena.

Ikuspegi hori du EHSSLak eta hirugarren sektoretzat hartzen ditu irabazi asmorik gabeko erakundeak (fundazioak, elkarteak, ekimen sozialeko kooperatibak...) eta bestelako erakundeak, kasu jakin batzuetan, hala nola gizarteratzeko enpresak edo enplegurako zentro bereziak, ⁷**baina ez ekonomia sozialekoak,** loturak dauden arren desberdintasun handiak dituztela ulertzen delako.

Hala, ekonomia sozialeko enpresek ekonomia-jarduera baten garapena dute oinarri, jabetzaren forma kolektiboak hartzen dituzte eta aldi baterako etekin ekonomikoak kideen artean banatzen dituzte. Alabaina, irabazi asmorik gabeko erakundeak: ez dute beti jarduera ekonomikorik garatzen, eta egiten badute, ez da beti haien jardueraren nukleoa, eta ez dituzte beti jabetzaren forma kolektiboak hartzen; eta haien izaera juridikoa dela eta, etekin ekonomikoak edo soberakinak, baldin badituzte, haien erakundearen helburuan inbertitzeko betebeharra dute (irabazi asmorik gabea).

Erakundeen irabazi asmorik gabeko izaerak ere **bi ikuspegi** ditu erakundeak definitzerako orduan.

Horietako batek erakundeek aldi baterako etekinak ez banatzeko betebeharra nabarmentzen du (**“non profit”** erakundeak/ez dituzte etekinak banatzen) eta besteak, helburua (soziala, kulturala...) betetzera bideratzen ditu erakundeak, positiboki, etekinak bilatu ordez, baita jarduera ekonomikoren bat baldin badute ere (**“not for profit”** erakundeak / etekinik bilatzen ez duten edo helburua lortzera bideratuta daudenak).

Nolanahi ere, mugakideak daude irabazi asmorik gabeko eta ekonomia sozialaren artean, zalantzarik gabe, eta loturak figura horien eta enpresa sozialen eta erantzukizun soziala dutenen artean. Hala, dokumentu honen helburuari dagokionez, interesgarria da **“enpresa soziala”** eta **“laugarren sektorea”** definitzeko ahalegina ere egitea, sektoreen arteko intersektzio-eremuak baitira, baina ezin dute sektore bakoitzaren ekarpen espezifikoak arriskuan jarri.

Enpresa sozialaren figurak ez du oraindik definizio arauturik, baina Europako testuinguruan sustatu egiten da, eta bere ezaugarria da irabazi asmorik gabeko sektorearen (etekinaren ehuneko esanguratsu bat gutxienez helburuan inbertitzea) eta ekonomia sozialaren (jabetza

⁷EHSSLak hirugarren ataleko 2. artikuluan gizarteratze-enpresen eta enplegurako zentro berezientzako ezartzen dituen kasuetako batzuk dira: a) erakundeak hirugarren sektoreko elkarteek osatzea gehienbat; b) azken horien helburuak lortzeko eratu izana; c) aldi baterako etekinak haien helburu soziala betetzeko inbertitzeko betebeharra txertatzea estatutuetan.

kolektiboko formak eta dinamika parte-hartzaileak) berezko ezaugarri eta praktika zehatzak hartzen dituela.

Eta laugarren sektorea, aurretik aurkeztu dugun kontzeptua ez bezala, jarduera-ekonomikoak gizartera bideratzen dituzten hiru sektoreen arteko elkargune gisa ulertzen da, guztion ongizatea eta interes orokorra maximizatuz.

Planteamendu mota horiek jarduera ekonomikoaren kontzeptu berri baterantz aurrera egitea dakarte, eta interes berezia dute “Interes Orokorreko Gizarte-Zerbitzuei” (IOGZ) dagokienez. Baina ekarpen sozial bereizgarria izan dezaketen sektoreen arteko mugak ez dira ezabatu behar, jarduera-ekonomikoari eta zerbitzu horien hornikuntzari dagokionez.

Sektore bakoitzak egin behar duen ekarpen soziala ikusaraztea, aitortzea eta sustatzea da asmoa, haien identitatearen adierazle gisa eta direna izateari utzi gabe. Hau da, haien ekarpen bereizgarria.

Hala, gure iritziz, beste sektoreek ez dute boluntarioen edo hartzaileen parte-hartze soziala antolatu behar eta dimentsio hori osotasunean garatu behar, ekimen sozialeko erakundeak izango liratekeelako eta direna izateari utziko lioketelako.

Era berean, enpresa batek eta ekonomia sozialeko enpresa batek ez ditu lor ditzakeen aldi baterako etekin guztiak bere helburuan inbertitu behar, irabazi asmorik gabeko enpresa izango litzatekeelako eta dena izateari utziko liokeelako.

Eta ekimen eta esku-hartze sozialeko enpresa bat ezin da soilik zerbitzuak eskaintzera bideratuta egon ekonomikoak ez diren bere jardueraren beste dimentsio batzuk garatu gabe, ezta askotariko funtzioen artean oreka mantendu ere, nahiz eta horietako batzuk antola ditzakeen (sentsibilizazioa, salaketa...), esaterako, sareen bitartez. Halaber, ekimen sozialeko erakundeek oinarri soziala eta boluntarioa izan behar dute, eta boluntarioek osatu behar dute erabat edo partzialki.

Ondorioz, **oso garrantzitsua da** identifikazioari, aitortzari eta sustapenari dagokionez, **HSSk euskal gizarteari egiten dion ekarpena, HSS positiboki definitzea, bere ekarpen bereizgarria kontuan hartzea** (beste sektore batzuei eta hirugarren sektoreko beste arlo batzuei dagokienez) **eta pertsonen zerbitzuen guztizko balioari eta balio erantsiari dagozkien dimentsioak eta adierazleak ezartzea, definizio hori eta, zehazki, EHSSLn zehaztu diren ekintza sozialeko erakundeek eta esku-hartze sozialeko jardueren ezaugarriak positiboan aintzat hartuz.**

Jarraian, Hirugarren Sektore Sozialak euskal gizarteari egiten dion ekarpenaren inguruko alderdi orokor batzuk aurkeztuko ditugu, eta, hurrengo atalean, esku-hartze sozialaren arloan erantzukizun publikoko sistemei eta zerbitzuei egiten dieten ekarpenarekin zerikusia duten alderdi espezifikoak.

Hirugarren Sektore Soziala euskal gizarteari egiten dion ekarpena. Alderdi kuantitatiboa

Liburu Zuriko⁸ datuen arabera, Euskadiko HSS **3.500 erakundek, 125.000 boluntariok eta 36.000 soldatapeko langilek osatzen dute** (EAEEn lana duten biztanle aktiboen % 4).

2013an erakundeek kudeatu zuten kopuru ekonomikoa **1.451 milioi** eurokoa izan zen, hau da, **Euskadiko BPGaren % 2,2**. Azken Liburu Zuriko datuen arabera:

- 10 erakundetik 9 **elkarteak** dira eta elkarbizitzan daude fundazioekin, ekimen sozialeko kooperatibekin, gizarteratze enpresekin, etab.
- % 42k **20 urte baino gehiagoko ibilbidea** du eta % 13 duela 5 urte baino gutxiago sortu zen. Beraz, sektore bizia da.
- % 95ek **zerbitzuren bat eskaintzen du** eta % 75ek **beste funtzio sozial batzuk** ere egiten ditu (sentsibilizazioa, salaketa, beharrak hautematea, berrikuntza...). Zerbitzuak eskaintzera eta erakunde batzuetan zerbitzuak eskaintzera bideratuta dauden garrantzia areagotu egin da.
- Erakundeek **hainbat arlotan** jarduten dute, hala nola soziala-zeharkakoan (edo zibikoan), gizarte-zerbitzuetan, garapenerako lankidetzan, aisialdian, osasunean, enpleguan... (Lehen biek erakundeen % 34 eta % 25 hartzen dituzte, hurrenez hurren). Eta hainbat **“kolektibo”** hartzen dituzte aintzat: gutxi gorabehera % 50ek haien jarduera adinagatik, sexuagatik, jatorriagatik edo etniagatik zaugarritasun-egoera berezian dauden kolektiboetara eta faktore horiekin zerikusia duten diskriminazio-egoeretara bideratzen dute gehienbat, eta % 25ek bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonetara.
- 10 erakundetik 8ren jarduerak ez dute gairatzen EAEko eremu geografikoa. % 35ek lurralde historikoaren barruan egiten du lan eta % 27k **eremu geografiko** txikiagoan. Oro har, tokian jarduten duten erakundeak dira eta lurraldeari lotuta daude. Horrek erraztu egiten du erantzunak bertako ezaugarri espezifikoetara egokitzea, komunitatearen parte-hartzea aktibatzea...

Hirugarren Sektore Soziala euskal gizarteari egiten dion ekarpena. Alderdi kualitatiboa

Justifikazioan aipatu dugun moduan, euskal gizartea ez litzateke bera izango hirugarren sektore sozialaren ekarpenik gabe, kohesioari, inklusioari, partaidetzari, demokraziari, berdintasunari, solidaritateari eta justiziari dagokionez.

Gainera, EHSSLaren arrazoiak aurkezpenean adierazten den moduan, ekarpenak zerikusia du *emaitzekin* eta behar sozialei *erantzuteko moduarekin* - sektoreen arteko elkarlanetik eta

⁸ CANTO A., LOPEZ-AROSTEGUI, R.; eta ROMEO, Z. *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuria* [online] Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia, 2015 [kontsulta: 2016ko abenduaren 10ean]. Hemen eskuragarri: http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1823_1_LibroBlancoTSSeuskadi2015.pdf [Datos de actividad correspondientes al ejercicio de 2014 y datos económicos correspondientes al ejercicio de 2013.](#)

hartzaileen parte-hartzearekin (pertsonak, familiak, kolektiboak eta komunitateak)-, eta erantzun egokiagoa sustatzen du horrela (osoa, hurbilekoa, pertsonalizatua, parte-hartzailea):

“Ondorioz, hirugarren sektore soziala euskal gizartearen funtsezko aktiboa da, batetik, edozein egoeratan –bereziki, ekonomiaren, politikaren, erakundeen, gizartearen eta balioen alorretan egun pairatzen ari garen krisialdi-egoera honetan– bidezkoa, berdintasunezkoa, solidarioa, kohesionatua, parte-hartzailea eta demokratikoa izango den gizarte gisa eratu dadin; eta bestetik, premia sozialei modu egokiagoan erantzun dakien, hots, modu integral, gertuko, pertsonalizatu eta parte-hartzailean, betiere sektoreen arteko lankidetzan oinarrituta eta pertsona, familia, kolektibo eta komunitate jasotzaileen parte-hartzearekin.⁹

Hala, parte hartzen dugun HSSko erakunde eta sareok ekarpena egin dugu eta ekarpena egiten dugu, besteak beste, pertsona guztien eskubideen sustapenean eta gauzatze eraginkorrean, eta, zehazki, zailtasun gehien dituztenen artean.

Ekimen sozialeko erakundeak garenez, herritarren parte-hartze solidarioa eta antolatua egituratzen dugu oro har, baita esku-hartze sozialaren hartzaileena ere. Gure oinarri soziala, normalean, erakundearekin boluntarioki elkarlanean aritzen diren pertsonen osatzen dute gehienbat (bazkideak, kolaboratzaileak eta gobernuko organoetako kideak).

Ekimen sozialeko erakundeak garenez, gure esku-hartzea gizarte-zerbitzuetan, enplegurako sarbidearen sustapenean eta arlo horien eta beste arlo, politika eta sistemen arteko interakziorako eremuetan garatzen dugu, hala nola gizarte- eta lan-esparruan, esparru soziosanitarioan, soziohezitzailean, soziokulturalean, soziojudizialean edo soziohabitazionalan, *gizarteratzea herritar guztien ahalik eta autonomia handienarekin sustatzeko*, eta, zehazki, bazterkeria, babesgabetasun, mendekotasun, desgaitasun edo arrisku egoeran daudenena.

Erakunde guztiok (txikiak, ertainak eta handiak) egituratzen dugu hartzaileen partaidetza solidarioa, eta/edo haien aldeko herritar guztiena, haien bizi-kalitatea hobetu eta haien eskubideak aitortu eta bete daitezen, sentsibilizaziorako eta salaketarako jardueren bitartez, beharrak hautemanez, zerbitzuak eskainiz, elkar lagunduz, etab.

Eta, zehazki, politikak, sistemak eta erantzukizun publikoko espazioak arauaren arabera eta modu eraginkorrean eraikiz eta egonkortuz.

Erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzen ditugun HSSko erakundeok (txikiak, ertainak eta handiak) esku-hartze sozialaren arloan erantzukizun publikoko zerbitzu eta sistema gisa indartuz joan diren arreta-zerbitzuen eta sareen zati handi bat sustatu dugu.

Eta aktiboki parte hartu dugu erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzera bideratuta ez dauden HSSko beste erakunde batzuekin batera beti eskatu izan dugun erantzukizun publikoa indartzera bideratu diren planen, jarraibideen eta arau-prozesuen sustapenean eta garapenean.

Halaber, gure ekarpena funtsezkoa izan da pertsonentzako eta laguntza-sareentzako zerbitzuak modu egokian eratzeko, askok eskaini baitugu arreta osoa, jarraitua, pertsonalizatua, hurbilekoa, parte-hartzailea... Betiere erakunde gisa ditugun ezaugarriekin bat eginez eta arauen

⁹6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. Arrazoien aurkezpena, hamargarren paragrafoa.

estandarrekin koherentzian, hala nola arretarako komunitate-ereduarekin edo gizarte-zerbitzuentzako kalitatezko Europako borondatezko esparruarekin (eredu gisa, gizarte-zerbitzuen arloa soilik hartzen baldin badugu kontuan).

Gainera HSSko erakundeok zerbitzu bat baino gehiago eskaini ohi dizkiegu hartzaileei, pertsonentzako eta familientzako informazio- eta orientazio-zerbitzuak, laguntza sozialeko zerbitzuak eta kasua koordinatzeko funtzioak barne.

Eta pertsona, familia, talde eta komunitate espezifikoek laguntzeko benetako sareak ere sustatu ditugu, eta kasu batzuetan, sistema publiko bat baino gehiago (osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua...) eta sistema horien arteko interakzio-eremuak ere hartu dituzte, pertsona eta familia hartzaileei laguntza osoa, koordinatua, hurbilekoa, jarraitua eta haien beharretan oinarritzen dena eskainiz.

Hirugarren Sektore Soziala eta zerbitzuen hornikuntzarako eredu mistoa

Gizarte-zerbitzuei dagokionez, eta zehazki Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemari¹⁰, zentzuzkoa dirudi aipatzea Euskadin:

- ***Ekimen sozialeko erakundeok erantzukizun publikoko zerbitzu gisa indartzen joan diren zerbitzuen gehiengoa sortu eta sustatu dugu eta hornikuntzan elkarlanean aritu gara.*** Hala, aipatu dugun moduan, bazterkeriaren, babesgabetasunaren eta desgaitasunaren arloan dauden laguntza-sareak, hein handi batean, EHSSren eta Euskadiko administrazio publikoen (zehazki, EHSSn eta Foru Aldundien Artean, baina baita udalekin ere) arteko elkarlanari esker izan dira. Mendekotasunaren arloan ere historikoa eta esanguratsua da.
- ***Zerbitzu horiek hornitzeko ekimen publikoaren eta sozialaren harremana beti elkarlanerako harremana izan da.*** Hori dela eta, urte anitzeko “lankidetzaz hitzarmenen” bidez formalizatu da, kasu askotan, harremana, eta askotan, urteko dirulaguntzak ordezkatu dituzte, zerbitzuekiko konpromiso publikoa handitu ahala. Eta erakundeak eta Euskadiko sektore soziala elkarlanean aritu dira kolektibo desberdinen beharrak hauteman eta ebaluatzeko, diseinatzeko, planifikatzeko eta laguntzarako sareak hedatzeko, zerbitzuen hornikuntzarako (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza), laguntza ikuspegiak edo ereduak edo kalitatezko estandar jakin batzuk definitzeko eta sustatzeko, berrikuntzarako (izaera esperimentala duten zerbitzuak martxan jarritz), kasuak koordinatzeko... Betiere harremana bezero-hornitzaile terminoetan ezarri gabe.
- ***Ekintza sozialeko erakundeak ahalegintzen gara gizarte-zerbitzuen inguruko araudian (HSSko 7. eta 8. artikulua) aurreikusten diren printzipioekin, arreta ereduarekin eta kalitatezko estandarrekin*** eta haien berezko ezaugarriekin koherenteak diren praktikak hartzen. Eta, beraz, arreta pertsonalizatua eskaini ohi dugu (pertsona bakoitzean oinarritzen den plangintzaren ikuspegitik), osoa (hainbat zerbitzu konbinatuz, eta horiek elkar laguntzako eta/edo boluntariotzarako jarduerekin konbinatuz, pertsonarekin eta testuinguruarekin lan eginez...), jarraitua (pertsonen prozesu osoan zehar lagunduz eta

¹⁰Arlo sozio-sanitarioari eta soziolaboralari eta enpleguaren sistemari dagokionez, nahiz eta kopuru eta intentsitate txikiagoarekin.

beharrezkoa bada, bizitza osoan zehar), hartzaileen parte-hartzearekin (esku-hartzean, zerbitzuen diseinuan, erakundearen jardueretan eta baita gobernuko organoetan ere), etab.

Zalantzarik gabe, alderdi horiek erronka ere badira EHSSrentzat eta administrazio publikoentzat, baina baita ere egia da esku-hartze eta ekimen sozialeko erakundeek ezaugarriak eta identitateak (helburua eta balioak) praktika horiek hartzea eskatzen dutela eta hori ahalbidetzen dutela.

HSSren ekarpen bereizgarriak (erantzukizun publikoko zerbitzuak eskaintzeko guztizko balio eta balio erantsia, erantzukizun publikoko arreta-sistemek haienezako nahi dituzten arreta-ereduekin koherentzia) **eta HSS eta sektore publikoak esku-hartze sozialaren arloan erantzukizun publikoko sistemak eta eremuak sustatzeko egun eta historian zehar egin duten elkarlanak**, (Euskadiko Gizarte-Zerbitzuen kasuan esaterako; izatez, arreta-sarea zerbitzuetarako sarbidearen eskubide subjektiboa aitortu aurrekoa da), **beste alderdi esanguratsu batzuekin batera** (gerora interes orokor gisa definituko ditugu, pertsonentzako zerbitzuen eta IOGZen ezaugarriak, elkarriketa zibilerako edo botere publikoek egokien iruditzen zaien moduan zerbitzu horiek antolatzeako printzipioa), **honako hau azaltzen dute:**

- 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Euskadiko Gizarte-Zerbitzuen Sistema erantzukizun publikoko eta kudeaketa mistoko sistema gisa definitzen duela, publiko-pribatua, eta kudeaketa publiko zuzena eta ekimen sozialaren bitartez eginiko kudeaketa nagusitzen direla.
- 6/2016 Legeak, maiatzaren 12koak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoak, elkarriketa zibilaren printzipioa ezartzen duela eta, horrela, HSSko erakundeek dagozkien politika publikoetako edozein fasetan parte hartzeko eskubidea dutela finkatzen duela, esku-hartzearen eremu osorako, baita betearazpenean ere.

Eta horien eta erantzukizuna duten administrazio publikoen arteko lankidetzak kontuan hartzen duela: a) sistemen eta sistemen arteko interakzioarako esparruetan (soziosanitarioa, gizarte- eta lan-esparrua...); b) zerbitzuen hornikuntzan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza); c) eta kasuaren koordinazioan.

- Bi legeek administrazio publikoen kontratazio-araudian erregulatuta dagoen kontratuzko itun-ereduaren bestelakoa den itun sozialeko¹¹ erregimena hartzen dute kontuan¹², eta izaera berezia duen jardura egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeekin dituzten itunak (EHSSLko 12.3 artikulua definitzen duen ustezko izaera berezia). Eta horrela HSSko erakundeek eta administrazio publikoen arteko harremana ezartzeko beste modu batzuk ahalbidetzea, esku-hartze sozialaren eremuan erantzukizun publikoa eta interes orokorra duten zerbitzuak eskaintzeko, kontratuen bestelakoak eta koherenteagoak eredu mistoaren berezkoagoa den elkarlan harremanarekin, elkarriketa zibilaren printzipioarekin

¹¹ Itun sozialaren eta hezkuntza-askatasunaren (baliokidea elkarriketa zibila litzateke) eta ikasketxeak aukeratzeko askatasunaren printzipioetan (esku-hartze sozialaren arloan ere ezar daitezkeen printzipioa) oinarritzen den hezkuntza-itunaren arteko alderaketa pentsatu behar da.

¹² Aurki aipatuko dugun moduan, itun sozialaren erregimena baimen edo lizentzia erregimen deiturikoen oinarriaren gainean gara liteke, eta horien kasuan ez da beharrezkoa lehiaketa bidezko hautaketa-prozedurarik egitea; izan ere, aurretik zehaztutako eta dagokion erakundeak, elkarteak edo sektore publikoko erakundeak behar bezala argitaratutako baldintza jakin batzuk betetzen dituzten eragile ekonomiko guztiak daude baimenduta zerbitzuak eskaintzeko, ordainsari baten truke eta aurretik zehaztutako eta argitaratutako baldintza batzuen pean.

(erakundeek politika publikoetako fase guztietan parte hartzeko eskubidea, gauzatzeko fasea barne) eta, bereziki, zerbitzuen ezaugarriekin, hala nola pertsonentzako zerbitzuekin eta interes orokorreko zerbitzuekin.

- Bi legeek, halaber, balioa ematen diete –ituntzean, hitzartzean eta kontratatzean– erakundeen (edo, hala badagokio, enpresen) praktikei, baldin eta, izatez, balioa gehitzen badiete itundutako, hitzartutako edo kontratatutako zerbitzuei, jakinda praktika horiek (batzuk izan ezik, hala nola etekina helburuan berrinbertitzea) ez direla, nahitaez, figura juridiko jakin bat hartzearen ondorio, izan HSSko erakundea edo enpresa. Eta praktika horien balio erantsia aitortzeko helburuarekin, itunak izaera berezia duten HSSko erakundeentzat gordetzeaz gain, sartzeko baldintzak eta diskriminazio positiborako neurriak txertatu behar dituzte, ez itunetan soilik, baita kontratuetan ere.

Arau-aurreikuspen horiek, oro har, **eredu mistoa hartzen dute esku-hartze sozialaren eta zehazki gizarte-zerbitzuen esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuak elkarlanean eskaintzeko eredu egokitzat.**

Aurretiazko esperientzia batzuk

Izaera desberdina duten hainbat ekimen aurkeztuko ditugu hemen, lan honen aurrekariak eta erreferenteak direnak nolabait, eta kontuan hartu ditugunak batez ere adierazleak identifikatzerako orduan, baina baita autoebaluazio-sistema diseinatzerakoan ere. Zehazki, haietako bi izan ditugu bereziki kontuan, hainbat arrazoiengatik:

- **REASen (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) auditoretza sozialeko tresna**, tresna oso egituratua delako autoebaluaiziora bideratuta dagoelako eta sareko sistema baten barruan dagoelako, eta horri esker beste erakunde batzuekin alderaketak egin daitezkeelako, esperientziak trukatu, praktika onak sistematizatu, eta erantsitako emaitzak sarearen barruan eta kanpoan proiektatu, urteko txostena sortuz. Eta REASeko kide diren erakundeen nortasunarekin bat egiten duen diseinua duelako, eta, zehazki, REASeko elkartasun-itunean jasotzen diren sei printzipio edo balioekin. Tresnak eta sortu nahi dugun autoebaluazio-sistemak alderdi horiek izatea nahi dugu eta lan hau egiterakoan kontuan izan ditugu dagoeneko.
- **Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen Taularen “Zerbitzu publikoak ematerakoan Hirugarren Sektore Sozialak duen balio erantsia” lana**, gure proiektuaren helburuekin eta edukiarekin bate egiten duelako.

Lan honetatik kontuan hartu ditugu egitura, adierazleek HSSren balioekin duten lotura (12 kasu honetan), hautatutako adierazleak (kopuru murriztua, sektoreko, erakundeko eta proiektuko adierazleen egituraketa) eta fitxen bitartez egiten duten zehaztapena, betiere,

adierazlearen deskribapena, kalkulatzeko formula, neurriaren unitatea, informazio-iturria, etab kontuan hartuta.

Desberdintasunei dagokienez, gure kasuan, guztizko balioaren ikuspegia gehitu dugu balio erantsiarena edozein zerbitzu eskaintzerakoan, izan publikoa edo ez, eta elkarlan publiko-sozialaren ikuspegia erantzukizun publikoko zerbitzuak ematerakoan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza). Eta ez dugu kontratazioetan klausulak txertatzearen inguruko edukirik garatu; izan ere, aipatu dugun moduan, ez zaigu iruditzen administrazioi kontratazioa denik esku-hartzearen esparruko pertsonen zerbitzuak eskaintzeko elkarlan publiko-sozialarentzako esparrurik egokiena.

Bestalde, kontuan izan dugu **sektoreko hainbat sareren (Gizatea, Gizardatz eta Plena Inclusión) kode etikoan**¹³, ikuspegia ere; izan ere, tresna desberdinak dira, baina lotuta daude zailtzarik gabe.

Kode etikoak, Elkartasun Ekonomiaren Gutunak eta Taularen Kalitatearen Gutunak tresna desberdinen nukleoa osatzeko dimentsio eta adierazleen sistemak eratzeak erreferentziak sortzen dituzte: Ekonomia Solidarioaren Gutunaren kasuan auditoetza sozialerako tresna, Taularen Kalitatearen Gutunaren kasuan balio erantsiaren inguruko adierazleen sistema, etab.

Hala, adierazleez gain, kode etikoetatik kontuan izan ditugu identitatearen garrantzia, eta, zehazki, balioak, balioa (gustizkoa edo erantsia) sortzen duten praktiken erreferentzia gisa; eta ikuspegiak, hala nola kontuan hartzeko beharra (kasu horretan, etikaren ikuspegitik, eta gure kasuan, balioa sortzetik), oso presente baitago FEAPS Plena Inklusioaren kode etikoan; baita erakunde, zerbitzu edo arreta-sistema batean erabiltzaileek duten interakzio koherentea ere, familiena, soldatapeko langileena eta boluntarioena, komunitatearena...

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Lantegi Batuak-en egindako erakunde batek sortzen duen balio sozialaren kuantifikazioaren inguruko lana ere izan dugu kontuan: *Erakunde batek sortzen duen balio soziala kuantifikatzeko metodologia. Lantegi Batuak erakundearen kasua.*

Lan horretatik kontuan hartu dugu guztizko balioa identifikatzeko orduan eta batez ere emandako zerbitzuen balio erantsia kalkulatzeko, “multistakeholder” ikuspegia txertatzeko beharra, erakundearen interes-talde guztien ikuspegia eta aurreikuspenak kontuan hartuta, barnekoenak eta kanpokoak. Halaber, garrantzitsua iruditzen zaigu adierazle kuantitatiboak eta erakundeen dimentsio ekonomikoarekin edo haien jardueraren itzulkin sozial eta fiskalekin zerikusia dutenak txertatzeaz gain, proposatzen dutenaren ildotik aurrerapausoak ematea alderdi sozialen eta ekonomikoen loturan; izan ere, egun irakurketa bereiziaz egiten dira gehienbat, eta, zehazki, inputen eta outputen balioaren monetizazioan eta balio soziala duten output guztien identifikazioan.

Dagoeneko adierazi dugun moduan, gure asmoa ikuspegi hori indartzea da. Uste dugu erakundeen identitateak (helburua eta balioak) egin dugun lan hau izan behar dela abiapuntua,

¹³Gizatea Euskadiko Gizarteratze Enpresen Elkartea da. Gizardatz Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku hartzeko Erakundeen Elkartea da eta Plena Inclusión adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituen Espainiako erakundea da.

eta dagoeneko txertatu ditugu erakundeen ikuspegia (nahiz eta horrek ez duen esan nahi barruko interes-talde guztienak txertatu ditugunik) eta araudiaren ikuspegia.

Araudiaren ikuspegia adostasunaren emaitza izan ohi da, eta nolanahi ere, balioa identifikatzerakoan, erantsia gehienbat, kontuan izan beharreko beste funtsezko elementua osatzen du: araudiak desiragarritzat hartzen dituen zerbitzuen ezaugarriak, arreta-ereduak, kalitatearen borondatezko esparruak, etab.

AUTOEBALUAZIO SISTEMA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Guztizko Balioa eta Balio Erantsia

Euskal gizarteak gizarte-ehun zabala, anitza eta aktiboa izan du eta du gaur egun, ekimen herrikoi askeak sortutako erakundeez osatutakoa. Ekimen horiek, oro har, herritarren eta, batez ere, egoera batek, arazo batek edo gizarte-premia batek kaltetutako pertsonen, familien, taldeen edo komunitateen elkartasun antolatua eta gizarte-partaidetza bideratzen dute¹⁴.

Erakunde horiek euskal gizarteari egindako ekarpena funtsezkoa da eta horregatik aitortu eta sustatu egin behar da. Euskal gizartea ez litzateke bera izango hirugarren sektore sozialaren ekarpenik gabe, kohesioari, inklusioari, partaidetzari, demokraziari, berdintasunari, solidaritateari eta justiziari dagokionez.

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala¹⁵ sustatzeko estrategiaren xedea da <<funtsezko jarduerak bultzatzea, herritarrek, sektore publikoak eta beste sektore eta gizarte-eragile batzuek sektorea hobeto ezagutu eta aintzatesteko eta ekarpen hori egiteko, betiere antolakundeetako gardentasunarekin eta ebaluazio-kulturarekin eta erakundeen gizarte-ekarpenaren identifikazioarekin eta hedapenarekin lotuta (balio osoa eta balio erantsia erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran)>>. Zehazki, Euskadiko hirugarren sektore sozialaren eta

¹⁴ EUSKADI. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 94. zk., 2016ko maiatzaren 19koa. Hemendik hartua: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

¹⁵ EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia*. Hemendik hartua: <https://www.sarensarea.eus/images/documentos/DocumentacionDeReferencia/Estrategia-de-Promocin-del-Tercer-Sector-Social-28-11-2017.pdf>

erakundeen guztizko balioa eta balio erantsia identifikatzeari, aitortzeari eta sustatzeari buruzkoa da 28. jarduketa.

Erakundeen eta sektore osoaren guztizko balioa eta erakundeek zerbitzuei gehitutako balio erantsia identifikatzea, aitortzea eta sustatzea funtsezko gaia da sektorearentzat berarentzat, baina baita sektore publikoarentzat, harekin lankidetzan baikabiltza zerbitzuak eskaintzen, eta azken buruan, hartzaileentzat eta oro har euskal gizartearentzat ere funtsezkoa da. Zerbitzu horiek pixkanaka-pixkanaka erantzukizun publikoko zerbitzu gisa sendotu dira.

Lan honen xedeetarako, eta aurreko fasean eginiko gogoetatik abiatuta, **honela definitu dira guztizko balioa eta balio erantsia kontzeptuak:**

GUZTIZKO BALIOA	BALIO ERANTSIA
Erakunde baten edo sektore baten gustizko balio hartzen da <i>“gizarteari egiten dion ekarpena, oro har”</i> .	Balio erantsia esaten zaio esku-hartze sozialeko erakunde bakoitzak zerbitzuen, erantzukizun publikokoak direnen edo ez direnen, hornikuntzari erantsitako balioari, derrigorrezkotzat jotako elementuez harago. Hau da, <i>“erakunde batek zerbitzu batekin edo zerbitzu zehatz batzuen uztarketarekin edo sarearekin lotuta egindako ekarpenari”</i> . ¹⁶

Galdetegiaren oinarri den adierazle-sistema osatzen duten adierazleek lotura estua dute TSSko erakundeak definitzen dituzten dimentsio eta alderdiekin eta haien ekarpenarekin: gizarte-ekimeneko erakundeen berezko ezaugarriak; esku-hartze sozialeko antolakuntzen zeregina (gizarte-funtzioak eta jarduerak); zer pertsona eta baliabide dituzten; egiteko modua (balioak, arreta-ereduak, antolaketa eta kudeaketa); emaitzak (xedeari lotutakoak) eta antolakuntzen jardueraren eragina.

Hau da, zerk definitzen gaituen gizarte-ekimeneko erakunde gisa, zer egiten dugun, norekin eta zerekin, nola egiten dugun eta zertarako. Eta alderdi horietako bakoitzarekin lotutako zer ekintzek ematen duten balioa (gustizko balioa eta balio erantsia) eta gure izaeraren (ezaugarriak), misioaren (zeregina eta xedea) eta kulturaren (balioak, ereduak edo egiteko, antolatze eta gauzak kudeatzeko “moduak”) zer funtsezko dimentsio adierazten dituzten.

Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen balioak

Adierazleek nahiz galdetegia osatzen duten galderek aintzat hartzen dute ikuspuntu kuantitatibo bat, baina baita ikuspuntu kualitatibo bat ere, aztertutako dimentsioak ezartzeko garaian. Izan ere, dimentsio horien abiapuntua sektorearen berezko zenbait balioen identifikazioa da, haiei esker, gizarteari egindako ekarpena aztertzeko garaian zeri erreparatu behar zaion zehatz daiteke eta. Hala ere, ez dira alboratzen beste sektore batzuek ere badituzten adierazleak. Izan ere, haiei esker, nolabaiteko alderaketa egin daiteke (esate baterako, enpleguaren sorkuntzari, BPGri egindako ekarpenari eta abarri buruz), baina baita zerbitzuen hornikuntzari gehitutako balio erantsiari buruz ere.

Zerbitzu horietan alderdi hautemangarriak edo objektibo egin daitezkeen alderdiak txertatzea, araudian derrigorrezko gisa ezarritakoak ez direnak, eta preskriptoreek (interesa-taldeen, antolakuntzaren barrukoek eta kanpokoek), batez ere herri-administrazioek eta hartzaileek edo erabiltzaileek, beren itxaropenekin bat datozen ekarpen gisa aitortzen dituztenak.

Adierazten zen bezala, **hirugarren sektore sozialak zenbait funtsezko balio ditu**. Balio horiek bere nortasunaren adierazpena dira eta ekimen eta esku-hartze sozialeko antolakuntzek garatzen dituzten funtzio nagusien bidez egin ditzaketen gizarte-ekarpenaren behin betiko muina dira. Pertsonaren berdintasuna/duintasuna, justizia/gizarteratzea, elkartasuna, parte-hartzea eta komunitatearekiko eta ingurunearekiko lotura/konpromisoa dira balio horiek. Zehazki, honela definitzen dira:

BERDINTASUNA ETA DUINTASUNA
(pertsona erdigunean kokatzea)

Berdintasunak berekin dakar hau eraginkortasunez aitortzea eta errespetatzea: gizaki oro baliotsua da bere kabuz, ez da manipulagarria, bere kabuz jarduteko gai da; eta horri esker, bere gaitasunak behar bezala garatzeko eskubidea du.

Pertsona guztien duintasuna da berdintasunaren oinarria, eta pertsona bakoitza berdintzat aitortzea ezinbestekoa da duintasun hori erreala izan dadin. Duintasunak pertsona errespetatzeko zeregina nahiz pertsona eskubide-subjektutzat eta desberdintasunen eta berariazkotasunen subjektutzat aitortzea nabarmentzen du.

GIZARTE PARTAIDETZA (herritartasun aktiboa eta antolatua sustatzea)

Partaidetza (testuingurua neurri batean modelatzeko eta balioa eta aberastasuna emateko ekintza-elkarreragite gisa ulertuta) eta esku-hartze sozialeko partaidetza (herritarren ekintza antolatu eta solidario gisa ulertuta, gizarte-premiak artatzera bideratua, baina baita diskriminazio-, desgaitasuna-, mendekotasuna- eta bazterketa-, babesgabetasuna- edo arrisku-egoerak sortzeko faktoreak eraldatzera ere) bideratzea hirugarren sektore sozialaren antolakuntzen eta sareen oinarritzko xedeetako bat da, eta aldi berean, aukera-baldintza nagusienetako bat.

Horregatik, haientzat funtsezkoa da eragin sozialeko eta politikoko funtzioak garatzea, eta ekintza eraldatzaileari eta beste sektoreekiko eta eragileekiko autonomiari eustea.

GIZARTE JUSTIZIA ETA INKLUSIOA (eskubideak eta eraginkortasunez baliatzen direla bermatzea)

Gizarte-justizia, araudian oinarritzko eskubideen bermetzat hartuta, eta pertsona guztiei beren eskubideak eta zereginak baliatzea ahalbidetzen duten baldintza guztiztat (diru-sarreraren bermea, babes-sistemak, diskriminazio-neurriak edo ekintza positiboa...) hartuta. Eta honakoa izango litzateke emaitza: inklusioa; bizi-baldintza duinak izatea; eta haien bizi-proiektuak garatzeko eta gizarteari ekarpenak egiteko aukerak izatea, ahal bezain autonomia handienarekin eta ingurune arruntetan, edo ahal bezain ingurune normalizatuenetan.

Benetako elkartasunak eta justiziak bata bestearen beharra dute. Biak dira beharrezkoak pertsona guztiek duintasuna izan dezaten, eta erabateko inklusioa (hauetarako sarbidea izatea: enplegua, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, kultura, informazioa, parte-hartzea, aisialdia, harreman-sareak...) eta berdintasuna ekartzen dituzte; ez soilik aukera-berdintasuna, baizik eta, neurri batean, baita emaitzen berdintasuna ere.

ELKARTASUNA (besteen beharrekin lotutako eta haiekin hartu-emanean eraikitzea)

Elkartasunak berekin dakar beste pertsonaren (antolakuntza, erakundea...) lekuan jartzea eta, lehenik eta behin, enpatia eskatzen du: bestearen beharrak, arazoak, nahiak edo ahalak neureganatzea. Beraz, ariketa aktibo bat da eta bi alderdiren proiektuen, nahien, beharren, gaitasunen, mugen... arteko topaketaren emaitza da.

Bestalde, elkartasuna lotuta dago pertsonaren dimentsio sozialarekin, gizakiaren soziabilitatearekin eta elkarrenganako mendekotasunarekin. Pertsonak lagunkoiak gara, besteen beharra dugu bizitzako zenbait unetan, bizikidetza kolektiboko esparruak eraikitzen ditugu, eta neurri handiagoan edo txikiagoan, gure bizi-proiektuak partekatzen ditugu, garena eta duguna, eta beste pertsona batzuekin hartu-emanean eraikitzen dugu geure burua.

KONPROMISOA INGURUNEAREKIN (tokiko eta munduko loturak sustatzea)

Sektoreko antolakuntzek eta sareek lotura egonkorra dugu komunitate batekin, lurralde batekin eta kolektibo batekin (ez gara deslokalizatzen). Pertsonetikiko etengabeko konpromisoari zor zaio lotura hori. Beharrezko gizarte-aldaketak sustatzera bideratuta dago konpromiso hori, beste batzuekin lankidetzan, egoera hobetzeko eta haien bizi-kalitatea sustatzeko.

Gizarte-kapitala hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek funtsezko baliabidea da, eta erabiltzen den aldiro ugaritu egiten da. Gizarte-ehuna sendotu egiten da nahaspilatzen denean.

Kontzeptualki, gogora ekarri behar da lan horretan parte hartzen duten antolakuntzak, galdetegi honen hartzaileak, **hirugarren sektore sozialeko antolakuntzat** identifikatu behar direla Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren legean zehaztutako ezaugarriak oinarri hartuta: egoitza eta jarduera EAEn izatea eta gizarte-ekimeneko eta ¹⁷esku-hartze sozialeko¹⁸ antolakuntzak izatea.

Bitartekaritzaren adierazleak

Adierazle-multzoa eta hortik abiatuta egin den autoebaluaziorako galdetegia dira autoebaluzio-sistemaren eta etengabeko hobekuntzaren oinarria. Gainera, erakunde bakoitzak bete dituen galdetegietatik ateratako datuei esker, EHSS osoaren eta bere ekarpen sozialaren datuak eman ditzakegu. Hala, adierazle horiek abiapuntu izanda, erakunde bakoitzak bete beharreko galdetegia egin dugu, eta autoebaluazioaren oinarri gisa eta proiektuan parte hartzen duten erakundeek datu orokorrak lortzeko balio du.

Proiektuan parte hartzen duten erakundeak EHSSko erakunde gisa identifikatu behar dira, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak zehazten dituen ezaugarriak oinarri hartuta: egoitza eta jarduera EAEn izatea, eta ekimen eta esku-hartze sozialeko erakundeak izatea. Horrez gain, entitate batzuek jarduera berezia izan dezakete.

Alderdi horietako batzuk, hala nola egoitza eta jarduera EAEn izatea eta esku-hartze sozialeko erakundeak izatea, galdetegiaren lehen atalaren parte dira, eta datuak hirugarrengoei (erakunde kanpokoei) helarazi behar bazaizkie soilik bete behar dira.

Erakundeak ekimen sozialeko erakundeak edo izaera bereziko jarduera duten erakundeak direla identifikatzeko beste alderdi batzuk badira guztizko balioarekin eta balio erantsiarekin lotuta dauden adierazleak.

¹⁷Euskadiko hirugarren sektore sozialeko gizarte-ekimeneko antolakuntzak dira gizarte-ekimeneko fundazioak, elkarteak, kooperatibak eta beste edozein entitate, formalki eratutakoak eta berezko nortasun juridikoz hornituak, baldin eta ezaugarri hauek betetzen badituzte: a) borondatezko ekintza; b) gizarte zibilaren parte direnak eta gizarte horretatik eta horretarako sortzen direnak; c) pribatuak; d) diru-irabazi gabekoak; e) parte-hartzaileak.

¹⁸Esku-hartze sozialeko jardueratzat edo esku-hartze sozialeko esparrukotzat hartzen dira hauek sustatzea xede duten jarduerak: gizarteratzea, garapenerako lankidetzat, biztanleria osoaren eskubideen aitortza eta zaurgarritasun-, bazterketa-, babesgabatasun-, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familiek, taldeek, kolektiboek edo komunitateek beren eskubideak eraginkortasunez baliatzea, gizarte-bazterketaren, marjinazioaren, babesgabatasunaren eta indarkeria matxistaren kontra borroka eginez. Halaber, jarduera horiek gizartea eraldatzen dute, gizarte bidezkoago, solidarioago, berdinzaleago, parte-hartzaileago eta demokratikoago bat lortzeko bidean aurrera egiteko.

METODOLOGIA ETA LAN-PLANA

Faseak eta lan-plana

Jarraian, parte hartu duten erakundeek kontrastatutako online tresna diseinatzeko eta zabaltzeko egin dugun prozesua azalduko dugu, hiru urratsetan multzokatuta (galdetegia sortzea, erakundeekin kontrastatzea eta erakundeetan sistema txertatzen laguntzea). Euskadiko balio erantsiaren askotariko moduak biltzea da helburua:




Pausoa



Zehazki, honela garatu da ekintza bakoitza:

1. Pausoa: Galdetegia sortzea



Prozesu honen jatorria aurreko fase batean ateratako adierazleen gogoetan eta sorkuntzan dago. Fase hori zuzendu zuen Sareen Sareako batzordea da berriro ere fase honetako talde eragilea. Sektoreko sareen ordezkariak eta erreferenteak, sektoreari buruz dakiten guztia eskainiz.

Lehen saioa irailaren 26an izan zen, eta helburuak identifikatu ziren eta eman beharreko urratsak zehaztu, tresna alderatu ahal izateko aurretest talde bat izateko.





Aurreko fasean sortutako adierazle-sistema berrikustea, adierazle horiek galdetegian sartzeko galdera ulergarriak bihurtu ahal izateko izan diren zailtasunak hautematea eta adierazleak galdera bihurtzea.

Proiektu honen aurreko fasean, gizarte-ekarpena, ikuspuntu kuantitatibotik nahiz kualitatibotik modu objektibagarrian neurtzen saiatzen den adierazle multzoa sortu zen (hautemandako bost funtsezko balio ditu oinarri: berdintasuna, gizarte-justizia, gizarte-partaidetza, elkartasuna eta konpromisoa ingurunearekin). 56 adierazleak honela banakatzen dira:

- 20 adierazle orokor, balio horiekin estu lotuta ez daudenak;
- 16 adierazle, antolakuntzaren guztizko balioarekin lotutakoak;
- 20 adierazle, antolakuntza zerbitzu bati gehitutako balio erantsiarekin lotutakoak.

Sistemak, oinarritzko adierazleekin batera, beste adierazle batzuk jasotzen ditu, adierazle nagusiaren edo nagusitik eratorritako adierazleen desagregazioak direnak. Galdetegia egiteko garaian, denak hartu dira aintzat, bai eta arretaz aztertu ere, galdetegirako galdera bihurtzeak zailtasun handiak baitakartza.

Adierazle horiek eta dagozkien desagregazioak galdetegi euskarri baterako galdera ulergarri bihurtu dira. Horrek berekin ekarri du 56 adierazle gutxi gorabehera galdetegiko 100 galdera bihurtzea.






Online galdetegi bat sortzea, Encuestafacil tresnaren bidez.

Adierazleetatik eratorritako galdetegia online euskarri batean egin da. Euskarri hori irisgarriagoa eta erabilerrazagoa da informazioa bete behar duten antolakuntzentzat. Online galdetegia lau ataletan egituratuta dago: identifikazio- eta jarduera-datuak, alderdi orokorrak, guztizko balioa eta balio erantsia.

Online galdetegiak egiteko web-tresna bat (Encuestafácil) erabili da, adierazle-sistema pilotua denez, izaera horri hobeto egokitzen baita. Izan ere, iritzi da ez dela proportzionala esperientziaren ondorioz oraindik ukitu asko beharko dituen tresna baten diseinuan inbertitzea, eta hala, proiektuaren garapena asko merkatzen da.¹⁹

¹⁹ Dauden plataforma digitaletan, antolakuntzen bidez bildutako informazioaren tratamendua multzokatu egin daiteke. Halaber, datuak ikus daitezke, lizentzia prestatzen den bitartean. Era berean, aurrerago galdetegia berriz aktiba daiteke, egokitzen jotzen bada, lizentzia berria ordainduz. Bestalde, aurreko inkestako datuak berreskuratu ezin diren arren, inkestak eta tratamenduaren emaitzak PDFan inprima daitezke, eta emaitzen kasuan, Excel euskarriara esporta daitezke gordetzeko, lizentziak barne hartzen duen aldia amaitu baino lehen.


Galdetegiari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sakatu *Tresna-Galdetegia* atala.



Hasierako tresna, antolakuntzekin kontrastatu aurrekoa, urriaren 25ean egindako saioan erakutsi zaio Sareen Sarearen batzordeari. Ordutik, egindako ekarpenak txertatu zitzaizkion, entitateei aurkeztu ahal izateko ahalik eta galdetegi itxiena izateko.

Tresnaren aurretetan parte hartu beharko luketen antolakuntzen irizpideak zehazteko baliatu zen saio hori. Lurralde historikoa, entitateen tamaina eta jardueraren esparrua aintzat izan ziren antolakuntza parte-hartzaileak aukeratzeko garaian.

2. Pausoa: Erakundeekin krontastatzea



Kontzeptu-esparruan zehazten den bezala, proiektu horretan parte hartzen duten antolakuntzak hirugarren sektore sozialeko antolakuntzatzat identifikatu behar dira Euskadiko hirugarren sektore sozialaren legean zehaztutako ezaugarriak oinarri hartuta: egoitza eta jarduera EAEn izatea eta gizarte-ekimeneko eta esku-hartze sozialeko antolakuntzak izatea. Horrez gainera, entitate batzuek jarduera berezia izan dezakete.

Horrez gainera, lurralde historikoaren, entitatearen tamainaren eta esparruaren aldagaiak oinarri hartuta, parte har dezaketen entitateen zerrenda bat egin zen (gonbidatu behar diren entitateak eta ordezeko entitateak, badaezpada, aurrekoek ez badute parte hartzen). Entitate horiekin zegoen harremana hartu zen abiapuntutzat, baina Sareen Sarearekin harreman txikiagoa duten entitateak ere sartu ziren. Batzordeko pertsonak modu aktiboan hartu zuten parte hautatutako entitateekin harremanetan jartzen eta haiek motibatzen, proiektuan parte har zezaten.



Antolakuntzekin informazio-saioa egitea, galdetegia, zergatik parte hartuko duten eta galdetegia alderatzeko eta aztertze bideak ezagutarazteko.

Tresna-galdetegia konplexua zenez, prozesu horren funtsezko uneetako bat izan zen antolakuntzen tresna horri buruz eman zezaketen feedbacka edo kontrastea. Hautatutako antolakuntzekin galdetegiaren aurretik egitea, funtzionamendua balioesteko, zailtasunak, ulertzeko zailak izan daitezkeen kontzeptuak, baliagarriak izan ez daitezkeen galderak, zer datutatik izan daitezkeen zaila informazioa lortzea eta abar identifikatzeko. Galdetegia betetzetik eratorritako emaitzak baino garrantzitsuagoa da antolakuntzek prozesuarekin lotuta egindako ekarpena eta galdetegia betetzetik eratorritako gorabeherak.

Entitate parte-hartzaileekin azaroaren 22an, Boluntan, egin zen saioa. Guztira 17 antolakuntzak egin zuten bat proiektuarekin. Saioak bi zati izan zituen:

- Lehen zatian, proiektua egungo araudi-esparruan kokatu zen eta horrelako proiektu bat egiteko arrazoiak, jatorria eta esparru ideologikoa azaldu ziren²⁰.
- Bigarren zatian proiektuaren oinarriko kontzeptuak azaldu ziren, galdetegia nola bete ulertzeko eta antolakuntzetatik zer lankidetzat mota espero zen zehazteko gakoak definitu ziren (tresnaren eta haren edukiaren kontrastea, informazioa betetzeko garaian zailtasunak eta abar).



Antolakuntzei beharrezko aholkularitza ematea, galdetegia betetzeko (online aholkularitza, telefono bidezkoa eta presentziala).

Hilabete batean, antolakuntzek datuak lortzeko lehen ariketa egin zuten, eta aldi berean, prozesuaren zenbait alderdiri buruzko oharrak hartu zituzten (terminologia dela-eta galdetegia betetzeko zailtasunak, erregistratu gabe geratu diren datuak, eskatutakoa ez ulertzea, horren ondoriozko zailtasunak, galderen garrantzia...).

Denbora tarte horretan, xede horretarako talde teknikoak kontsultak egitera akuilatu zituen antolakuntzak eta entitateen eskura jarri zuen galdetegia bete ahal izateko beharrezko laguntza teknikoak. Deiak artatu ziren, mezu elektronikoak erantzun eta laguntza tekniko presentziala ere egin zen.



Antolakuntzekin hausnarketa-saioa egitea, prozesuan gorabeherak identifikatzeko eta galdetegiari buruzko iritziak elkarri azaltzeko, hobekuntzak hautemateko eta galdetegia eguneratzeko xedez.

²⁰Manuel Medinok, Sareen Sarearen batzordeko kideak, hartu zuen sarrera horren ardura.

Abenduaren 19an egin zen bigarren saio presentziala antolakuntzekin, galdetegia betetzeko prozesua nola zihoan jakiteko. Xehetasunez heldu zitzairen identifikatutako zailtasunei, galdetegiaren indarguneei, baztertu zitezkeen galderei eta abarri. Saio horretatik eratorritako informazioa xehetasun handiagoz azaltzen da *Entitateek tresnari egindako ekarpenak* atalean.

Jasotako ekarpenekin galdetegia eguneratzeko, abenduaren 20an beste saio bat egin zen Sareen Sarearen Batzordearekin, online galdetegiaren azken diseinuan aurreratze aldera.

3. Pausoa: Erakundeetan sistema ezartzen laguntzea



Metodologia, ikuspegia eta lanerako tresnen diseinua kontrastatzea.

Erakundeetan sistema txertatzeko beharrari erantzuteko eta Sareen Sarearekin batera Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde horietan balio erantsiaren ebaluazioa txertatzeko, hauek egitea zen asmoa: behin-betiko lan-proposamena kontrastatzea, ezarritako lehentasunekin koherentea zen prozesuaren plangintza egitea eta informazioa biltzeko tresnaren (galdetegia) diseinua behin-betiko amaitzea

Beraz, lehenengo zeregin honetan, beharrezkoa izan da erabiliko diren oinarrizko materialak diseinatu eta prestatzea, hala nola gutunak, posta elektronikoak eta informazioa biltzeko tresna (galdetegia).


Sareen Sarea erakundeekin jarri zen harremanetan haiek kide diren sareen bitartez, eta proiektuaren inguruko informazioa eta proiektua aurkezteko jardunaldietan parte hartzera motibatze beharrezko informazioa bidali zien.



Proiektua azaltzeko eta parte hartzera motibatze jardunaldia egitea.

Fase honetan egin zen online jardunaldia. Arina izan zen eta erakundeen zalantzak izan ziren nagusi, azalpen teorikoak edo prozesuaren ingurukoak baino gehiago. Saio horiek baliagarriak izan ziren proiektuaren jatorria eta helburu orokorrak azaltzeko. Halaber, jarraitutako prozesua indartu zen eta EHSSeko erakundeen lan-esparruaren oinarria osatzen duten bost balioak eta amaieran erabilitako adierazleen oinarria izan zirenak zehaztu zituzten, bakoitzaren edukia aztertuz. Erabilitako bi kontzeptuei dagozkien gaiak argitu zituzten (guztizko balio eta balio erantsia). Halaber, adierazleak diseinatzeko gehigarri gisa erabili diren dokumentuak jakinarazi


zitzaizkien. Adierazleak islatu zituzten amaierako bi tresnak eta behin-betiko galdetegia ere erakutsi zituzten. Parte hartzeko bi ereduak eta bakoitzaren ekarpenak pentsatu zituzten, bai erakunde bakoitzerako, bai sektore osoarentzako. Azkenik, diseinatutako kronograma eta prozesuaren une bakoitzean egingo diren ekintzak planteatu zituzten.



Azalpen eta motibazio jardunaldia egin ostean, galdetegia egiteko prozesua hasi genuen. Horretarako, Sareen Sareak tresna (galdetegia) nola erabili azaltzeko posta elektronikoa informatiboa helarazi zuen, baita laguntza teknikoaren izena, posta elektronikoa eta telefonozenbakia ere. Aurreratu dugun moduan, tresnak konbinatutako bi modalitatetan parte hartzeko aukera ematen du:

- Emaillez, eta beharrezkoa izanez gero, eguna eta ordua zehaztuko dira telefonoz egiteko, erakunde bakoitzaren beharren arabera.
- Ordu jakin bat zehaztuz, erakundeek behar izanez gero erabili ahal izateko.

Fase honetan erakundeek galdetegia betetzeko behar zituzten harreman guztiak ezarri ziren, bai autoebaluaziorako, bai sektorearen ikuspegi osoa izateko.



Proiektuaren azken zeregina emaitzak gizarteratzea da. Fase honetan estatistiken bitartez lortutako datuak aztertuko dira, amaierako txostena egin ahal izateko informazioak lortzeko. Lurraldeen edo sareen araberrako bereizketak galdetegian parte hartzen duten erakundeen kopuruaren araberrakoak izango dira. Kopurua oso baxua izanez gero, datuak batera aurkeztuko dira. Halaber, informazioa begiz ulertzen laguntzeko behar beste grafiko eta taularekin osatuko da txostena. Eginiko prozesuaren azalpena, parte hartu duten erakundeen kopurua eta profila ere txertatuko dira eta baita beste iturri batzuetatik lortutako informazioak ere (esaterako, barometrotik).

Parte hartu duten erakundeen kopurua ikuspegi osoa eta adierazgarria sortzeko behar dena baino nabarmen txikiagoa izan denez, kasua aztertzea erabaki da, datu erantsien ikerketaren alternatiba gisa. Azterketa mota horrek funtzio bikoitza du:

- Alde batetik, ikerketaren parte izan diren eta hori egiteko denbora eta ahalegin gogoangarria eskaini duten erakundeen **Gutzizko Balioa eta Balio Erantsia nabarmendu** nahi du. Bete dituzten galdetegien kopuruak balio adierazgarririk ez duen arren,

galdetegietako bakoitzak balioa du eta ordezkatzeko duen erakundearen isla da. Kasuaren azterketarekin balio hori sustatu nahi da.

- Bestalde, eta sektorearen gaineko orokortasunak egiteko kasu kopuru nahikorik ez dagoenez, parte hartu duten erakundeak funtsezko bi aldagaien inguruan multzokatu dira; jarduera-eremu nagusia eta erakundearen tamaina. Era berean, multzokatzeko honek aukera ematen du **beste informazio-iturri batzuk erabiltzeko**, esaterako, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren barometroa, **talde horietako bakoitzaren errealitatea zein den ezagutzeko**.

Metodologia. Galdetegia eta landa-lana

Aztertu da erakunde bakoitzak erabakitzea bere parte hartzeko modua (bat edo biak), bere baliabideen eta egokitasunaren arabera, kontuan hartuz, balioa sortzeari dagokionez, barneko eta kanpoko komunikazioa kontuak emateko ariketa ere badela.

- **Autoebaluazioa:** erakundeari eta/edo zerbitzuei buruzko informazioak lortuz, denbora-continuum batean norberak alderatu ahal izateko eta ibilbidea ikusteko. Datuak ez dira kontuan hartuko sektorearen irudia osatzeko. Sistema honek, batez ere, autoebaluazio-prozesua erraztu eta etengabeko hobekuntza lortu nahi du erakunde bakoitzean, norbere burua denboran zehar sozialari dagokionez egin duen ekarpenarekin alderatuz (guztizko balioa eta eskaintzen dituen zerbitzuei gehitzen diena). Hala ere, autoebaluazio-elementua oinarrizkoa eta lehentasunezkoa den arren, alderaketak ezar daitezke erakundearen artean, –eremuen arabera, neurriaren arabera edo interesekoa izan daitekeen beste edozein elementuren arabera– batez bestekoa konparatuz, datu kuantitatiboak aintzat hartuta, edo ikuspegi kualitatibotik. **Autoebaluazio-formatuan egin ahal izateko, Excel bat jarriko da erakundearen eskura; adierazle guztiak jasotzen dira bertan** eta horiek islatzen dute erakundearen guztizko balioa eta balio erantsia.
- **Konparaziozko ebaluazioa:** erakundeak Sareen Sareari erakundearen datuak emango balizkio, sektorearen ikuspegi orokorra izango genuke, eta eremu, kolektibo, eta abarren arabera alderaketak ere egin ahal izango genituzke. Ildo berean, sistemak, lehenik eta behin, erakunde bakoitzeko komunikazioa hobetu nahi du egiten duen ekarpen sozialari (emaitzak) eta balioa sortzeko prozesuei buruz, eta, gainera, emaitzen sozializazioa ere bultzatu nahi du. Bestalde, Sareen Sareako kide diren beste erakunde batzuekin informazioa partekatuta, sarean ikas daiteke, sektorearen ikuspuntu globala izanik. Horri esker, partekatutako identitatea sendotu daiteke, eta kanpo-komunikazioko ekintzen bidez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren ekarpen soziala agerian jar daiteke. Modalitate hori ENCUESTA FACIL plataforman oinarrituta dagoen **galdetegiaren bidez** egingo da. **Galdetegi hori Excelaren aparteko inprimaki bat da**, eta erakundearen guztizko balioari eta balio erantsiari buruz informazioa lortzeko **ezinbestekotzat hartu diren adierazleak** soilik ditu.

Berriro ere gogorarazi behar dugu autoebaluazioa egiteko erakunde bakoitzak Excela erabili duela, eta adierazleen sistematik abiatuta diseinatu dela Excel hori. Sareen Sareari datuak eskaintzeko, erakundeek galdetegia bete dute. Galdetegiak Excelak baino galdera gutxiago ditu.

Etorkizunean, galdetegia aldizka erabiliz, erakunde bakoitzak bere ekarpen soziala hauteman, ebaluatu eta jakinarazi ahal izango du, hau da, bere guztizko balioa eta zerbitzuen hornikuntzari eranstean dion balioa, erantzukizun publikokoa izan ala ez.

1. urratsean zehazten den bezala, prozesu honen ondorioz, online tresna-galdetegia lortu da, papera baino euskarri arinagoa, antolakuntzek informazioa lau ataletan multzokatuta bete ahal izateko: identifikazio- eta jarduera-datuak, alderdi orokorra, guztizko balioa eta balio erantsia. Azken atal hori antolakuntza (zerbitzu bakoitzari agregatutako datuekin) edo zerbitzu mailan bete daiteke.

Galdetegia eranskinetan kontsulta daiteke paperean. Lagin gisa, hona hemen online bistartzearen adibide batzuk:



Sareen sare
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

CUESTIONARIO SOBRE EL VALOR TOTAL Y EL VALOR AÑADIDO DE LAS ORGANIZACIONES (19nov2019)

Continuaré más tarde

SAREEN SAREA pretende mediante este trabajo avanzar en la construcción de un planteamiento compartido sobre la contribución del TSSE a la sociedad vasca. Se trata de **conocer, visibilizar y aumentar la contribución social que cada organización del sector aporta.**

Este cuestionario online está pensado como una herramienta que permite a cada organización contar con un **sistema de autoevaluación** en relación al valor total (1) y el valor añadido (2) de las organizaciones, así como generar **información agregada sobre la contribución social del sector** a partir de datos facilitados por las propias organizaciones.

(1)> VALOR TOTAL: *Se entiende por valor total de una organización, o de un sector, "el conjunto de su contribución a la sociedad".*

(2)> VALOR AÑADIDO: *Por valor añadido se entiende el valor que añade cada organización de intervención social a la provisión de servicios, de responsabilidad pública* o no, más allá de los elementos considerados obligatorios. Es decir, la contribución que una organización realiza en relación con un servicio, o con una combinación o red de servicios concretos.*

DATOS DE IDENTIFICACIÓN Y ACTIVIDAD

*Antes de comenzar indique:

- ☐ Acepto que Sareen Sarea utilice los datos de la organización para generar estadísticas agrupadas del sector (en ningún caso se mostrarán de manera exclusiva los datos de su organización).
- ☐ No acepto que Sareen Sarea utilice los datos de la organización para generar estadísticas agrupadas del sector (en ningún caso se mostrarán de manera exclusiva los datos de su organización).

*Os solicitamos indiquéis el **nombre de la organización** para poder tener un registro de las organizaciones que han participado en el proyecto.

*Año de cumplimentación del cuestionario

*¿La organización tiene sede y actividad en la CAPV?

- ☐ Sí
- ☐ No

Para cualquier duda o aclaración podéis dirigirlos a Fundación EDE a través del email: aremiro@fundacionede.org o llamando al teléfono: 94 400 99 99 (Arantza Remiro)

[<-Anterior](#) [Siguiente->](#)

40%

Xede bikoitza kontuan izanda diseinatu zen galdetegi hau, eta horrek are gehiago zaildu du haren eraikuntza:

1. Antolakuntzentzat autoebaluazio-tresna izatea



- Ekarpene neurtzeko eta ebaluatzeko.
- Identitatea sendotzeko eta zabaltzeko, ebaluazioan eta hobekuntza-ekintzak ekarpen diferentziala, misioa zenbateraino betetzeko duen, funtzioen oreka... aintzat hartzen baita.
- Alderdi horien inguruko hausnarketa sistematizatzea.
- Interes-taldeekiko komunikazioa sendotzeko, parte-hartzea eta gardentasuna areagotuz.

2. Sektoreko datu agregatuak ematea



- Sektorearen baterako ekarpene zein den jakiteko, guztizko balioaren eta balio erantsiaren baldintzetan.
- Partekatutako identitatean sakontzeko.
- Sektorearen gizarte-ekarpenak zer garrantzi duen ezagutzera emateko gizartean, bai eta sektorea sendotzeko ekintzen beharra eta zentzua ezagutarazteko ere.

Bi xede horiek betetzeko asmoz, antolakuntzek galdetegia betetzean, datuak beste antolakuntzekin partekatzea edo ez erabaki dezakete, baterako analisisa egiteko. Hau da, barne-analisisa (autoebaluatu soilik) egin dezakete edo barne-analisisa eta baterako analisisa (ebaluatu eta datuak partekatu):

Aukera
A
Barne-analisisa

Prozedura entitatearen barruan egiten bada soilik, ez da beharrezkoa identifikazio- eta jarduera-datuak betetzea.

Antolakuntzek ez dituzte datuak partekatzen, ondoren beste erakunde batzuenekin batera aztertzeko. Galdetegia ekarpenari buruzko barneko datuak izateko betetzen da.



Sektorearen informazioa bermatzeko datuak eman, esperientziak partekatu eta/edo jardunbide egokiak sistematizatu nahi badira, atal guztiak bete behar dira, funtsezko adierazleak gutxienez bete behar dira eta onespina eman behar da antolakuntzaren datuak multzokatutako estatistikak sortzeko erabili ahal izan daitezen.

Horren ondorioz, edonola ere:

- antolakuntza bakoitzak ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko aukera izango du, denboraren joanean bere buruarekin alderatuz.
- beste batzuekin ikasi ahal izango da, sarean, lankidetzan, eta baterako sinergiak sortzeko aukera izango da.
- Beste esperientzia batzuen eta jardunbide egokien berri izateko aukera.
- Balioa sortzen duten jardunbideei buruz kolektiboki ikasteko aukera, sistematizatuz eta txertatuz edo antolakuntza bakoitzean sendotuz.

Adierazi behar dugu, euskarri digitalari dagokionez proiektuak onlineko aplikazio zehatz bat izan duela eta proiektuaren eta onlineko galdetegiaren autoadministrazioaren euskarria izan dela. Galdetegirako dagoeneko badagoen onlineko plataforma bat erabiliko da. Aurreteterako ENCUESTA FACIL erabili zen eta 3. fasean erabiltzeko ere egokia iruditu zaigu. Aurretetaren ostean erakundeek egin zituzten ekarpenak galdetegian sartu dira eta beharrezkoa izan da behin-betikoa ixtea.

Maiatzaren 3an bidali zituen Sareen Sareak gonbidapenak eta parte hartzeko bi modu posibleak. **Landa-lanarekin hasi ginen horrela.** Maiatzaren hasieran egindako bidalketa masiboaren ostean, hainbat bidalketa egin ziren aldizka, prozesuan ahalik eta erakunde gehienek parte har dezaten sustatzeko.

Gainera, landa-lana egiten zen bitartean (2021eko maiatzaren 3tik ekainaren 30era), EDE Fundazioak laguntza teknika jasotzeko bitartekoa jarri zuen, eta zalantzak zituzten edo galdetegia osatzeko laguntza zuzena behar zuten erakunde guztientzat eskuragarri zegoen. Landa-lanaren ostean, 14 erakunde harremanetan jarri ziren EDE fundazioarekin eta 28 kontsulta egin zituzten guztira, gehienak posta elektronikoaren bitartez.

Bi hilabeteko landa-lanaren eta Sareen Sareak ahalik eta partaide gehien lortzeko egindako ahaleginen ostean, **24 erakundek hartu dute parte konparaziozko ebaluazioaren modalitatean.** Parte hartu duten erakundeak arlo oso desberdinetako erakundeen lagin txikia dira, jarduera-esparruari, erakundearen tamainari, kontingentziari, izaera juridikoari eta abarri dagokionez.

Gainera, erakundeen **etengabeko hobekuntza** bermatu ahal izateko prozesuak ebaluatzeko beharretik abiatuta, prozesuaren amaieran gehitu den elementua ebaluazioaren galdetegiaren emaitza da. Guztizko balioaren eta balio erantsiaren galdetegia betez proiektuaren azkeneko fasean parte hartu duten erakundeei (20 baino gehiago) bidalitako galdetegia, eta tresnaren aurkezpenean parte hartu zuten, baina galdetegia bete ez zuten (laurogei gutxi gorabehera) erakundeei bidalitako galdetegia -beste galdera batzuekin-.

EMAITZAK. EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN GUZTIZKO BALIOA ETA BALIO ERANTSIA

Sarrera. Kasuaren azterketa

Galdetegi-prozesu konplexutik eratorritako zailtasunek eta Euskadiko Hirugarren Sektoreko erakundeen parte-hartze eskasak azaleratu dute azterketarako bestelako metodologia bat beharrezkoa dela, izaera kuantitatiboagoa duten azterketatik eratorri izan ohi denaren bestelakoa. Ikerketa kuantitatiboaren premisa edo helburuetako bat ezagutza kuantifikagarria eta neurgarria sortzea da, eta kontrolatutako lagin batetik unibertso handiagoa batera estrapolatu daitekeena. Kasu gehienetan informazioaren ezaugarrien orde, informazioaren kalitatea nabarmentzean datza.

Egia da ikerketa kuantitatibo bateko emaitzak unibertso zehatz batera estrapolatzeko adierazgarritasunaren baldintza jakin batzuk beharrezkoak direla, baina, halaber, egia da ikerketan parte hartu duen erakunde bakoitzetik lortutako informazioak berdin balio duela horren azterketa egiteko.

Kasuaren azterketak kasua deskribatzea bilatzen du, eta ez baliozko ezagutza unibertsala (geroko kontrolatutako inferentzientzako ere baliagarria izan daitekeen arren). Kasuen azterketetan ohikoena ikerketaren helburua edo fenomenoak deskribatzea da, eta ez alderdirik agerikoenak soilik, baita ikusgarrienak ez direnak ere. Era berean, Hirugarren Sektoreko erakundeek jarduten duten errealitatea azaldu eta ulertzeko jardura ere barne hartzen du.

Kasuaren azterketa, gizarte-zientzietan aplikatutako baliabide metodologiko gisa, laguntza oso baliotsua da praktikak eta antolakuntza-egiturak hautemateko, erakunde bakoitzaren balio erantsia neurtzeko, ingurunearekin duten harremana, etab. Horregatik, ikerketan parte hartu duen erakunde bakoitzaren kasuaren azterketa aurkeztuko dugu jarraian, bai parte hartu duen erakunde bakoitzaren guztizko balioari, bai balio erantsiari dagokionez.

Beraz, kasuaren azterketak tresna analitiko gisa duen balioa deseraiki ostean, **ikerketaren emaitzak parte hartu duten erakundeen jardura-arloen arabera jorratu dira**, eta sei jardura-arlo nagusi bereizi dira: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, Enplegua, Osasuna, Gizarte-Zerbitzuak, Soziala-Zeharkakoa (zibikoa) eta Aisialdia. Gainera, Hirugarren Sektore Sozialeko Behatokiak unibertso beraren inguruan egiten dituen aldizkako lanak erabiliz (kasu honetan 2019ko Barometroa²¹), erreferentzia egiten zaien erakundearen errealitatearen inguruko benetako irudia lor daiteke.

²¹ Egia da Euskadiko Sektore Sozialaren 2019-2020 Liburu Zuriak informazio xeheagoa duela erreferentziazko unibertsoaren inguruan, baina txostena ez da oraindik argitaratu. Beraz, 2019ko barometroa da txostena argitaratu den egunean dagoen erreferentziarik eguneratuena.

GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA arloko erakundeak

Proclade Yanapay Fundazioa

Proclade Yanapay Fundazioa “Klaretiar misiolariak sustatutako Garapenerako Lankidetzako Gobernu Kanpoko Erakundea da”, **fundazio** gisa dago eratua eta **nazioartean** jarduten du. Garapenerako Lankidetzako Gobernu kanpoko Erakunde gisa, **kolektibo zaurgarri**ei laguntza eskaintzen jarduten du. Garapenerako nazioarteko lankidetzaz gain, aisialdiaren eta jardueren zibikoaren arloan ere jarduten du. Urteko kopuru ekonomikoa **300.000 eta 1.500.000 euro artekoa izaten du**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** adierazten dute bere zorroan ez daukala erantzukizun publikoko zerbitzurik eta berezko baliabideekin sustatu dituen zerbitzuak ez direla zehaztu. **Gobernuko organoetan emakumeek duten presentziari** dagokionez, organoaren % 50 emakumeek osatzen dute (3 emakume). Zuzendaritza edo gerentzia, aldiz, gizon batek darama.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari eginiko ekarpen osoan dago. Ekarpene horren zati gisa, erakundeak 2020an **2.950 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, kasu gehienetan, pertsona edo kolektibo zaurgarri. Pertsona horien erdia baino apur bat gehiago emakumezkoak izan ziren (% 53). Gainera, **eragin soziala eta/edo politikoa** duten prozesuen ondorioz, dokumentuak, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egitea, editatzea eta/edo zabaltzea lortu dute, baita politika berriak edo horien aldaketak ere.

Erakundearen modu aktiboan parte hartzen duten **boluntarioei** dagokienez, % 41 emakumezkoak dira eta % 70 aldi baterako boluntarioak dira. Alabaina, nabarmendu behar dugu astean 20 ordu baino gehiago ematen dituzten boluntarioak % 30 baino gehiago direla. Boluntariorik gabe, **elkarteak ingurunearekin duen loturan eta elkartasunean** ere islatzen da elkartasuna. Zehazki, Proclade Yanapay fundazioaren kasuan, bigarren mailako erakundearen edo ekimenaren parte da; horien artean daude Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, Bilboko Bidezko Merkataritzaren Plataforma, Donostiako Bidezko Merkataritzaren Plataforma, Pobrezia Zero Donostia eta Isilune Zirkuluak Donostia.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

Euskadiko GGKEen Koordinakundea

Euskadiko Garapenerako GGKEen Koordinakundea “garapenerako gobernu kanpoko 81 erakunde euskaldunen kolektiboa da eta nazioarteko lankidetzan eta eraldaketa sozialerako hezikuntzan egiten dute lan”. Elkarte moduan osatutako **erakundea** da eta **Euskadiko Autonomia Erkidego** osoan jarduten du. Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen kasuan, zehatzagoa da egiten dituen zereginen inguruan jardutea gertakizunen inguruan baino, bigarren mailako erakundea delako eta jardueraren zati handi bat ordezkatzeko dituen erakundeekin duen traktua bideratuta dagoelako. Jarduerak **Garapenerako Lankidetzara** daude bideratuta gehienbat. Halaber,

nabarmendu behar dugu 2020an urteko izan zuen kopuru ekonomikoa **300.000 eta 1.500.000 euro artekoa** izan zela.

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak ez dizkie erabiltzaileei zuzeneko zerbitzuak eskaintzen, baina erakundearen **adierazle orokorrek** adierazten dute **ezagutza sortzearekin** zerikusia duten jarduerak egiten dituela, behar berriak identifikatuz, proiektu berriak diseinatuz eta hasiz, eta berrikuntzak eta/edo dauden prozesuetako hobekuntzak diseinatuz. **Gobernuko organoetan emakumeek duten presentziari** dagokionez, organoaren % 86 emakumeek osatzen dute (6 emakume). Gainera, zuzendaritza edo gerentzia emakume batek darama eta ordainpeko erantzukizun-postu bakarra da.

Erakundearen guztizko balioa erakundeak gizarte osoari egiten dion ekarpena da, eta nabarmendu behar dugu erakundeak erreferentziazko lurraldean **elkarlanean eta sareak ehuntzen** egiten duen lana, baita **eragin soziala eta/edo politikoa duten prozesuen** ondorioz izandako lorpenak ere. Lankidetzari dagokionez, 15 erakunde daude lurraldean eta azken hamar urteotan etengabe egin da lan haiekin. Halaber, sareak ehuntzen laguntzeko, modu aktiboan hartzen du parte bigarren edo hirugarren mailako beste sare edo ekimenetan, horien artean daude: Estatuko GGKE Koordinakundea, Sareen Sarea, UKS Sarea, Finantza Etikoa, Arrazismoaren Aurkako Martxa eta Bizkaiko Mugimendu Feminista. Beraz, argi geratzen da lotura eta konpromiso handia duela inguruko erakundeekin. Guztizko balioarekin gizarte osoari egiten dion ekarpenarekin amaitzeko, komeni da nabarmentzea eragin soziala eta/edo politikoa duten prozesuen ondorioz, dokumentuak, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egitea, editatzea eta/edo zabaltzea lortu dutela, baita politika berriak edo horien aldaketak ere.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

ENPLEGU arloko erakundeak

SAREA Fundazioa

SAREA Fundazioa “Gipuzkoako Diozesiar Caritasen tresna da, sozialki eta ekonomikoki babesgabe dauden kolektiboen gizarteratzea eta lan munduan txertatzea lantzeko”, **fundazio** gisa dago eratuta eta **Gipuzkoako Herrialde Historikoan** jarduten du. SAREA Fundazioak **bazterkeria egoeran edo arriskuan** dauden pertsonekin jarduten du gehienbat. Jarduteko arloak **enpleguan oinarritzen dira** gehienbat, baina Gizarte Zerbitzuen arloa eta arlo zibikoa ere jorratzen ditu. Tamaina ertain-handia du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **300.000 eta 1.500.000 euro artekoa da**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute **erantzukizun publikoko** bi zerbitzu dituela egun, eta erakundeko zerbitzuen % 33 inguru direla. **Berezko baliabideekin sustatutako** ekimenak eta, beraz, administrazio publikoak ekonomikoki laguntzen ez dituenak erakundeak sustatzen dituen ekimenen % 50 dira. Guztira 3 ekimenek ematen diete arreta erakundeak artatutako pertsona guztien % 34ri, eta, beraz, erakundearen berezko baliabideekin soilik laguntzen dituzte (Gizarte-baratzea, lanean hasi aurreko tailerra eta joskintza-tailerra). Halaber,

erakunde gisa **ezagutzak sortu** ditu, behar berriak sortuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz. SAREA Fundazioaren gobernuko organoetan ez dago soldatapeko langilerik eta zuzendaritza gizon batek darama.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpen horren zati gisa, erakundeak 2020an **287 erabiltzaileri** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 46 emakumezkoak izan ziren. Erabiltzaileen artean, % 10 inguruk **askotariko diskriminazioa** pairatzen dute, generoagatiko eta etniagatiko diskriminazioan oinarrituta. Era berean, 2020an, erabiltzaile gehienak **gizarte-bazterkeria egoeran zeuden pertsonak** izan ziren (guztien % 85). Neurri aringarri gisa, erakundeak bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden erabiltzaile horien % 5 kontratatu ditu, eta, horrela, funtzio bikoitza betetzen du; laguntza eta gizarteratzea. Erakundeak egiten duen laguntza-lanaz gain, babesen sarea indartu ostean, lortu du erabiltzaileen **% 43k haien egunerokoa modu autonomoan** garatzea testuinguru normalizatuetan. Are gehiago, erakundearen esku-hartzearen ostean, 60 pertsonak lortu dute bizi-proiektu independentea aurrera eramatea. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta ingurunearekiko lotura eta harremanarekin ere neurtzen da**. Ildo horretatik, 35 **boluntariok** parte hartzen dute modu aktiboan erakundearen eta % 71 emakumezkoak dira. Konpromisoari dagokionez, SAREA Fundazioaren kasuan, bigarren mailako erakundearen edo ekimenaren parte da, horien artean daude Hedatze, Hirekin, Ekain, Sareen Sarea eta Sargi.

Erakunde bakoitzak aitortzen duen balio erantsi ororen helburua da esku-hartze sozialeko erakunde bakoitzak gizarte osoari ematen dion zerbitzuetako bat, erantzukizun publikokoak izan ala ez, eta betiere, beharrezkoak diren elementuetatik harago badoaz. Beraz, eta esku-hartze sozialeko zerbitzu jakinak direla argitu ostean, SAREA Fundazioak **balio erantsi altua duen zerbitzu gisa EHUNKIDE** proposatzen du, erantzukizun publikoa duen zerbitzu gisa aitortuta ez dagoen konponketa- eta joskintza-ehundegia.

2020an zehar, EHUNKIDEn 6 **erabiltzailek** hartu zuten parte. SAREA Fundazioak konpromiso maila altua du pertsonen **berdintasunarekin eta duintasunarekin** lotutako balioekin. Tailerretan parte hartu zuten guztiak emakumezkoak izan ziren, eta, aldi berean, guztiek jaso zuten erakundearen erreferentziazko profesional baten partetik arreta pertsonalizatua. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako programa bereizgarriak. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta erreferentziazko profesionalaren arteko bilerak ia egunero izaten dira. Azken finean, helburua da denboran zehar harremanak egonkortzea, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatu daitezke kasu guztietan.

OSASUN arloko erakundeak

Buru Osasuneko Arazoak dituzten Pertsonen eta Familien Gipuzkoako Elkarte (AGIFES) “1985ean sortu zen irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta buruko nahasmendu larriak dituzten pertsonak komunitatean gizarteratzeko eta normalizazioa lortzeko helburua du, baita kalitatezko zerbitzuak aldarrikatzeko (sozialak, lanekoak, osasunekoak) eta buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko ere”. **Elkarte** gisa dago sortuta eta **Gipuzkoako Lurralde Historikoan** egiten du lan. **Buru-osasuneko arazoekin zerikusia duten desgaitasunak dituzten pertsonekin** egiten du lan gehienbat AGIFESek. Buru-osasuneko gaixotasunei oso lotuta dagoen erakundea den arren, bere **jarduera arlo nagusia** Gizarte Zerbitzuena da (hobe esanda, soziosanitarioa). Alabaina, bestelako arloetan ere jarduten du, hala nola aisialdian eta denbora librean. Erakundearen tamainari dagokionez, urteko kopuru ekonomikoa **1.500.000 euro** baino altuagoa da.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute **erantzukizun publikoko** lau zerbitzu dituela egun, eta erakundearen zerbitzuen % 70 % ~~33~~ inguru direla. Babespeko etxebizitza-zerbitzua du, eguneko zentroak, bizitza independentea izateko laguntza-zerbitzuak eta harrera, orientazio eta informazio zerbitzuak. Gainerako zerbitzuak edo ekimenak **berezko baliabideekin sustatzeko** dira edo diru-laguntza publiko eta/edo pribatuarekin; beraz, ez ditu % 100ean administrazio publikoak finantzatzen. Zazpi ekimen dituzte eta 482 pertsonari eskaini diote laguntza 2020an, erakundeak lagundutako pertsonen % 66 (harrera-programak, elkar laguntzarako programak, sentsibilizazioa eta prebentzioa, etab). Halaber, azken 5 urteotan erakundeak lortu du bere arloan **ezagutza jakin bat sortzea**, behar berriak identifikatuz eta proiektu berriak diseinatzuz eta hasiz. **Gobernu-organismoen** osaerari dagokionez, kideen generoaren arabera osaera orekatua da (6 emakume eta 5 gizon).

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpene horren zati gisa, erakundeak 2020an **496 erabiltzaile** eman zion zerbitzua, eta horietatik **ia erdia emakumeak** izan ziren. **Askotariko diskriminazio-** egoerak pairatzen dituzten erabiltzaileak generoagatiko, desgaitasunagatiko eta baliabideen faltagatiko diskriminazioan oinarritzen dira gehienbat. Erakundeak eskaintzen duen laguntzaz gain, babes-sistema indartu ostean, erakundearen esku hartzearekin lortu du pertsonen % 90ek bizi-proiektu independentea garatu edo mantentzea. Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen guztizko balioarekin jarraituz, nabarmendu behar dugu erakundeak ingurunearekin duen **elkartasuna, harremana eta konpromisoa**, baita **eragin soziala eta/edo politikoa duten prozesuen** ondorioz izandako lorpenak ere. Ildo horretatik, azken 10 urteotan erakundea 42 erakunderekin behintzat lanean aritu da maiz eta etengabe. Ez dakit datu hori nondik atera den, baina gehiegizkoa iruditzen zait, maiz eta etengabe dioena batez ere. Esango nuke 20 ingururekin etengabe egin duela lan eta 45ekin aldizka. Horrek erakusten du erakundeak Gipuzkoako Hirugarren Sektore Sozialean duen sustraitzea eta sendotzea. Halaber,

bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenen parte izatea gogoan hartzekoa da, hainbat ekimenetan parte hartzen baitu, hala nola FEDAFES, Sargi, Hedatzen, Sareen Sarea eta Hirekin. Azkenik, eta inguruarekin duen harremanaren eta laguntzaren adierazle gisa, erakundeak **973 bazkide** ditu, gehienak emakumezkoak (% 67).

Buru Osasuneko Arazoak dituzten Pertsonen eta Familien Gipuzkoako Elkarteak **balio erantsia** duten bi zerbitzu ditu; **babespeko etxebizitzaren eskaintza eta birgaitze psikosozialerako zentroak**. Definizio gisa, babespeko etxebizitzak “komunitatean, auzoan bertan, integratuta dauden ostatu gisa funtzionatzen duten pisuak dira, eta komunitateko baliabideekin harremanetan daude erabiltzaileen gizarteratze eraginkor eta efizientea lortzeko”. Bestalde, birgaitze psikosozialerako zentroei dagokienez, “buru-osasuneko gaixotasunen bat duten pertsonen garapen kognitiboa eta psikosoziala sustatzeko zentroak dira, haien autonomia eta bizitza normalizatua egin ahal izatea sustatzeko”. Bi kasuetan, **erantzukizun publikoko zerbitzuak** dira, eta, beraz, administrazioak berak finantzatzen ditu erabat. Zerbitzuaren balio erantsia derrigorrezko elementuetatik harago doa, berdintasunari, duintasunari, elkartasunari, eta inguruarekiko harremanari eta konpromisoari dagokionez”.

Lehenengo zerbitzuak, **babespeko etxebizitzak**, 2020an 54 **erabiltzaile** hartu zituen eta horietatik % 25 soilik ziren emakumezkoak. Beste ezaugarri batzuen artean, zerbitzuaren balio erantsiaren funtsa da pertsona guztiek **arreta pertsonalizatua** jaso zutela erakundearen erreferentziarako profesional baten partetik. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako **programa bereizgarriak**. Erabiltzailearen eta erreferentziarako profesionalaren arteko bilerak egunero egiten dira. Azken finean, helburua da **denboran zehar harremanak egonkortzea**, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatu daitezke kasu guztietan. Erakundearen eta erabiltzaileen arteko harremana oso modu jarraituan eta arinean ematen da pertsona berdina artatzen duten erakundearen artean, eta hori da babespeko etxebizitzan dauden pertsonen % 70en kasua. Halaber, nabarmendu behar dugu justizia eta gizarteratzearen arloan, zerbitzuak berak **prebentziorako laguntzaileak** dituela, eta/edo sustatzaileak.

Zuzeneko arretaz harago, erakundeak **ingurunearekiko harreman eta konpromiso** nabarmena du. Lanaren garrantziaz gain, zerbitzuaren barruan **komunitateko beste eragile batzuekin batera sustatutako hainbat ekimen** antolatzen dituzte, esaterako, taldean erosketak egitea, jarduera fisikoa eta kultur jarduerak.

Balio erantsi altua duen bigarren zerbitzuan, **birgaitze psikosozialerako zentroetan**, 2020an, 156 **erabiltzaile** artatu zituzten. Kasu honetan, % 32 izan ziren emakumezkoak. Beste behin ere, eta ohikoa izaten ari den moduan, pertsona guztiek jaso zuten **arreta pertsonalizatua** erakundearen erreferentziarako profesional baten partetik eta guztiei egin zitzaion haien behar eta egoerara egokitutako **programa bereizgarria**. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta erreferentziarako profesionalaren arteko bilerak egunero izaten dira, astelehenetik ostiralera.

Kasu honetan, garrantzia berezia du **komunitatearentzako irekita dauden jarduerak** eta/edo komunitatean sustatzen direnak egiteak ematen duen balio erantsiak. 2020an zehar, komunitate osoarentzat zabalik zeuden 9 jarduera egin zituzten gutxienez, hala nola txakurrekin egindako terapiak, kirol-jarduerak, kultur jarduerak, etab. Halaber, **zerbitzuaren barnean dauden komunitatearentzako jarduerak** ere nabarmendu behar ditugu. 6 jarduera izan ziren

guztira, esaterako, asteko plangintza, iradokizunen postontzia eta lehengo pertsonako batzordea.

SOS EHS- EASC Elkarteak

SOS EHS-EASC Elkarteak (Elektrohipersentsibilitatea-Sentsibilizazio Zentraleko Ingurumeneko Gaixotasuna), "sentsibilizazio zentraleko ingurumeneko gaixotasunak dituzten pertsonen osatutako autolaguntzarako elkarteak", nagusiki **Euskal Autonomia Erkidegoan** (EAE) jarduten duen **elkarteak** da. SOS SOS- EASC Elkarteak **bazterkeria egoeran edo arriskuan** dauden pertsonekin jarduten du gehienbat. Jarduteko arloak **osasunean oinarritzen dira** gehienbat, baina aldi berean, beste arlo batzuk ere hartzen ditu, hala nola gizarte-zerbitzuena, arlo zibikoa eta enplegua. Tamaina txikia du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **ez da 12.000 eurora iristen**.

Erakundearen **adierazle orokorrekin** erakusten dute erakundeak ez duela erantzukizun publikoko zerbitzurik. Hala ere, **berezko baliabideekin sustatutako** hainbat ekimen ditu eta, beraz, erakundeak sustatzen dituen ekimen guztiak dira administrazio publikoak ekonomikoki laguntzen ez dituenak. 4 ekimenen bitartez arreta eskaintzen die 35 erabiltzailerik eta, beraz, elkartearen berezko baliabideekin soilik artatzen ditu guztiak (funtsean, informazioa, arreta pertsonalizatua eta aldarrikapenerako ekintzak dira jarduerak). Erakunde gisa, **ezagutza sortu** du, berrikuntzak eta/edo dagoeneko badauden prozesuen eta ekimenen hobekuntzak diseinatuz eta sustatuz. **Gobernuko organoetan emakumeek duten presentziari** dagokionez, organoaren %33 emakumeek osatzen dute (3tik 1 da emakumea). Are, zuzendaritza edo gerentzia emakume batek darama, ordainsaririk jaso ez arren.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpene horren zati gisa, erakundeak 2020an **35 erabiltzailerik** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 29 **emakumezkoak** izan ziren. Erabiltzaile ia guztiek **askotariko diskriminazioa** jasaten dute, haien behar espezifikoetara egokituta dauden zerbitzuen faltan oinarrituta. Aldi berean, 2020ko erabiltzaileen % 35 **gizarte-bazterkeria egoeran** zeuden. Erakundeak egiten duen laguntza-lanaz gain, lortu du erabiltzaileen **% 100ek haien egunerokoa modu autonomoan** garatzea testuinguru normalizatuetan. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen modu aktiboan parte hartzen duten **boluntarioei** dagokionez, % 12 emakumezkoak dira eta % 50 aldi baterako boluntarioak dira. Alabaina, nabarmendu behar dugu astean 20 ordu baino gehiago ematen dituzten boluntarioak % 50 direla. Boluntariorik gainera, **elkarteak ingurunearekin duen loturan eta elkartasunean** ere islatzen da elkartasuna. Zehazki, bigarren mailako erakundearen eta ekimenen parte da, horien artean dago Osasun Eskubideen aldeko Elektro-kimiko-sentsibleak. Erakundeak 15 bazkide ditu eta horietatik 8 dira emakumezkoak (bazkideen % 55).

Erakundeak **balio erantsi** gisa onuradun guztiei egiten dien ekarpenari dagokionez, SOS EHS-EASC Erakundea ingurumena beren osasun-egoerara egokitze arazoak dituzten pertsonen

eskaintzen dien **arreta espezifikoa** oinarritzen da. Erabiltzaile bakoitzaren beharretan oinarritzen den arretak 35 **erabiltzaile** artatu zituen 2020an.

Edozein zerbitzuren ekarpena balio erantsian neurtuz gero, lotutako hainbat balio izan ditzake. SOS EHS- EASC Elkartearen arreta espezifikoaren kasuan, **lotura eta konpromiso nabarmena dago inguruenarekin**. Nabarmendu beharra dago boluntarioen lanaren garrantziaz gain (tamaina txikia duen erakunde batean boluntarioen edo elkar laguntzeko jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua nabarmena da), zerbitzuaren barruan **komunitateko beste eragile batzuekin batera sustatutako ekimenak** antolatzen dira; esaterako, ingurumen-osasuneko kontzentrazioak, aldarrikapen eskaerak eta elkartearen arteko loturak indartzeko bilerak. Ekimen horiek, hein handi batean, **komunitateari zabaldua dauden eta/edo bertan egindako ekimenak** ere badira.

Retinosis ARABA Begisare

Retinosis Araba Begisare “Retinosiak kaltetutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko asmoa duen Arabako Elkartea” da, **elkarte** gisa dago osatuta eta **Arabako Lurralde Historikoan jarduten du**. Begisarek **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. **Osasun arloan jarduten du gehienbat**, baina zeharka Gizarte-zerbitzuen eta Aisialdiaren arloak ere jorratzen ditu. Erakunde txikia da eta bere urteko kopuru ekonomikoa **ez da 12.000 eurora iristen**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute erakunde txikia dela eta 2020an ez zuela **erantzukizun publikoko** zerbitzurik eskaini. Gainera, **berezko baliabideekin sustatutako** zerbitzuei edo ekimenei dagokienez, erabiltzaileen babesean eta aholkularitzan oinarritu ziren soilik. Halaber, **ezagutzak sortu** ditu, behar berriak sortuz eta proiektu berriak diseinatzuz eta hasiz. Gobernu-organoetan **emakumeek duten presentziari** dagokionez, lau partaidetarik hiru emakumezkoak dira (% 75) eta zuzendaritza gizon batek darama. Gobernu-organoaren parte diren hiru emakumeek ez dute inolako ordainsaririk esleitura.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari eginiko ekarpen osoan dago. Ekarpen horren zati gisa, erakundeak 2020an **82 erabiltzaileri** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 51 **emakumezkoak** izan ziren. Erabiltzaileen artean ez da hauteman askotariko diskriminazioa bizi duen pertsonarik eta ez dute gizarte-bazterkeria egoerarik edo arriskurik pairatzen.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta parte-hartze sozialarekin neurtzen da**. Erakundean modu aktiboan parte hartzen duten **boluntarioei** dagokienez, boluntarioen 3 pertsonatik 4 emakumezkoak dira eta % 90 aldi baterako boluntarioak dira. Gainontzekoak, hau da, boluntarioen beste % 10ek astean 20 ordu baino gehiago egiten du lan. Boluntariotzaz gain, elkartasuna erakundeak dituen **bazkideen** konpromisoarekin eta parte-hartze sozialarekin ere neur daiteke. Zehazki, erakundeak 77 bazkide ditu eta horietatik ia erdia emakumezkoak dira.

Erakunde bateko balio osoak erakundeak gizarteari egiten dion ekarpenari egiten dio erreferentzia; **balio erantsia**, aldiz, erakunde baten zerbitzu edo zerbitzu-sare bakoitzarekin

neurtzen da. **Ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza eta aholkularitza** da Retinosis Araba Begisareren balio erantsi handiena duen zerbitzua. Erantzukizun publikorik ez duen zerbitzua da eta 2020. urtean 86 **erabiltzaile** artatu zituen, horietatik % 60 emakumezkoak. Zerbitzuaren baliorik nabarmenetakoa da erabiltzeen % 12k laguntza jarraitua jasotzen duela prozesu batean zehar, edo beharrezkoa izanez gero, baita bizitza osoan zehar ere.

AGADELPRISE Donostia

AGADELPRISE Donostia “Lehen eta bigarren mailako Linfedemak eta Lipedemak kaltetutako Gipuzkoako Elkarte” da; **Elkarte** gisa dago eratua eta **Gipuzkoako lurralde historikoan** jarduten du. AGADELPRISE Donostiak **osasun arazo linfatikoak dituzten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. **Jarduteko arlo nagusia osasuna** da, baina beste arlo batzuk ere jorratzen ditu, esaterako, Gizarte-zerbitzuena eta zibikoena. Tamaina ertain-handia du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **12.000 eta 60.000 euro artekoa da**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute erakunde txikia dela eta 2020an ez zuela **erantzukizun publikoko** zerbitzurik eskaini. Gainera, **berezko baliabideekin sustatutako** zerbitzuei edo ekimenei dagokienez, erabiltzaileen arreta osoan oinarritu ziren soilik. Halaber, **ezagutzak sortu** ditu, behar berriak identifikatuz eta berrikuntzak eta/edo dagoeneko dauden prozesuak diseinatzuz eta hasiz. Ezagutzaren belaunaldiari gehitu behar zaizkio 2020an argitaratutako 15 argitalpenak eta komunikazio formalak. **Gobernuko organoetan emakumeek duten presentziari** dagokionez, partaide guztiak emakumezkoak dira, baita zuzendaria ere. Alabaina, ardura-kargu bat berak ere ez du ordainsaririk jasotzen.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpene horren zati gisa, erakundeak 2020an **90 erabiltzaileri** eman zion zerbitzua, eta horietatik gehiengoak **emakumezkoak (% 95)** izan ziren. Erabiltzaileen artean 2tik 3k **askotariko diskriminazio** egoerak pairatzen dituzte, eta batez ere, generoagatiko, desgaitasunagatiko eta baliabideen faltagatiko diskriminazioan oinarritzen da. Aldi berean, 2020ko erabiltzaileen % 22 **gizarte-bazterkeria egoeran** zeuden (20 pertsona guztira). Erakundeak eskaintzen duen laguntzaz gain, babes-sistema indartu ostean, erakundearen esku hartzearekin lortu du pertsonen % 35ek bizi-proiektu independentea garatu izana.

Erakundearen guztizko balioa erakundeak gizarte osoari egiten dion ekarpena da, eta nabarmendu behar dugu erakundeak erreferentziazko lurraldean **ingurunearekiko duen elkartasun, lotura eta konpromiso handia**, baita **eragin soziala eta/edo politikoa duten prozesuen** ondorioz izandako lorpenak ere. Ildo horretatik, 15 **boluntariok** parte hartzen dute modu aktiboan erakundearen. Boluntariotzaz gain, elkartasuna erakundeak dituen **bazkideen** konpromisoarekin eta parte-hartze sozialarekin ere neur daiteke. Zehazki, erakundeak 92 bazkide ditu eta 10etik 9 emakumezkoak dira. Aldi berean, aipagarria da bazkideen % 20 baino gehiago boluntarioak ere badirela. Gainera, **eragin soziala eta/edo politikoa duten prozesuen** emaitza gisa, egungo sisteman edo arreta-sarean dauden dokumentu eta zerbitzu berriak, hartzaile berriak, profesional berriak eta ikuspegi berriak egitea, editatzea eta/edo zabaltzea lortu du.

AGADELPRISE Donostiak **balio erantsia** duen zerbitzu bakarra du eta **Laguntza Zerbitzu Osoa** du izena. Definizio gisa, “laguntza-zerbitzu osoan patologia linfatikoak dituzten pertsonak eta haien familiak edo horren inguruan ezagutza gehiago izan nahi dituzten profesionalak artatzen dira. Informazio-, orientazio- eta laguntza-zerbitzua eskaintzen da”. Kasu honetan, **erantzukizun publikoko zerbitzua** da, eta, beraz, administrazioak berak finantzatzen du erabat. Zerbitzuaren balio erantsia derrigorrezko elementuetatik harago doa, berdintasunari, duintasunari, elkartasunari, eta inguruarekiko harremanari eta konpromisoari dagokionez”.

2020ko ikasturtean zehar, laguntza-zerbitzu osoak **60 erabiltzaile** artatu zituen, guztiak emakumezkoak. Berdintasunaren eta duintasunaren inguruko balio erantsiari dagokionez, esan beharra dago kasuen % 40n emakumeek **arreta pertsonalizatua** jaso dutela erakundearen erreferentziazko profesional baten partetik. Gainera, 3 kasutik 1ean, erabiltzailearekin batera egiten dira **indibidualizatutako programazioak**. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta erreferentziazko profesionalaren arteko bilerak bi astean behin izaten dira. Zerbitzuan parte-hartzen duen pertsonen zati handi batek, era berean, erakundearen beste zerbitzu batzuetan ere parte hartzen du, eta zerbitzu osoa eta hurbilekoa eskaintzen du horrela (erabiltzaileen % 83). Azken finean, helburua da **denboran zehar harremanak egonkortzea**, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatu daitezke kasu guztietan, eta beharren arabera aldatu.

Funtsezko beste balio erantsia zerbitzura hurbiltzen diren pertsonentzako eta pertsonekin **elkartasuna** da. AGADELPRISE Donostian, beharrezkoa baldin bada, baliabiderik ez duten edo bereziki desgaitasuna duten pertsonak **zerbitzura sartu ahal izan dira erakundearen menpe dauden egokitzapenak** egin ostean (2020an, 9 pertsona).

Azkenik, nabarmendu behar dugu **lotura eta konpromiso nabarmena** dagoela ingurunearekin. Zerbitzuaren barruan bertan, **komunitateko beste eragile batzuekin batera sustatutako ekimenak antolatzen dira**, esaterako, terapia linfatikoak Hegalak elkartean, ibilketa nordikoa eta prestakuntza-hitzaldiak.

(ASASAM)- Buruko Gaixotasuna Duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartea

Buruko Gaixotasuna Duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartea “normalizazioa eta gizartearen onarpena bilatuz, buru-osasuneko hobekuntzari ekarpena egiteko asmoa duen irabazi asmorik gabeko erakundea” da eta **elkarte** gisa dago osatuta. **Arabako Lurralde Historikoan** jarduten du gehienbat, **Goi-Nerbioi Eskualdean**, baina Arabako eta Bizkaiko udalerriak hartzen ditu eskualde horrek (Laudio, Amurrio, Okendo, Aiala, Artziniega, Orozko, Urduña, Arakaldo eta Arrankudiaga). ASASAMek **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. **Osasunaren arloan** jarduten du gehienbat. Tamaina ertain-handia du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **300.000 eta 1.500.000 euro artekoa da**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute **erantzukizun publikoko** bi zerbitzu dituela egun erakundeak, hau da, erakundearen zerbitzuen %10 inguru. Etxebizitza komunitarioa eta zentro okupazionala dira. **Berezko baliabideekin sustatutako** ekimenak hiru ekimen dira.

Guztira, erakundeak artatzen dituen pertsonen % 18ri ematen diote laguntza eta, beraz, erakundearen berezko baliabideekin soilik artatzen dituzte (boluntariotza-programa, sexualitatearen arretarako programa eta animaliekin lagundutako esku-hartze programa). Halaber, erakunde gisa **ezagutzak sortu** ditu, behar berriak sortuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz. Gainera, sortutako ezagutza hori bera erabiliz, erreferentziazko urtean **argitalpen bat edo komunikazio formal** bat egin dute. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, pertsonen % 75 emakumezkoak dira (6 emakume) eta zuzendaria edo koordinatzailea ere emakume bat da. Gainera, ordainsaria duen erakundeko ardura-kargu bakarra da.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpene horren zati gisa, Buru-osasuneko gaixotasunak dituzten pertsonen eta senideen Araiaiko elkarteak 2020an **306 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 43 **emakumezkoak** izan ziren. Berezko zerbitzuek artatutako pertsonen % 80 inguruk ez dute inolako arretarik jasotzen normalizatutako zerbitzuetatik. Normalizatutako zerbitzuetan arreta ematen ez dieten pertsonen ehuneko nabarmen bat artatzeaz gain, erabiltzaileen babes-sistema indartzeaz gain, erakundeak berak lortzen du **erabiltzaileen % 81ek eguneroko bizitza modu autonomoan garatzea** normalizatutako testuinguruetan. Are gehiago, erakundearen esku-hartzearen ostean, 10 pertsonak lortu dute bizi proiektu independentea aurrera eramatea. Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta ingurunearekiko lotura eta harremanarekin ere neurtzen da**. Ildo horretatik, bigarren mailako elkarteekin edo ekimenekin konpromisoa eta lotura dago, eta FEDEAFESen parte dira Espainiako Buru Osasunaren Konfederazioa, Sareen Sarea, EDEKA eta CERMI.

Erakundearen balio osoaren diagnostikoa egin ostean, **balio erantsi** altua duten bi zerbitzu aitortu ditu ASASAMek (guztiz beharrezkoak diren horietatik harago). Alde batetik, **Zentro Psikosoziala** eskaintzen du espezifikoki buruko nahasmendu larriak eta iraunkorrak dituzten pertsonen autonomia pertsonala eta soziala ahalik eta gehien berreskuratzen laguntzeko. Bestalde, **ekintza sozialerako programa** ere badute, buru-osasuneko gaixotasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak eta beharrak bermatzeko. Gainera, erakundera sartzeko atea da, artatu eta buruko osasunarekin eta ASASAMekin zerikusia duten gaiei buruz informatu eta orientatzen baitu. Aipatu beharra dago zerbitzu bat bera ere ez dela erantzukizun publikoko zerbitzua.

Lehen zerbitzuaren balio erantsiarekin hasiz, zentro psikosozialak 2020an zehar 64 **erabiltzaile** artatu zituen (% 33 emakumezkoak). Erabiltzaile guztiek izan zuten erakundearen erreferentziazko pertsona batek egindako **arreta pertsonalizatua**. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako **programa bereizgarriak**. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta erreferentziazko profesionalaren arteko bilerak astero izaten dira. Azken finean, helburua da denboran zehar **harremanak egonkortzea**, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar

luzatu daitezke kasu guztietan. Halaber, zerbitzurako sarbidea duten pertsonen sarbidea dute erakundearen beste arreta-zerbitzu batzuetara, hori da 4 erabiltzailetik 1en kasua.

Adierazle kopuru handi batek ASASAMek ingurunearekin duen **lotura eta konpromisoaren** fede ona ematen du. Lehengo adierazlea **komunitateari zabaldutako jardueren** ingurukoa da; DESKUBRITU programaren bidez, ikastetxeetan buru-osasunaren inguruko hitzaldiak emanek eta mendekotasunen prebentzioaren bitartez. Halaber, erabiltzaileen **partaidetza sustatzeko ekimen** ugari ditu zerbitzuan, bitarteko konbentzionalen edo gogobetetzearen inguruko aldizkako ebaluazio-galdetegiaren bitartez.

Arreta jarri behar den bigarren zerbitzua Ekintza Sozialeko Programa da. 91 **erabiltzailek** erabili ahal izan dute guztira 2020an eskainitako arreta. Zerbitzura sartzen diren pertsonen % 75ek erakundearen erreferentziazko profesional baten **arreta pertsonalizatua** jasotzen du. Erabiltzaileen eta erreferentziazkoa pertsonen arteko bilerak **hilean behin** izaten dira. Pertsona horiek guztiak erakundeko beste zerbitzu batean artatzen dituzte eta, sarri, ASASAMek harreman estua eta etengabekoa duen **erakunde baten baino gehiagoren arreta ere jasotzen dute.**

CITA Alzheimer

CITA Alzheimer, “gaixotasuna ikerketatik, arretatik, prestakuntzatik eta sentsibilizaziotik jorratzeko diziplina anitzeko profesional-taldea duen ikerketa eta aurreratutako terapien zentroa” da eta **fundazio** gisa dago osatuta. **Euskadiko Autonomia Erkidegoko** hiru herrialde historikoetan egiten du lan. CITA Alzheimerrek **alzheimerra duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. Horregatik, **osasun arloan** jarduten du gehienbat, baina arlo zibikoak ere jorratzen ditu. Tamaina ertain-handia du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **300.000 eta 1.500.000 euro artekoa da.**

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute ikerketara eta ezagutza sortzera bideratutako elkarte delakoa. Izan ere, zerbitzuak zuzenean eskaintzen ez dituen arren, eskarmentua duen erakundea da **dokumentu formalak argitaratu eta komunikatzerakoan**; 2020an, 22 argitalpen eta/edo komunikazio formal argitaratu zituen. Halaber, erakunde gisa **ezagutzak sortu** ditu, behar berriak sortuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Hori ez da neurtzen soilik herritarrei zuzenean eskainitako zerbitzuekin. Kasu honetan, ikerketara bideratutako erakundea denez, esanguratsuagoak dira **ingurunearekiko elkartasuna, lotura eta konpromisoa** bezalako balioak. Ildo horretatik, nabarmendu behar da CITA Alzheimerrek azken 10 urteotan gutxienez, beste 24 elkarterekin egin duela lan. Era berean, bigarren mailako elkarteetan edo ekimenetan duen parte-hartze handia nabarmendu behar dugu, hala nola Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean; Neuroneten; Ziberneten eta IMSERSON.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte (ADEMBI)

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte (ADEMBI) “irabazi asmorik gabeko erakundea da, Erabilera Publiko gisa aitortua, eta esklerosi anizkoitza duten pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko egiten du lan”. Aurreratu dugun moduan, ADEMBI **elkarte** gisa osatutako erakundea da eta **Bizkaiko Lurralde Historikoan** lan egiten du. ADEMBI **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. Horregatik, **osasun arloan** jarduten du gehienbat. Hala ere, gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten arloetan ere jarduten du. Tamaina handia du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **1.500.000 euro baino altuagoa da**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute erakundearen zerbitzuen % 50 **erantzukizun publikoko** zerbitzu bakarrera bideratuta daudela. Hain zuzen ere, desgaitasuna duten egoitza da. Argi geratzen da, beraz, zerbitzu horrek erakundearen jardueran duen garrantzia handia. Eskaintako zerbitzuez gain, erakundeak **ezagutzak sortu** ditu, behar berriak sortuz eta proiektu berriak diseinatzuz eta hasiz. Ezagutza horrek, halaber, balio izan du 2020an zehar **5 argitalpen edo komunikazio formal** egiteko. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, pertsonen % 50 emakumezkoak dira (5 emakume) eta zuzendaria edo koordinatzailea ere emakume bat da. Gobernu-organoetan erantzukizun-karguren bat duten emakume guztiek ordainsaria jasotzen dute.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpene horren zati gisa, ADEMBI 2020an **280 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 65 **emakumezkoak** izan ziren. Erabiltzaileen artean, % 65ek **askotariko diskriminazio-egoerak** bizi dituzte, batez ere, emakume izateagatik eta desgaitasunen bat izateagatik. **Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen** ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta ingurunearekiko lotura eta harremanarekin ere neurtzen da**. Ildo horretatik, nabarmendu behar dugu, alde batetik, bigarren mailako erakundeekin edo ekimenekin konpromisoa eta lotura dagoela eta Fekoor eta Esklerosi Anizkoitzaren fundazioaren parte dela. Era berean, elkartasuna erakundeak dituen **bazkideen** konpromisoarekin eta parte-hartze sozialaren bitartez ere neur daiteke. Zehazki, erakundeak 1194 bazkide ditu eta ia 32 emakumezkoak dira.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte (AECC)

Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte (AECC) “pazienteek, senideek, boluntarioek, kolaboratzaileek eta osasunean hezteko, eta gaixoei eta haien senideei laguntza emateko profesionalek osatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta minbizia hobetu

diagnostikatu eta tratatzeko ikerketa-proiektuak finantzatzen ditu". Erakundearen izenak adierazten duen moduan, **elkarte** gisa eratutako erakundea da eta **estatu mailan** jarduten du gehienbat; beraz, baita **Euskal Autonomia Erkidegoan** ere. Minbizia da elkarte horren jarduera egituratzen duen **kontingentzia nagusia**. Hala ere, **jarduera esparru nagusia osasuna** den arren, **askotariko arloetan ere jarduten du**, hala nola Gizarte-Zerbitzuetan, aisialdian eta baita arlo zibikoan ere. Estatu mailan duen presentzia handiak tamaina handiko erakunde gisa kokatu du eta urteko kopuru ekonomikoa **1.500.000 euro baino gehiagokoa** da.

Erakundearen **adierazle nagusiek** erantzukizun publikorik gabeko elkarte gisa definitzen dute. Horregatik, ekimen eta zerbitzu guztiak **berezko baliabideekin sustatzen** dira eta, beraz, ez ditu administrazio publikoak ekonomikoki laguntzen. Kasu gehienetan minbizia duten pazienteentzako eta senideentzako laguntza psikosoziala izaten da, baita laguntza boluntarioa ere. Erakundeak erabiltzaileen zerbitzuak zuzenean eskaintzeaz gain, aktiboki jardun du **ezagutza sortzen**, behar berriak identifikatuz, proiektu berriak diseinatuz eta hasiz, eta dagoeneko badauden lan-prozesuetan berrikuntzak eta/edo hobekuntzak txertatuz. Gainera, sortutako ezagutza hori bera erabiliz, erreferentziazko urtean 4 **argitalpen edo komunikazio formal** egin dituzte. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, pertsonen % 38 emakumezkoak dira (12 emakume), eta zuzendaria edo koordinatzailea ere emakumea da. Erantzukizun-karguak dituzten emakume guztiek ordainsaria jasotzen dute.

Erakundearen balio osoaren alderdietako bat da zalantzarik gabe erakundeak erabiltzaileengana edo onuradunengana duen irismena. Alde horretatik, eta erakundearen tamaina kontuan hartuz, AECCk 2020an **3381 erabiltzaileri** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 75 **emakumezkoak** izan ziren. Artatutako pertsonen % 13 inguruk **askotariko diskriminazioa** jasaten dute bi faktoregatik; gaixotasuna bera eta baliabideen gabezia. Pertsonak horiek dira **gizarte-bazterkerian** daudenak. Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balio ere neurri horretakoa da.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta ingurunearekiko lotura eta harremanarekin ere neurtzen da**. Elkartasunari dagokionez datu nabarmena da AECCn dagoen **emakumezkoen boluntario** kopuru altua, ia boluntario guztien % 80 dira. 4 pertsonatik 3 **aldizkako boluntarioa** da.

Hainbat aldiz aipatu dugun moduan, erakunde bakoitzak aitortzen duen **balio erantsi** ororen helburua da esku-hartze sozialeko erakunde bakoitzak gizarte osoari ematen dion zerbitzuetako bat, erantzukizun publikokoak izan ala ez, eta betiere, beharrezkoak diren elementuetatik harago badoaz. AECCren kasuan zehazki, balio erantsi altua duen zerbitzua da **laguntza psikosoziala**, eta minbizia duten pazienteei, senideei eta laguntzaile boluntarioei eskaintzen zaie. Zerbitzua ez da erantzukizun publikoko zerbitzu gisa definitu behar. Alabaina, 2020an, 3.381 **erabiltzaile** artatu zituen.

Artatutako pertsona kopurua ez da inolako eragozpena pertsona horietako bakoitzak erakundearen erreferentziazko profesional baten **arreta pertsonalizatua** jasotzeko. Era berean, zerbitzura sartu ostean, pertsona guztiek dute **programazio indibidualizatua**, kasu bakoitzean dituzten behar zehatzei erantzuteko. Justizia arloan eta gizarteratze arloan, Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarreak **prebentziorako eta/edo sustapenerako** zerbitzuak ere baditu.

AECCk eskaintzen duen arreta psikosozialaren kasuan, **lotura eta konpromiso nabarmena dago ingurunearekin**. Zerbitzuaren barruan, **komunitateko beste eragile batzuekin batera sustatutako ekimenak antolatzen dira**, esaterako, bizitzako azken fasean boluntarioek eskainitako laguntza. Komunitateari zabalik dauden edo bertan egiten diren jarduerak ere egiten dira, hala nola azala autozaintzeko tailerrak. Bestalde, erabiltzaileen **partaidetza sustatzeko jarduerak** ohiko mekanismoa dira zerbitzuan bertan.

GIZARTE ZERBITZUEN arloko erakundeak

APNABI Autismoa Bizkaia

APNABI Autismoa Bizkaia “Espektriko Autistaren Nahasmendua duten pertsonen senideak biltzen dituen irabazi asmorik gabeko erakundea da, interes publikokoa”, **elkarte** gisa osatzen da eta **Bizkaiko Lurralde Historikoan** jarduten du gehienbat. APNABI Autismoa Bizkaia **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. **Gizarte-zerbitzuen arloan** jarduten du gehienbat. Alabaina, zeharkako erakundea da, osasunean, enpleguan, aisialdian eta arlo zibikoan ere lan egiten baitu. Tamaina handia du erakundeak eta bere urteko bolumen ekonomikoa **1.500.000 euro baino altuagoa da**.

Erakundeko adierazle nagusietan bertan ikus daiteke erakundeak egun **erantzukizun publikoko** 5 zerbitzu dituela (arreta klinikoa eta goiztiarra, hezkuntza-zerbitzua, eguneko arreta zentroak, senideentzako laguntza eta enplegurako orientazioa). Hala ere, erantzukizun publikoko zerbitzuak ez dira erakundeak sustatzen dituen ekimen bakarrak, ezta gutxiago ere. 2020an, **berezko baliabideekin sustatutako** 20 ekimen jarri ziren martxan, eta, beraz, ez zituen administrazio publikoak ekonomikoki lagundu. Guztira 20 ekimenek ematen diete arreta erakundeak artatutako pertsona guztien % 50i (600 pertsona) eta, beraz, erakundearen berezko zerbitzuek artatzen dituzte soilik (bazterkeria arriskuan dauden familientzako zerbitzuak, zahartze-programa, jolasa eta partekatutako aisialdia, besteak beste). Etengabe hobetzeko asmoarekin, **ezagutza sortu** du behar berriak identifikatuz, proiektu berriak diseinatuz eta hasiz, baita dagoeneko dauden prozesuetan hobekuntzak martxan jarriz ere. Gainera, sortutako ezagutza hori bera erabiliz, erreferentziazko urtean 11 **argitalpen edo komunikazio formal** egin dituzte. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, pertsonen % 44 emakumezkoak dira (5 emakume). Erakundean soldatapean dauden langileen artean, % 71,4 dira erantzukizun-karguren bat duten emakumeak.

Erakundearen balio osoa gizarteari egiten dion ekarpen oso gisa ulertuta, erakundeak 2020an **1252 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 18 **emakumezkoak** izan ziren. 2020an

erakundeak izan zituen erabiltzaileen artean % 7 inguru **gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonak** izan dira (90 pertsona). Egia izan arren normalizatutako beste baliabideetatik arretarik jasotzen ez duten erakundearen berezko zerbitzuek artatutako pertsonen kopurua ez dela txikia, erabiltzaile guztiekin alderatuta, ez da baztergarria 16 pertsona normalizatutako baliabideetatik kanpo geratzea. Erakundeak laguntza arloan eta zerbitzuetan egiten duen lanaz gain, **eragin soziala eta politikoa duten prozesuen** ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta ingurunearekiko lotura eta harremanarekin ere neurtzen da**. Ildo horretatik, azken 10 urteotan gutxienez erakundea beste 20 erakunderekin aritu da lanean ohiko moduan eta etengabe. Horrek erakusten du erakundeak Gipuzkoako Hirugarren Sektore Sozialean duen sustraitzea eta sendotzea. Halaber, bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenetan parte-hartze nabarmena du, besteak beste ekimen hauetan hartzen du parte: Plena Inclusión Euskadi, Autismoa Espainia, Autismoa Europa, Ehlabe, Sareen Sarea, EcA Foroa eta Haurtzaroaren Oinarriko Sarearen Egoitza Zentroen Foroa. Azkenik, eta inguruarekin duen harremanaren eta laguntzaren adierazle gisa, erakundeak **1252 bazkide** ditu.

APNABI Autismoa Bizkaia **balio erantsia** duen zerbitzua eskaintzen du, **Helduen Bizitza** zerbitzua izenekoa. Deskribapen gisa, zerbitzuak “bilatzen du Autismo Espektroaren Nahasmena duten erabiltzaileek haien burua ezagutzea, onartzea eta arlo horretan modu arrakastatsuan adieraztea, baita senideek eta profesionalek laguntzeko ezagutzak eta tresnak lortzea ere”. **Erantzukizun publikoko zerbitzua** da, eta, beraz, administrazioak berak finantzatzen du erabat. Zerbitzuaren balio erantsia derrigorrezko elementuetatik harago doa, berdintasunari, duintasunari, elkartasunari, eta inguruarekiko harremanari eta konpromisoari dagokionez”.

2020an zehar, Helduen Bizitza zerbitzuan 230 **erabiltzailek** hartu zuten parte. Adierazle desberdinak aztertu ostean, ikus daiteke konpromiso maila altua duela pertsonen **berdintasunarekin eta duintasunarekin** lotutako balioekin. Zerbitzuko pertsona guztiek izan zuten erakundearen erreferentziako pertsona batek egindako arreta pertsonalizatua. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako programa bereizgarriak. Guztira, 15 bilera egiten dira hilean zerbitzuaren erabiltzailearen eta erreferentziako pertsonaren artean. Azken finean, helburua da denboran zehar harremanak egonkortzea, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatu daitezke kasu guztietan.

Benetan garrantzitsua da **izaera prebentiboa** duten zerbitzuen kopurua eta/edo zerbitzuak dituen sustatzaile kopurua (izaera prebentiboa duten 9 zerbitzu). **Ingurunearekin duen loturarekin eta konpromisoarekin** zerikusia duten balioen ildotik, ekimen kopuru handia sustatzen dute, eta zerbitzuaren esparruan beste erakunde batzuekin batera sustatzen dituzte (emakumea eta autismo espektroaren nahasmendua, elikagai-bankua, autismo espektroaren nahasmendua duten pertsonen emantzipaziorako-programa, etab.). Alabaina, jarduerak ez dituzte soilik erakundearen barruan egiten; izan ere, 2020an, komunitateari zabalduta eta/edo

komunitatean 6 jarduera egin ziren (helduentzako esku-hartze programa, eguneko arretakoa, zaldien eremukoa, hiri-baratzea, pintxo-potea).

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen aldeko GAUDE Elkarte

GAUDE “Pertsonak, familiek, bazkideak, erabiltzaileak, langileak, boluntarioak eta elkartearen lagunek osatzen duten irabazi asmorik gabeko elkartea da; eta espezializatuta dago Bizkaiko Lurralde Historikoko adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiei laguntza ematen”. **Elkar**te bat da eta **Bizkaiko Lurralde Historikoan** jarduten du gehienbat. GAUDEk **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. Jarduera **gizarte-zerbitzuen arloan** garatzen du gehienbat, baina baita aldi berean bestelako arlo batzuetan ere, hala nola osasunean, enpleguan eta denbora librean. Beraz, jarduteko arloei dagokienez, nahiko zeharkako elkartea da. Erakundearen urteko diru-sarrerei dagokienez, erakunde handia da, urtean **1.500.000 euro baino gehiagoko** bolumen ekonomikoa du.

Erakundearen **adierazle orokorre**k erakusten dute erakundeak **erantzukizun publikoko** 4 zerbitzu dituela, eta horien artean daude zerbitzu okupazionala, egoitza eta familien atsedenaldirako zerbitzua. Halaber, **berezko baliabideekin sustatutako** hainbat ekimen jarri ziren martxan, eta, beraz, ez zituen administrazio publikoak ekonomikoki lagundu. Zerbitzuak eta ekimenak ez dira GAUDEk egindako lan bakarra, **ezagutza sortzen** ere aktiboki parte hartzen baitu, behar berriak identifikatuz, zerbitzu berriak diseinatuz eta sustatuz, eta berrikuntzak eta/edo hobekuntzak sustatuz dagoeneko badauden zerbitzuetan. Etengabeko hobekuntzarako zeregina 2020an argitaratutako 6 argitalpenetan eta komunikazio formaletan eratoritzen da. **Gobernuko organoetan emakumeak duten presentziari** dagokionez, organoaren % 62 emakumeak osatzen dute (5 emakume). Erakundearen zuzendaritza edo gerentzia ere emakume batek darama. Erantzukizun-karguak dituzten emakume guztiek ordainsaria jasotzen dute.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpenerik agerikoenetako bat onuradunen kopurua da. 2020an, **295 erabiltzaile** artatu zituzten, eta horietatik % 42 **emakumezkoak** izan ziren. **Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen** ondorioz, GAUDE elkarteak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta ingurunearekiko lotura eta harremanarekin ere neurtzen da**. Ildo horretatik, nabarmendu behar dugu bigarren mailako erakundeekin edo ekimenekin konpromisoa eta lotura duela, eta ezaugarri horiek dituzten 7 ekimen edo saretan hartzen du parte. Horien artean daude Fevas, Bolunta, Sarekide, ECA Foroa, Eraldatuz, Egokitutako Kirolaren Euskal Federazioa, Egokitutako Kirolaren Bizkaiko Federazioa.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

Hiesaren aurkako T4 Elkarte

T4 elkarte “Bilbon (1992ko martxoaren 17an) gib/hiesak erasandako pertsona-talde batek sortu zuen irabazi asmorik gabeko erakundea da; helburu eraldatzaile komuna zuten, justizia sozialean sinesten zuten, elkartasunean, partaidetzan, eta gib/hiesa zuten pertsonen eskubideen defentsan”. **Elkarte** gisa dago sortuta eta **Euskal Autonomia Erkidego osoan egiten du lan**. T4k **bazterkeria-egoeran edo arriskuan** dauden pertsonekin jarduten du gehienbat. Osasun-arazoei oso lotuta dagoen erakundea den arren, bere **jarduera arlo nagusia** Gizarte Zerbitzuena da. Tamainari dagokionez, erakunde handia da eta bere urteko kopuru ekonomikoa **1.500.000 euro baino gehiagokoa da**.

Adierazle orokorren azterketari esker, ikus daiteke erakundeak **erantzukizun publikoko zerbitzu** bakarra duela eta erakundearen zerbitzu guztien % 25 inguru dela. Hain zuzen ere, eguneko arreta-zerbitzua da eta ostatu-babesa eta bizitza independenterako laguntza eskaintzen du. Gainerako ekimenak ez dira erantzukizun publikokoak baina, hala ere, administrazio publikoak ekonomikoki laguntzen ditu. 3 ekimen ditu eta erakundeak artatutakoen % 66 artatzen dituzte bertan (eskola-osasuneko programa, prebentziorako eta sentsibilizaziorako arloa, bizitza independenterako laguntza-zerbitzua). Halaber, azken 5 urteotan erakundeak lortu du bere arloan **ezagutza jakin bat sortzea**, behar berriak identifikatuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz, eta dagoeneko badauden zerbitzuetan hobekuntzak gehituz. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, kideen generoaren arabera osaera orekatua da (6 emakume eta 5 gizon).

Erakundeak balio oso gisa egiten duen ekarpen horren zatia delako, 2020an **105 erabiltzaileri** eman zion zerbitzua, eta 3tik 1 **emakumezkoak** izan ziren. Artatutako pertsona guztiek **askotariko diskriminazioa** pairatzen dute, mendekotasunean, sexu-orientazioan eta baliabideen eskasian oinarrituta gehienbat. Era berean, pertsona horiek **ez dute arretarik jasotzen normalizatutako baliabideetatik** eta, beraz, erakundearen berezko zerbitzuetatik soilik artatzen dituzte. Gainera, 2020ko erabiltzaileen % 40 **gizarte-bazterkerian dauden pertsonak** izan dira (46 guztira).

Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak lortzen ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen guztizko balioarekin jarraituz, nabarmendu behar dugu erakundeak erreferentziazko lurraldean ingurunearekin duen **elkartasun, harreman eta konpromiso** handia. Ildo horretatik, azken 10 urteotan gutxienez erakundea beste 18 erakunderekin aritu da lanean ohiko moduan eta etengabe. Halaber, bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenetan parte-hartze nabarmena du, hainbat ekimenetan parte hartzen baitu; hala nola EAPN, BaiSarea,

Euskalsida, Cesida, BesteBi, GuGaitun, SareenSarea, Gizardatz, eta Hirekin-en. Azkenik, eta inguruarekin duen harremanaren eta laguntzaren adierazle gisa, erakundeak **135 bazkide** ditu, gehienak emakumezkoak (% 67).

Erakundearen **balio erantsi** altua duten bi zerbitzu aitortu ditu T4k (guztiz beharrezkoak diren horietatik harago). Alde batetik, **Eguneko Arreta Zerbitzua** eskaintzen du, ostatu-babesarekin eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako bizitza independenterako babesarekin. Bestalde, **Bideratzen** ere badu, laguntza psikologikorako eta GIBa duten emakumeen eta gizonen bizitza-kalitatea hobetzeko zerbitzua. Bi zerbitzuen lehenengoa, Eguneko Arreta Zerbitzua, **erantzukizun publikoko zerbitzu** gisa dago aitortua, Bideratzen aldiz ez.

Bi zerbitzuen lehenengoaren balio erantsiarekin hasiz, **eguneko arreta zerbitzuak** 2020an zehar **46 erabiltzaile** artatu zituen (% 35 emakumezkoak). Erabiltzaile guztiek izan zuten erakundearen erreferentziazko pertsona batek egindako **arreta pertsonalizatua**. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako **programa bereizgarriak**. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta erreferentziazko profesionalaren arteko bilerak astero izaten dira. Azken finean, helburua da denboran zehar **harremanak egonkortzea**, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatu daitezke kasu guztietan. Halaber, zerbitzurako sarbidea duten pertsonen sarbidea dute erakundearen beste arreta-zerbitzu batzuetara, hori da 4 erabiltzailetik 1en kasua.

Erakunde batek **ingurunearekin duen lotura eta konpromisoa** hainbat adierazleren bitartez neur daiteke. Horietako bat da beste elkarteetatik arreta jasotzen duten artatutako pertsonen ehunekoa, baina, batez ere, T4k elkarte horiekin duen harremana. Erakunde bat baino gehiagotan arreta jasotzen duten pertsonen % 33ren kasuan, **harreman oso jarraitua eta estua dago erakundearen artean**. Ildo horretatik, bai komunitateko beste eragile batzuekin sustatutako ekimenak, bai komunitateari zabaldutako jarduerak presente daude zerbitzuan bertan. Funtsezko beste balio erantsia zerbitzura hurbiltzen diren pertsonentzako eta pertsonekin **elkartasuna** da. T4ren kasuan, beharrezkoa baldin bada, baliabiderik ez duten edo bereziki desgaitasuna duten pertsonak **zerbitzura sartu ahal izan dira erakundearen menpe dauden egokitzapenak** egin ostean (2020an, 46 pertsona).

Arreta jarri behar den bigarren zerbitzua **Bideratzen** zerbitzua da. 59 **erabiltzailek** erabili ahal izaten dute guztira 2020an eskainitako arreta. Zerbitzura sartzen diren pertsonen % 100ek erakundearen erreferentziazko profesional baten **arreta pertsonalizatua** jasotzen du. Erabiltzaileen eta erreferentziazko pertsonen arteko bilerak **hamabostean behin** izaten dira. Pertsona horiek guztiak erakundeko beste zerbitzu batean artatuak izango dira momenturen batean eta, sarritan, T4k harreman estua eta etengabekoa duen **erakunde baten baino gehiagoren arreta ere jasotzen dute**. T4k lehenengo zerbitzuan erakusten duen **ingurunearekiko lotura eta konpromisoa** eta **elkartasuna** agerian geratzen dira bigarren honetan.

Arabako Pertsona Gorren Gurasoen eta Lagunen Elkarte (ASPASOR)

Arabako Pertsona Gorren Gurasoen eta Lagunen Elkartea (ASPASOR) “entzuteko desgaitasuna edo gorrieria duten pertsonen eta senideen elkartea” da. **Elkartearen** izaera juridikoa du eta **Arabako Lurralde Historikoan** jarduten du. ASPASOREk **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat, zehazki, entzuteko arazoak dituztenekin. Osasun-arazoei oso lotuta dagoen erakundea den arren, bere **jarduera arlo nagusia** Gizarte Zerbitzuena da. Alabaina, bestelako arloetan ere jarduten du, hala nola osasunean, enpleguan eta denbora librean. Erakundearen tamainari dagokionez, erakundearen urteko bolumen ekonomikoa **60.001 eta 300.00 euro artekoa** da, beraz, tamaina ertaina duen erakundea da.

Erakundearen **adierazle orokorre**k erakusten dute **erantzukizun publikoko** 3 zerbitzu dituela egun erakundeak, hau da, erakundearen zerbitzuen % 50 inguru. Orientazio eta informazio espezifikoak ematen duten zerbitzuak ditu eta enplegu-zerbitzuak eta hizkuntza garatzeko zerbitzuak. Erakundeak dituen beste zerbitzuak **berezko baliabideekin sustatzen** dituzte, eta, beraz, ez ditu administrazio publikoak ekonomikoki laguntzen (boluntariotzaren bitartez sustatutako sozializazio-programa, pertsona gorren gaitasunak hobetzeko, familientzako zeinu-hizkuntza ikastaroa). Hiru ekimen horien bitartez, 63 pertsona artatu zituzten 2020an, erakundeak lagundutako pertsonen % 36 (harrera-programak, elkar laguntzarako programak, sentsibilizazioa eta prebentzioa, etab). Halaber, 5 urteotan erakundeak lortu du bere arloan **ezagutza jakin bat sortzea**, behar berriak identifikatuz, dagoeneko bazeuden prozesuetan berrikuntzak txertatuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, kideen generoaren arabera osaera orekatua da (6 emakume eta 5 gizon).

Erakundeak **balio oso gisa** egiten duen ekarpen horren zati baten modura, 2020an **174 erabiltzailer**i eman zion zerbitzua, eta 3tik **1 emakumezko**ak izan ziren. **Askotariko diskriminazio** egoerak bizi dituzten erabiltzaileak, 2020an erabiltzaileen % 49, batez ere desgaitasuna izateagatik eta immigranteak izateagatik pairatzen dute. Halaber, nabarmendu behar da 5 erabiltzailetik **1 gizarte-bazterkeria** egoeran zegoela (35 pertsona). Berezko zerbitzuek artatutako pertsonen ia guztiek **ez dute inolako arretarik jasotzen normalizatutako zerbitzuetatik**. Ondorioz, erakunde honen lana ezinbestekoa da, pertsona horiei arreta eskaintzeko bide bakarra baita. Erakundeak eskaintzen duen laguntzaz gain, babes-sistema indartu ostean, erakundeak lortu du bere esku-hartzearekin pertsonen % 14k **eguneroko bizitza modu autonomoan egitea testuinguru normalizatu**etan. Are gehiago, artatutako pertsonen % 9k **bizitza-proiektu independentea garatzea lortu du**.

Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen guztizko balioarekin jarraituz, nabarmendu behar dugu erakundeak erreferentziazko lurraldeak ingurunearekin duen **elkartasun, harreman eta konpromiso** handia. Ildo horretatik, datu nabarmengarria da erakundean parte hartzen duten boluntarioen % 100 emakumezkoak direla (gehienak aldizkako boluntarioak). Halaber, nabarmentzekoa da azken 10 urteotan gutxienez erakundea beste 30 erakunderekin aritu dela elkarlanean. Horrek erakusten du erakundeak Arabako Hirugarren Sektore Sozialean duen sustraitzea eta sendotzea. Halaber,

bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenetan parte-hartze nabarmena du, hainbat ekimenetan parte hartzen baitu; hala nola FEVAPAS, FIAPAS, FORO ECA, EDEKA, Arabako Desgaitasunaren Foroa eta Desgaitasunaren Lurralde Kontseilua. Azkenik, eta inguruarekin duen harremanaren eta laguntzaren adierazle gisa, erakundeak **93 bazkide** ditu.

Balio oso aztertu ostean, ASPASOREk balio erantsia duten bi zerbitzu ditu **Orientaziorako eta Informaziorako** zerbitzua eta **Bitartekaritza komunikatiborako** zerbitzua. Definizio gisa, eta oro har, orientazio eta informazio zerbitzuak pertsona gorren errealitatea ezagutzeko sarbidea eskaintzen du. Bestalde, bitartekaritza komunikatiborako zerbitzua “komunikazioaren eta hizkuntzaren arloan egiten den esku-hartzea da, entzuteko desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta gizarteratzea sustatzeko”. Gorren komunikazio-trebetasunak eguneroko bizitzako edozein arlotan hobetzea da helburua, haien autonomia, independentzia eta gizarteratzea sustatuz, beren ingurunean eskubide osoa duten herritar gisa”.

Lehenengo zerbitzuaren, orientazio eta informazioaren zerbitzuaren, balio erantsiaren azterketa laburrak adierazten du 2020an 180 **erabiltzaile** izan zituela (% 62 emakumezkoak). 10 pertsonatik 9k **arreta pertsonalizatua** dute eta % 20k bere beharrei egokitutako **programazio indibiduala** jaso zuen. Zerbitzuak berak eskaintzen duen balio erantsiaren adibideetako bat da baliabiderik ez duten edo behar nabarmenak dituzten pertsonen zerbitzura sartzeko duten aukera, erakundeak **bere esku dauden aldaketak** egin ostean (hori da 8 pertsonaren kasua).

ASPASOREk eskaintzen duen bigarren zerbitzuak, **bitartekaritza komunikatiboak**, 37 **erabiltzaile** izan zituen 2020an eta horietatik erdia baino apur bat gutxiago emakumezkoak ziren. Beste ezaugarri batzuen artean, zerbitzuaren balio erantsiaren funtsa da pertsona guztiek erakundearen erreferentziazko profesional baten **arreta pertsonalizatua** jaso zutela. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako **programa bereizgarriak**. Azken finean, helburua da denboran zehar **harremanak egonkortzea**, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatzen dira 10 kasutatik 7tan. Erakundearen eta erabiltzaileen arteko harremana oso modu jarraituan eta arinean ematen da pertsona bera artatzen duten erakundearen artean, eta hori da babespeko etxebizitzan dauden pertsonen % 70en kasua.

Bizitegi

Bizitegi irabazi-asmorik gabeko **elkartea** da, eta 1980an hasi zen lanean, Bilboko Otxarkoaga auzoan. Elkarte gisa eratu zen eta **Bizkaiko Lurralde Historikoan** oinarritu zuen bere jarduerarema. **Bazterkeria-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak** dira Bizitegik jarduten duen kolektibo nagusiak. Jarduera-esparruak **Gizarte Zerbitzuen arloan** oinarritzen dira. Tamaina handiko erakundea da, **1.500.000 €-tik gorako urteko bolumen ekonomikoari** eusten baitio.

Erakundearen **adierazle orokorretan** ikus daitekeenez, gaur egun **erantzukizun publikoko** 14 zerbitzu ditu erakundeak (gizarteratze-premiei erantzuteko zerbitzua edo eguneko zentroa; eskusio eta bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak; bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako ostatu-zerbitzuak/tutoretzapeko etxebizitza; gaueko harrera-zerbitzuak; esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua; besteak beste). Hala ere, erantzukizun publikoko zerbitzuak ez dira erakundeak bultzatutako ekimen bakarrak. 2020an, **baliabide propioekin** bultzatutako 4 ekimen jarri ziren abian, eta, beraz, administrazio publikoak ez zituen ekonomikoki babestu. Guztira 4 ekimenek ematen diete arreta erakundeak artatutako

pertsona guztien %56,1i (146 pertsona), eta, beraz, erakundearen baliabide propioekin soilik artatzen dira (etxerik gabeko egoeran dauden emakumeentzako gunea; etxerik gabeko egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroa; etxerik gabeko egoeran dauden emakumeentzako etxebizitzak; besteak beste). Etengabeko hobekuntzarekin, **ezagutzak sortzen** parte hartu du, behar berriak identifikatuz, proiektu berriak diseinatuz eta abiaraziz, baita lehendik zeuden prozesuetan hobekuntzak abiaraziz ere. Gainera, sortutako ezagutza bera baliatuta, erreferentzia-urtean 11 **argitalpen edo komunikazio formal** egin dituzte guztira. **Gobernu-organoen** osaerari dagokionez, osatzen duten pertsonen %65 emakumeak dira.

Erakundearen balio osoa gizarteari egiten dion ekarpenaren multzotzat hartuta, erakundeak **260 erabiltzailer**i eskaini zien zerbitzua 2020an, eta horietatik %32,3 **emakumeak** izan ziren. Erakundeak artatutako pertsona guzti-guztiek jasaten dituzte askotariko diskriminazio-egoerak, eta **gizarte-bazterkeriako egoeran** daude. Gainera, erakundearen berezko zerbitzuak ematen dituzten pertsona horien ia erdiek (%56) ez dute baliabide normalizatuen arretarik jasotzen. Erakundeak asistentziaren eta zerbitzuen arloan egiten duen lanaz harago, **eragin sozial eta politikoko prozesuen** ondorioz, erakundeak bere dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, dagoeneko onartuta dauden arau edo arau-aldaketa berriak lortzen ditu, eta nabarmen eragiten du politika berriak edo horien aldaketak sustatzean.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei zuzeneko arreta emateko erakundeak egiten duen ekarpenari gehituta, balio osoa **elkartasunari, loturari eta ingurunearekiko konpromisoari** dagokienez ere neurtzen da. Ildo horretatik, erakundea gutxienez azken 10 urteetan 20 erakunderekin ari da lanean, maiz eta modu iraunkorrean. Horrek erakusten du erakundea Bizkaiko lurralde historikoan errotuta eta finkatuta dagoela. Era berean, bigarren eta hirugarren mailako sareetako edo ekimenetako kide izatea handia da, eta hainbat ekimenetan parte hartzen du: EAPN, Beste Bi, Gizardatz, Harresiak Apurtuz, Unad, Plataforma Norte eta Feantsa. Azkenik, eta ingurunearekiko babesaren eta loturaren erakusgarri, erakundeak **27 bazkideren** babesa ere badu, eta horietatik % 44 emakumeak dira.

Bizitegik **balio erantsiko** zerbitzu bat aurkezten du, gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzu edo zentro bat (**Uribarri**) eskaintzean datzana. **Erantzukizun publikoko zerbitzu** gisa definitutako zerbitzua da eta, beraz, administrazioak berak finantzatzen du oso-osorik. Zerbitzuaren balio erantsia nahitaezkozat markatutakoez harago doazen elementuetan datza, berdintasunari eta duintasunari, elkartasunari eta ingurunearekiko loturari eta konpromisoari dagokienez.

2020an Uribarri zerbitzuan 25 **erabiltzailek** parte hartu zuten. Adierazle batzuk irakurri ondoren, ikusten da konpromiso-maila handia dagoela pertsonen **berdintasunarekin eta duintasunarekin** lotutako balioekin. Zerbitzuko pertsona guztiek erakundean erreferentziazko profesional batek egindako arreta pertsonalizatua izan zuten. Gainera, horiekin guztiekin bakoitzaren premien eta egoeraren arabera banakako programazioak egiten dira. Zerbitzuaren erabiltzaileak eta erreferentziako profesionalak hilean 4 bilera egiten dituzte. Azken finean, denboran zehar sendotzen diren harremanak dira eta, beharrezkoa izanez gero, kasuen %100ean bizitzan zehar luzatzen direnak.

Bizitegik entzuteko eta laguntzeko eskaintzen duen **ingurunearekiko loturaz eta konpromisoaz** fede ona ematen duten adierazle ugari daude. Zerbitzuaren esparruan, komunitateko beste

eragile batzuekin lankidetzan sustatutako ekimenak abian jartzea da ingurunearekiko konpromiso-maila adierazten duten adierazle horietako bat. **Komunitateari irekitako jardueren** buruzko beste adierazle batzuk, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako jardueren bidez (Uribarriko Talde Feminista) edo euskara sustatzeko jardueren bidez.

Elkarbanatuz

Elkarbanatuz “La Salleko Ekintza Sarearen parte den irabazi asmorik gabeko elkarte da eta esku-hartze sozialean egiten du lan”. Funtzio Publikoa eta Interes Sozialekoa du, eta parte-hartzea eta eraldaketa soziala sustatzen ditu”. **Elkarte** gisa dago eratuta eta **Euskal Autonomia Erkidego osoan egiten du lan**. Elkarbanatuzek **bazterkeria-egoeran edo arriskuan** dauden pertsonekin jarduten du gehienbat. Gehienbat **gizarte-zerbitzuen alorrean** jarduten du. Alabaina, bestelako arloetan ere jarduten du, hala nola enpleguan, denbora librean eta arlo zibikoan. Erakundearen tamainari dagokionez, erakundearen urteko bolumen ekonomikoa **1.500.000 eurotik gorakoa** da; beraz, tamaina ertaina duen erakundea da bolumen ekonomikoari dagokionez.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute **erantzukizun publikoko** 4 zerbitzu dituela egun erakundeak, hau da, erakundearen zerbitzuen % 41 inguru. Babespeko etxebizitzaren sarea du, baita gizarteratzeko eguneko zentroak, enplegurako prestakuntza-zentroak eta esku-hartze eta lan-orientaziorako zerbitzuak ere. Gainerako ekimen guztiak **berezko baliabideekin sustatzen** dira eta, beraz, ez ditu administrazio publikoak ekonomikoki laguntzen. 2020an 662 pertsonari laguntza eman dien bi ekimen nabarmentzen dira, erakundeak lagundutako pertsonen % 47 (adin txikikoentzako tailer hezitzaileak eta haurren eta familien zerbitzua). Halaber, azken 5 urteotan erakundeak lortu du bere arloan **ezagutza jakin bat sortzea**, behar berriak identifikatuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz, eta dagoeneko badauden zerbitzuetan hobekuntzak gehituz. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, pertsonen % 29 emakumezkoak dira. Ardura-karguren bat duten emakumeen gehiengoak soldatapeko lana du (% 72).

Erakundearen guztizko balioa gizarteari eginiko ekarpen osoan dago. Ekarpen horren zati gisa, erakundeak 2020an **1389 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, eta horietatik **ia erdia emakumeak** izan ziren (% 58). **Askotariko diskriminazioa** pairatzen duten erabiltzaileen erdiaren (% 52) diskriminazioaren arrazoi nagusiak generoa, arrazagatiko diskriminazioa eta baliabideen eskasia dira. Gainera, 2020an zehar artatutako 10 pertsonatik 4 **gizarte-bazterkeria egoeran** zeuden artatuak izan ziren unean.

Erakundeak eskaintzen duen laguntzaz gain, babes-sistema indartu ostean, erakundeak lortu du bere esku-hartzearekin 2 pertsonatik 1ek eguneroko bizitza modu autonomoan eta testuinguru normalizatuetan egitea. Are gehiago, erabiltzaileen % 18k lortu du **bizitza-proiektu independentea garatzea** esku-hartzean zehar edo amaitu ostean.

Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu, politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du eta dagoeneko badauden sistema edo prozesuetan berrikuntzak txertatzen ditu. Lorpen horiek guztiak erakundearen

lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen guztizko balioarekin jarraituz, nabarmendu behar dugu erakundeak erreferentziazko lurraldeak ingurunearekin duen **elkartasun, harreman eta konpromiso** handia. Erakundeak aktiboki parte hartzen duen **boluntariorik** osaketari dagokionez (23 pertsona 2020an zehar), erdia baino apur bat gehiago emakumezkoak ziren. Erakundeak ingurunearekin duen lotura agerian jarritz, azken 10 urteotan gutxienez beste 80 erakunderekin aritu da lanean ohiko moduan eta etengabe. Horrek erakusten du erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan duen errotzea eta lankidetzat. Halaber, bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenetan parte-hartze nabarmena du, hainbat ekimenetan parte hartzen baitu; hala nola EAPN, Gizardatz, Harresiak Apurtuz, Fepa, Reas, Beste Bi, Fiare Elkartea eta La Salle Koordinakundeak. Azkenik, eta ingurunearekin duen loturak eta babesak erakusten duen moduan, elkarteak **44 bazkideren** babesa du, eta horietatik erdia baino apur bat gehiago emakumezkoak dira (% 52).

Elkarbanatuzek eskaintzen duen balioa ez da soilik erakundearen balio osora mugatzen. Eskaintzen dituen zerbitzuen **balio erantsia** ere nabarmengarria da. Erakundeak esku-hartzeko sozialeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, baina bik balio erantsi altua dute. **Eguneko zentroak eta Haurren eta Familien Arreta** zerbitzua dira. **Eguneko zentroak erantzukizun publikoko zerbitzuen** katalogoaren parte dira, aldiz, Haurren eta Familien Arreta erakundearen berezko baliabideekin sustatzen dute.

Eguneko zentroek 38 **erabiltzailer** eman zieten zerbitzua 2020an, eta horietatik % 25 emakumeak izan ziren. Haurren eta Familien Arreta zerbitzuaren kasuan, 130 erabiltzaile izan zituen, erdiak emakumezkoak. Bakoitzak bere ezaugarriak dituen arren, balio erantsiari eta erakundearen egiteko moduari dagokionez elementu komunak dituzte bi zerbitzuek. Bi zerbitzuetako erabiltzaile guztiek izan zuten erakundearen erreferentziazko pertsona batek egindako **arreta pertsonalizatua**. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako **programa bereizgarriak**. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta erreferentziazko profesionalaren arteko bilerak nahiko maiz izaten dira, hilean batez beste 14 eta 16 bilera artean izaten baitituzte. Azken finean, helburua da denboran zehar **harremanak egonkortzea**, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatu daitezke kasu guztietan. Halaber, zerbitzurako sarbidea duten pertsonen sarbidea dute erakundearen beste arreta-zerbitzu batzuetara, hori da 4 erabiltzailetik 1en kasua.

Elkarbanatuzek **ingurunearekin duen lotura eta konpromisoa** ikus daiteke, esaterako, erakunde horrek artatzeaz gain, beste erakunde batzuen zerbitzuak ere jaso dituzten erabiltzaileen kopuruan, baina, batez ere, Elkarbanatuzek erakunde horiekin duen harremanean. Bi zerbitzuen kasuan, pertsona guztiek jaso dute arreta elkarte batetik baino gehiagotik; izan ere, **oso harreman estua eta iraunkorra dago elkartearen artean**. Ildo horretatik, bai komunitateko beste eragile batzuekin sustatutako ekimenak, bai komunitateari zabalduetako jarduerak presente daude zerbitzuan bertan. Funtsezko beste balio erantsia zerbitzura hurbiltzen diren pertsonentzako eta pertsonekin **elkartasuna** da. Haurren eta Familien Arreta zerbitzuan kasuan, beharrezkoa baldin bada, baliabiderik ez duten edo bereziki desgaitasuna duten pertsonak **zerbitzura sartu ahal izan dira erakundearen menpe dauden egokitzapenak** egin ostean (2020an, 42 pertsona). Azkenik, orain arte esandakoa berretsiz, zerbitzuaren barruan **hainbat**

ekimen egiten dira komunitateko beste eragile batzuekin elkarlanean, esaterako, parte-hartze soziala eta herritarra udalerrian, sentsibilizazio-kanpainak edo zurrumurruen aurkako kanpainak.

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea (Elkartu)

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea (Elkartu) “koordinatutako eta bateratutako ekintzatik desgaitasun fisikoa duten pertsonen erabateko gizarteratzearen eta parte-hartze sozialaren alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko <https://elkartu.org/la-federacion/asociaciones/>elkartea da, erabilera publikokoa”. **Elkarte** gisa dago eratuta eta batez ere **Gipuzkoako lurralde historikoan** jarduten du Elkartuk **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. **Jarduera-eremu nagusia gizarte-zerbitzuen alorra** du. Alabaina, bestelako arloetan ere jarduten du, hala nola osasunean, enpleguan eta arlo zibikoan. Tamaina ertain-handia du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **300.000 eta 1.500.000 euro artekoa da**.

Erakundearen **adierazle orokorre** erakusten dute erakundeak ez duela **erantzukizun publikoko** zerbitzurik egun eta, beraz, ez duela administrazio publikoak erabat finantzatutako zerbitzurik. Erakundeak erabiltzaileei zerbitzuak eskaintzeaz gain, aktiboki jarduten du **ezagutza sortzen**, behar berriak identifikatuz, proiektu berriak diseinatzuz eta hasiz eta dagoeneko badauden prozesuetan berrikuntzak eta/edo hobekuntzak txertatuz. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, pertsonen % 50 emakumezkoak dira (10 emakume).

Erakundearen balio osoa gizarteari egiten dion ekarpen oso gisa ulertuta, Elkartuk 2020an **1000 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, eta horietatik erdia **emakumezkoak** izan ziren. **Askotariko diskriminazioa** pairatzen duten 2 erabiltzailetik 1en diskriminazioaren arrazoi nagusiak generoa eta desgaitasuna dira. Gainera, erabiltzaileen babes-sistema indartzeaz gain, erakundeak berak lortu du **erabiltzaileen % 10ek eguneroko bizitza modu autonomoan garatzea** normalizatutako testuinguruetan.

Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu eta politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

Euskal Gorrak

Euskal Gorrak “1980an sortutako irabazi asmorik gabeko elkartea da eta EAEko gorren elkarte desberdinak batu eta ordezkatzeko beharretik jaio zen”. **Elkartearen** izaera juridikoa du eta

Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten du. Euskal Gorrak elkarteak **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat, zehazki, entzuteko arazoak dituztenekin. Osasun-arazoei oso lotuta dagoen erakundea den arren, bere **jarduera arlo nagusia** Gizarte Zerbitzuena da. Alabaina, bestelako arloetan ere jarduten du, hala nola osasunean, enpleguan, denbora librean eta arlo zibikoan. Erakundearen tamainari dagokionez, erakundearen urteko bolumen ekonomikoa **300.000 eta 1.500.000 euro artekoa** da; beraz, erakunde ertaina-handia da.

Erakundeak **balio oso gisa** egiten duen ekarpen horren zati baten modura, 2020an **5000 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, eta 2tik 1 **emakumezkoak** izan ziren. **Askotariko diskriminazioa** pairatzen zuten 2020an erabiltzaileen % 85ek. Halaber, nabarmendu behar da ia guztiak **gizarte-bazterkeria egoeran** zeudela artatu zituzten unean. Erakundeak erabiltzaile horien % 20 kontratatu du neurri aringarri eta gizarteratze gisa. Erakundeak eskaintzen duen laguntzaz gain, babes-sistema indartu ostean, erakundeak lortu du bere esku-hartzearekin 4 pertsonatik 1ek eguneroko bizitza modu autonomoan eta testuinguru normalizatueta egitea. Are gehiago, erabiltzaileen % 24k lortu du **bizitza-proiektu independentea garatzea** esku-hartzean zehar edo amaitu ostean.

Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu, arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak egiten ditu, politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du eta dagoeneko badauden sistema edo prozesuetan berrikuntzak txertatzen ditu. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen guztizko balioarekin jarraituz, nabarmendu behar dugu erakundeak erreferentziazko lurraldeak ingurunearekin duen **elkartasun, harreman eta konpromiso** handia. Ildo horretatik, datu nabarmengarria da erakundean parte hartzen duten **boluntarioen** 3tik 2 emakumezkoak direla (gehienak aldizkako boluntarioak). Halaber, nabarmentzekoa da azken 10 urteotan gutxienez erakundea beste 15 erakunderekin aritu dela elkarlanean. Horrek erakusten du erakundeak lurraldean duen sustraitzea eta sendotzea. Halaber, bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenen parte izatea gogoan hartzekoa da, hainbat ekimenetan parte hartzen baitu, hala nola estatuko pertsona gorren konfederazioan eta EDEKAn. Azkenik, eta inguruarekin duen harremanaren eta laguntzaren adierazle gisa, erakundeak **470 bazkide** ditu.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

Hazi eta Ikasi

Hazi eta Ikasi “Baliabide mugatuak dituzten familiei haien seme-alaben eskola-jarraipena egiten lagundu nahi dieten boluntario-taldea da, asko irakaskuntza-mundukoak”. **Elkarte** gisa eratuta dago eta **Gipuzkoan** jarduten du gehienbat, **Donostian** bereziki. Jarduteko eremu nagusia **gizarte-zerbitzuak** diren arren eta batez ere **bazterkeria-egoeran edo -arriskuan** dauden pertsonekin lan egiten duen arren, biak haur eta gazteen hezkuntzan oinarritzen dira gehienbat.

Tamainari dagokionez, erakunde txikia da eta bere urteko kopuru ekonomikoa **ez da 12.000 eurora iristen**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute ez duela erantzukizun publikoko zerbitzurik bere zorroan. Hala ere, elkarteak erabiltzaileentzako bi zerbitzu nagusi ditu **berezko baliabideekin sustatuak**: Haur eta gazteentzako eskola-errefortzua eta behar bereziak dituzten haurrentzako errefortzua. Bi zerbitzu horietan **250 pertsonari eskaini zioten laguntza** 2020an. Gainera, azken 5 urteotan, **ezagutza sortzeko** gai izan dira behar berriak identifikatuz, proiektuak, zerbitzuak edo beste jardura batzuk diseinatuz eta txertatuz, eta dagoeneko bazeuden prozesuak hobetuz. **Gobernuko organoetan emakumeek duten presentziari** dagokionez, organoaren % 50 emakumeek osatzen dute (5 emakume). Zuzendaritza edo gerentzia, aldiz, gizon batek darama eta erakundean ez dago soldatapeko langilerik.

Erakundearen **balio osoaren** zati gisa, erakundeak **250 erabiltzailerik** eskaini zion zerbitzua 2020an, eta horien % 20 gizarte-bazterkeria egoeran zegoen. Pertsona horien erdia baino apur bat gehiago emakumezkoak izan ziren (% 55). Gainera, **eragin soziala eta/edo politikoa** duten prozesuen ondorioz, dokumentuak, egitea, editatzea eta/edo zabaltzea lortu dute, haurren eta/edo gazteen hezkuntzan egindako lanaren ondorioz.

Erakundean modu aktiboan parte hartzen duten **boluntarioei** dagokienez, (150 pertsona 2020an zehar) % 70 emakumezkoak dira eta % 100 aldi baterako boluntarioak. Boluntariotzaz gain, **elkarteak ingurunearekin duen loturan eta elkartasunean** ere islatzen da elkartasuna. Zehazki, Proclade Yanapay fundazioa bigarren mailako erakundeen edo ekimenen parte da, haien artean dago Aukerak suspertzen.

Ez du zerbitzu zehatzik gehitu galdetegiaren “balio erantsia” atalean.

Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoa

Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoa “arazoak dituen edo laguntza behar duen pertsonari entzuteko eta laguntzeko beti prest dagoen doako zerbitzua da, erraza eta berehalakoa”. **Elkarte** gisa eratuta dago eta **Euskal Autonomia Erkidegoan** jarduten du. **Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan** dauden pertsonekin jarduten du gehienbat. **Jarduera-eremu nagusia** gizarte-zerbitzuen alorra da; hala ere, lotura estua du osasunaren arloekin. Tamainari dagokionez, erakunde ertaina da eta bere urteko kopuru ekonomikoa **60.001€ eta 300.000 euro artekoa da**.

Adierazle nagusiak aztertu ostean, ikus daiteke elkarteak ez duela **erantzukizun publikoko zerbitzurik**. Hala ere, telefono bidezko arreta-zerbitzua da elkartearen funtsezko ekimena. **Berezko baliabideekin sustatzen** duen zerbitzua da eta, beraz, ez du administrazio publikoak ekonomikoki laguntzen. Telefono bidezko arreta-zerbitzuak elkarteak artatutako pertsonen % 80 artatu du (zehazki, 200 pertsona). Halaber, azken 5 urteotan erakundeak lortu du bere arloan **ezagutza jakin bat sortzea**, behar berriak identifikatuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz, eta dagoeneko badauden zerbitzuetan hobekuntzak gehituz. **Gobernu-organoen osaerari** dagokionez, kideen generoaren arabera osaera orekatua da (5 emakume eta 5 gizon).

Erantzukizun-karguren bat duten emakume guztiak soldatapeko langileak dira eta elkartearen gerentzia edo zuzendaritza emakume batek darama.

Erakundeak **balio oso gisa** egiten duen ekarpen horren zati baten gisa, 2020an **250 erabiltzaileri** eman zion zerbitzua, eta 4tik 3 **emakumezkoak** izan ziren. Artatutako pertsonen % 17k **askotariko diskriminazioa** pairatzen du, batez ere, generoarengatik, buru-osasunarengatik, desgaitasunarengatik eta immigranteak izateagatik. Gainera, % 40 bazterkeria egoeran zeuden arreta jaso zuten unean. Artatutako pertsonen % 10ek **ez du arretarik jasotzen normalizatutako baliabideetatik** eta, beraz, erakundearen berezko zerbitzuetatik soilik artatzen dituzte. Azkenik, nabarmendu behar dugu elkarrekin artatutako pertsona guztiak **bizi-proiektu independentea garatzen** dutela esku-hartzean zehar edo esku-hartzea amaitu ostean.

Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen ondorioz, elkarrekin dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu eta zerbitzu berriak, profesional berriak eta ikuspegi berriak txertatzen ditu dagoeneko bazegoen arreta-sarean. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Erakundearen guztizko balioarekin jarraituz, nabarmendu behar dugu erakundeak erreferentziatzko lurraldeak ingurunearekin duen **elkartasun, harreman eta konpromiso** handia. Ildo horretatik, datu nabarmengarria da erakundean parte hartzen duten **boluntarioen** % 80 baino apur bat gehiago emakumezkoak direla. Erakundeak ingurunearekin duen lotura agerian jarritz, azken 10 urteotan gutxienez beste 5 erakunderekin aritu da lanean ohiko moduan eta etengabe. Halaber, bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenen parte izatea gogoan hartzekoa da, hainbat ekimenetan parte hartzen baitu, hala nola Sareginez, Donostiako Gizarte Ekintzako Kontseilua, Adinberri, eta Bakardadearen Aurkako Estrategian. Azkenik, eta inguruarekin duen harremanaren eta laguntzaren adierazle gisa, erakundeak **95 bazkide** ditu, gehienak emakumezkoak (% 67).

Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoaren balio osoaren ostean, **entzuteko eta laguntzeko** zerbitzua adibide ona da erakundeak bere zerbitzuen bitartez sortzen duen **balio erantsia** ikusteko. “Entzumen aktiboa, laguntza emozionala eta aholkularitza/laguntza psikologikoa eskaintzen du bakarrik sentitzen diren pertsonentzat eta krisi pertsonal edo familiarra bizitzen ari direnentzat eta mina eta sufrimendua norekin partekatu ez dutenentzat”. 2020an, 250 **erabiltzaileri** eskaini zion laguntza zerbitzu horrek (4tik 3 emakumezkoak).

Aurreko kasuen analisietan bezala, balio erantsia zerbitzuaren jarduerak eskaintzen duen balioen aniztasunean oinarrituta neur daiteke, eta horietako batzuk dira **berdintasuna eta pertsonen duintasuna**. Zerbitzua jasotzen duten 4 pertsonatik 1ek elkartearen erreferentziatzko pertsona baten **arreta pertsonalizatua** jasotzen du. Arreta hori eskaintzeko hilean hiru bilera egiten dira batez beste. Beharrezkoa baldin bada, **arreta prozesu batean zehar** eskaintzen da, baita bizitza osoan zehar ere (hori da 2020ko erabiltzaileen % 10en kasua).

Adierazle asko daude, Itxaropenaren Telefonoak **ingurunearekin duen lotura eta konpromisoaren** fede ona ematen dutenak, entzute eta lagun-egiteari dagokionez. Zerbitzuaren esparruan komunitateko beste eragile batzuekin batera ekimenak martxan jartzea da ingurunearekin duen konpromiso maila islatzen duen adierazleetako bat. **Komunitatera zabalik**

dauden jardueren beste adierazleetako bat dira erruduntasun-sentimenduaren inguruko hitzaldiak, boluntarioentzako entzumen aktiboaren inguruko formazioa eta Elgoibarreko stand informatiboa.

Goiztiri

Goiztiri Elkarte 1993an eratu zen Barakaldon eta bere helburuen artean pobrezia-egoeran eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen eta kolektiboek laguntzea dago. **Elkarte** gisa eratutako erakundea da eta **Bilbo Handiaren Ezkerraldea** du jarduera-eremu nagusia. **Bazterkeria-egoeran edo arriskuan** dauden pertsonekin jarduten du gehienbat. Bere lana definitzen duen **jarduera-eremu nagusia** Gizarte Zerbitzuak dira. Erakundearen tamainari dagokionez, **1.500.00 eurotik gorako** urteko bolumen ekonomikoa duen erakundea da.

Erakundearen **adierazle orokorre** erakusten dutenez, erakundeak ematen dituen zerbitzuen %90 **erantzukizun publikokoak** dira. Besteak beste, etxerik gabeko pertsonentzako eguneko zentroa, etxerik gabeko pertsonentzako gaueko harrera-zerbitzua, kalean esku hartzeko taldea eta migratzaileentzako harrera-etxeak dituzte. Azken 5 urteetan, erakundeak **bere esparruan nolabaiteko ezagutza sortzea lortu du**, behar berriak identifikatuz, proiektu berriak diseinatuz eta hasiz eta lehendik zeuden prozesuak hobetuz. **Gobernu-organoen** osaerari dagokionez, pertsonen %40 emakumeak dira.

Erakundearen balio osoa gizarteari egiten dion ekarpen osoan datza. Ekarpen horren barruan, erakundeak 1.500 erabiltzailerik eskaini zien zerbitzua 2020an, eta horietatik **lautik bat baino zertxobait gehiago emakumeak** izan ziren (%28). Gainera, 2020an artatutako 10 pertsonatik 9 **gizarte-bazterkeriako egoeran** zeuden arreta emateko unean. Azpimarratu behar da, era berean, erakundearen berezko zerbitzuen bidez artatutako pertsonen % 25 inguruk ez duela inolako arretarik jasotzen baliabide normalizatuen bidez.

Eragin sozial eta politikoko prozesuen ondorioz, erakundeak politika berriak edo lehendik zeuden politiken aldaketak lortzea lortu du, nabarmen eragiten du zerbitzu berrietan, hartzailer berrietan, figura profesional berrietan, ikuspegi berrietan eta abarretan, lehendik dagoen arreta-sistema edo sare batean txertatuta. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzenak dira, eta, beraz, balio osoa gizarte osoari egindako ekarpen gisa neurtzen da.

Erakundearen balio osoarekin jarraituz, erreferentziazko lurraldean erakundeak duen **ingurunearekiko elkartasun, lotura eta konpromiso handia** nabarmendu behar dira. Erakundearen modu aktiboan parte hartzen duten **boluntarioen** osaerari dagokionez (14 pertsona 2020an), erdia inguru emakumeek osatzen dute (%40). Era berean, bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenetako kide izatea handia da, eta hainbat ekimenetan parte hartzen du: EAPN, UNAD, Reas, Harresiak Apurtuz, Ekosistema, Hirekin, Adimen Emozionaleko Partzuergoa, Beste bi, Esen.

Erakundearen balio osoaren ondoren, BIDAIBIDE zerbitzua erakundeak bere zerbitzuen bidez ematen duen **balio erantsiaren** adibide ona da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko 1.7 fitxako bigarren modalitatean gizarte-bazterkeriako egoeran

dauden pertsonen arreta emateko udal-erakundearen zerbitzua da. 2020an, 209 **erabiltzailek** erabili zuten zerbitzu hori.

Aurreko kasu-azterketetan bezala, balio erantsia neurtu daiteke zerbitzuaren jarduerak berak ematen dituen balioetan oinarrituta, eta balio horietako bat pertsonen **berdintasuna eta duintasuna** da. Zerbitzura sartzen diren 4 pertsonatik 3k erakundearen erreferentziazko profesional baten **arreta pertsonalizatua** jasotzen du. Arreta hori hileko batez besteko 10 bileratan gauzatzen da.

BIDAIBIDE eguneko arreta-zentroak eskaintzen duen **ingurunearekiko loturaz eta konpromisoaz** fede ona ematen duten adierazle ugari daude. Zerbitzuaren esparruan, komunitateko beste eragile batzuekin lankidetzan sustatutako ekimenak abian jartzea da ingurunearekiko konpromiso-maila adierazten duten adierazle horietako bat. Baibideren kasuan, 3 ekimen sustatu dira beste eragile batzuekin lankidetzan. **Komunitateari irekitako jarduerari** buruzko beste adierazle batzuk bertan behera utzi behar izan dira COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz.

Sortarazi

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da Sortarazi, eta arreta berezia jartzen du beste baliabide batzuek artatzen ez dituzten pertsonengan, gizarteratzeko zailtasun bereziak dituztenengan edo bazterkeria edota pobrezia egoeran daudenengan. **Elkarte** gisa eratutako erakunde honek bere jardueraren eremu nagusia **Bizkaiko Lurralde Historikoan** dauka. **Bazterkeria-egoeran edo arriskuan dauden pertsonekin** jarduten du gehienbat. Bere lana definitzen duen **jardueraren eremu nagusia** Gizarte Zerbitzuak dira. Hala ere, osasuna, enplegua eta hiritartasuna ere lantzen dituzte. Erakundearen tamainari dagokionez, **300.000 € eta 1.500.00 € arteko urteko bolumen ekonomikoa** duen erakundea da.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dutenez, gaur egun **erantzukizun publikoko** 2 zerbitzu ditu, erakundearen zerbitzu guztien %20, gutxi gorabehera. Egunko eta gaueko arreta-zentroak dituzte Getxo-Urbe Kostako eskualdean, bai eta foru-aldundiaren gizarteratzeko eguneko zentro bat ere. Gainerako zerbitzuak edo ekimenak **urteroko diru-laguntza publiko zein pribatuekin eta baliabide propioekin bultzatzen** dira eta, beraz, administrazio publikoak ez ditu modu egonkor batean babesten. 2020an 2.582 pertsona artatu zituzten 8 ekimenez ari gara, alegia, erakundeak artatutako pertsona guztien %94. Azken 5 urteetan, erakundeak **bere esparruan nolabaiteko ezagutza sortzea** lortu du, behar berriak identifikatuz, proiektu berriak diseinatuz eta hasiz eta lehendik zeuden prozesuak hobetuz. **Gobernu-entitateen** osakerari dagokionez, Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonen %50, Bazkide Asanbladaren %50 baino gehiago eta zuzendaritza zein koordinazio lantaldearen %100 emakumeak dira.

Erakundearen balio osoa gizartearen egiten dion ekarpen osoan datza. Ekarpene horren barruan, erakundeak **2.759 erabiltzaile** eskaini zien zerbitzua 2020an, eta horietatik **erdia baino zertxobait gehiago emakumeak izan ziren** (%52,8). Hiru erabiltzailetatik batek (%36,2k) **askotariko diskriminazio-egoerari** aurre egiten die. Gainera, 2020an artatutako 10 pertsonatik

bat **gizarte-bazterkeriako egoeran** zegoen arreta jaso zuenean. Pertsona horiek, arreta maila nabarmenki handiagoa jaso zuten, lan-orientazio zerbitzuetara noizean behin joan diren erabiltzaileekin alderatuta. Azpimarratu behar da, era berean, erakundearen berezko zerbitzuen bidez artatutako pertsonen %10 inguruk ez duela inolako arretarik jasotzen baliabide normalizatuen bidez.

Erakundeak eskaintzen duen laguntza-lanaz harago, laguntza-sistema indartu ondoren, erabiltzaileek beren **eguneroko bizitza modu autonomoan eta testuinguru normalizatueta** garatzea bilatzen du erakundeak bere esku-hartzearekin.

Gizartean eta politikan eragina duten prozesuen ondorioz, erakundeak bere dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu; arau berriak edo dagoeneko onartuta dauden arauen aldaketak lortzen ditu; politika berriak edo horien aldaketak sustatzen ditu; eta lehendik dauden sistemetan edo prozesuetan berrikuntzak txertatzen ditu. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzenak dira eta, beraz, balio osoa gizarte osoari egindako ekarpen gisa neurtzen da.

Erakundearen balio osoarekin jarraituz, erreferentziatzeko **lurraldean erakundeak duen ingurunearekiko elkartasun, lotura eta konpromiso handia** nabarmendu behar dira. Erakundearen modu aktiboan parte hartzen duten **boluntarioen** osakerari dagokionez (55 pertsona 2020an), erdia baino gehixeago emakumeak dira (%56). Era berean, bigarren eta hirugarren mailako sare edo ekimenetako kide izatea nabarmena da, hainbat ekimenetan parte hartzen duelarik: EAPN, Beste Bi, Bolunta, Sarekide, Ekain, Eraldatuz, Gizardatz, Gazteak Ekosistema, Familiak Ekosistema, Drogamenpekotasunak (Bilboko Udala), SolidaridUp, Urban Eliko, SF taldeen koordinatzailea, Isiltasunaren Zirkulua.

Emandako galdera-sortaren "balio erantsia" atalean ez du zerbitzu zehatzik sartu.

Arlo SOZIAL-TRANSBERTSALEKO (ZIBIKOA) erakundeak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen lurraldeetako Elkarten Federazioa (EUSKOFEDERPEN)

EUSKOFEDERPEN “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen lurraldeetako Elkarten Federazioa” da. **Elkarte** gisa dago eratuta eta **Euskal Autonomia Erkidegoan** jarduten du. Herrialde mailako erretiratuen eta pentsiodunen elkarten federazioa denez, **adineko pertsonekin** jarduten du gehienbat. **Arlo sozialean-zeharkakoan (zibikoa) jarduten du gehienbat**; beraz, bestelako eremuak ere jorratzen ditu, baina gizarte-zerbitzuena eta osasun arlokoa batez ere. Tamaina ertaina du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **60.001 eta 300.000 euro artekoa da**.

Erakundearen **adierazle orokorre** erakusten dute ez zuela **erantzukizun publikoko** zerbitzurik izan 2020an. Ekimen guztiak administrazio publikoak babesten ditu ekonomikoki. Sare gisa, **ezagutzak sortzen** ere parte hartu du, behar berriak identifikatuz, lurralde-elkarteak bultzatuz

eta adinekoen esparruan proiektu berriak diseinatuz eta abiaraziz. EUSKOFEDERPENeko gobernu-organoetan ez dago ordaindutako langilerik, lehendakaritza gizon bati dagokio eta zuzendaritza teknikoa emakume bati.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. **Eragin soziala eta politikoa duten prozesuen** ondorioz, erakundeak berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzen ditu; arau berriak edo onartuta zeuden arauen aldaketak lortzen ditu; politika berriak edo horien aldaketak sustatzeko eragin nabarmena du; eta dagoeneko badauden sistema edo prozesuetan berrikuntzak txertatzen ditu.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta ingurunearekiko lotura eta harremanarekin ere neurtzen da**. Ildo horretatik, nabarmentzeko datua da 10 **boluntariotatik** 6k aktiboki hartzen dutela parte astean 20 ordu baino gehiagoko boluntariotzan. Halaber, nabarmentzekoa da ere ondorengo organoetan parte hartzen duela, hala nola UDP (Pentsionisten Batasun Demokratikoa), CEPM (Adineko Pertsonen Estatuko Kontseilua), EAB (Euskadiko Adinekoen Batzordea) eta AGEN (Europako Plataforma).

AISIALDI arloko erakundeak

Behar Bereziak dituzten Durangaldeako Familien Elkarteak (Geu Be)

Geu Be “irabazi asmorik gabeko erakundea da eta Durangaldean behar bereziak dituzten gazteekin eta gazteentzat egiten du lan”. **Elkarteak Bizkaiko Lurralde Historikoan** jarduten du gehienbat, **Durangaldean** batez ere. Geu Be-k **desgaitasuna duten pertsonekin** egiten du lan gehienbat. **Nagusiki aisialdian** jarduten duen arren, zeharka osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloak ere jorratzen ditu. Tamaina ertaina du erakundeak eta bere urteko kopuru ekonomikoa **60.001 eta 300.000 euro artekoa da**.

Erakundearen **adierazle orokorrek** erakusten dute erakunde txikia dela eta 2020an **erantzukizun publikoko** 2 zerbitzu eskaini zituela. Bi zerbitzuek osatzen dute elkarteak eskaintzen dituen zerbitzu guztien % 10 (espetxe-zerbitzuengatik komunitateko lanak eta udalentsako aholkularitza kontseilua). Gainera, **berezko baliabideekin sustatutako** zerbitzu edo ekimenei dagokienez, bi zerbitzu nagusiak dira ludotekaren programa eta aisialdirako eta familien atsedenerako programak. 2020an, 45 pertsonari eskaini zioten zerbitzua. Halaber, **ezagutzak sortu** ditu, behar berriak sortuz eta proiektu berriak diseinatuz eta hasiz. **Gobernu-organoetan emakumeek duten presentziari** dagokionez, partaidetatik hiru emakumezkoak dira (% 60) eta zuzendaritza ere emakume batek darama.

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egindako ekarpen osoan dago. Ekarpene horren zati gisa, erakundeak 2020an **45 erabiltzailer** eman zion zerbitzua, eta horietatik % 36 **emakumezkoak** izan ziren. Artatutako pertsonen % 10 bazterkeria egoeran zeuden arreta jaso zuten unean. Artatutako pertsonen % 77k **ez du arretarik jasotzen normalizatutako baliabideetatik** eta, beraz, erakundearen berezko zerbitzuen bidez soilik artatzen dituzte. Azkenik, nabarmendu

behar da elkarteak artatutako pertsona guztiek modu autonomoan garatzen dutela haien eguneroko bizitza testuinguru normalizatueta.

Erakundearen zerbitzuetan erabiltzaileei eskaintzen zaien zuzeneko arretan egiten duen ekarpena gehitzen bazaio, guztizko balioa **elkartasunarekin eta parte-hartze sozialarekin neurtzen da**. Erakundearen modu aktiboan parte hartzen duten **boluntarioei** dagokienez, 4 boluntariotatik 1 emakumezkoak dira eta guztiak dira aldi baterako boluntarioak. Boluntariotzaz gain, elkartasuna erakundeak dituen **bazkideen** konpromisoarekin eta parte-hartze sozialarekin ere neur daiteke. Zehazki, erakundeak 45 bazkide ditu eta horietatik % 77 emakumezkoak dira.

Erakundearen balio osoaren diagnostikoa egin ostean, **balio erantsi** altua duten bi zerbitzu aitortu ditu Geu Be-k (guztiz beharrezkoak diren horietatik harago). Alde batetik, **ludoteka zerbitzua** eskaintzen du eta bestetik, **familien atsedenerako zerbitzua** delakoa eskaintzen du. Bi zerbitzuak **erantzukizun publikoko zerbitzuak** dira.

Bi zerbitzuetatik lehenengoaren balio erantsiarekin hasiz, **ludoteka-zerbitzuak** 2020an zehar 45 **erabiltzaile** artatu zituen (% 35 emakumezkoak). Erabiltzaileen ia erdiek izan zuten erakundearen erreferentziazko pertsona batek egindako **arreta pertsonalizatua**. Gainera, guztiekin egiten dira haien behar eta egoeretara egokitutako **programa bereizgarriak**. Zerbitzuaren erabiltzaileen eta erreferentziazko profesionalaren arteko bilerak astero izaten dira. Azken finean, helburua da denboran zehar **harremanak egonkortzea**, eta, beharrezkoa izanez gero, bizitza osoan zehar luzatu daitezke kasu guztietan. Halaber, zerbitzurako sarbidea duten pertsonen sarbidea dute erakundearen beste arreta-zerbitzu batzuetara, hori da 4 erabiltzailetik 1en kasua.

Erakunde batek **ingurunearekin duen lotura eta konpromisoa** hainbat adierazleren bitartez neur daiteke. Horietako bat da beste elkarteetatik arreta jasotzen duten artatutako pertsonen ehunekoa, baina, batez ere, Geu Be-k elkarte horiekin duen harremana. Beste erakundeetatik arreta jasotzen duten pertsonen % 20ren kasuan, **harreman oso jarraitua eta estua dago erakundearen artean**. Ildo horretatik, bai komunitateko beste eragile batzuekin sustatutako ekimenak, bai komunitateari zabaldutako jarduerak presente daude zerbitzuan bertan (Durango kosmopolitan, Munduko arrozetan, Sentsibilizazio-jardunaldietan, Desgaitasunaren egunean, Durangoko jaietako erreken jaitsieran eta abar). Funtsezko beste balio erantsia zerbitzura hurbiltzen diren pertsonentzako eta pertsonekin **elkartasuna** da. Geu Be-ren kasuan, beharrezkoa baldin bada, baliabiderik ez duten edo bereziki desgaitasuna duten pertsonak **zerbitzura sartu ahal izan dira erakundearen menpe dauden egokitzapenak** egin ostean (2020an, 3 pertsona).

Arreta jarri behar den bigarren zerbitzua **familien atsedenaldirako irteera** da. 45 **erabiltzailek** erabili ahal izaten dute guztira 2020an eskainitako arreta. Zerbitzura sartzen diren pertsonen gutxi gorabehera % 35ek erakundearen erreferentziazko profesional baten **arreta pertsonalizatua** jasotzen du. Erabiltzaileen eta erreferentziazko pertsonen arteko bilerak **hamabostean behin** izaten dira. Geu Bek lehenengo zerbitzuan erakusten duen **ingurunearekiko lotura eta konpromisoa** eta **elkartasuna** agerian geratzen dira bigarren honetan.

ONDORIOAK

Adierazle orokorrak

Erakundearen adierazle orokorrek Hirugarren Sektore Sozialeko elkarteentzako jarduerak erakusten dute, batez ere, bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak, ezagutza sortzeko zereginak eta gobernu-organoen osaketa.

Laginak dituen mugak kontuan izanik, eta parte hartu duten erakundearen arabera, **erantzukizun publikoko zerbitzuak** eskaintzea ohikoa da nagusiki gizarte-zerbitzuen edo enpleguaren arloan jarduten duten elkarteentzat. Gainerako arloetan (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, Osasuna, Zibikoa eta Aisialdia), elkarte batzuek badituzte erantzukizun publikoko zerbitzuak haien zerbitzuen artean, baina ez da arauaren parte. Bai erantzukizun publikoko zerbitzuak dituzten elkarteek, bai gainerakoek, **elkartearen berezko baliabideekin soilik sustatutako** zerbitzu ugari eta askotarikoak dituzte, pertsona ugariren beharrei erantzuteko. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan ez da hain ohikoa zerbitzuak eskaintzea.

Alabaina, nabarmendu behar dugu elkarteek ez dituztela soilik zerbitzuak eskaintzen. Dagoeneko dauden zerbitzuak hobetzearekin eta zerbitzu berriak sustatzearekin lotuta dauden **ezagutzak sortzea** etengabea da elkarte gehienetan. Elkarteak eta erabiltzaileak batzen dituen harreman estua funtsezko eragilea da etengabe hobetzeko eta hautemandako behar berrietara egokitzeko. Prozesu horiek guztiek, kasu batzuetan, elkarteek egindako **komunikazio edo argitalpen formalak** sortzen dituzte.

Azkenik, elkarteentzako **gobernu-organoen osaerari** dagokionez, eta, batez ere, horietan emakumeek duten presentziari dagokionez, adierazleek sektorearen feminizazioarako joera jakin bat erakusten dute. Sektorearen eta gobernu-organoen feminizazioa (baita soldatapeko langileena) handiagoa da aisialdiaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan. Arlo horien ezaugarri nagusietako bat beharrak dituzten pertsonak zaindu eta laguntzeko zereginak dira, eta emakumeen ehuneko altuagoa izaten dute, baita erantzukizun-karguetan ere.

Balio osoaren adierazleak

Erakundearen guztizko balioa gizarteari egiten dio ekarpen osoan da. Balio Erantsiaren Adierazleak. Balio osoa da elkarte batek gizarteari egiten dion ekarpena. Balio osoaren adierazleen helburua da hainbat arlotako ekarpena neurtzea.

Balio osoa agerikoena den arloetako bat da elkarteek **erabiltzaileei** eskaintzen dieten zerbitzuena. Zerbitzu eta elkarte bakoitzeko erabiltzaileen kopurutik harago (kopurua asko aldatzen da elkartearen tamainaren arabera, baita artatutako kontingentzien arabera ere), adierazgarriagoa da elkarteentzako dagoen harremana. Elkarte gehienetan, batez ere enpleguan, gizarte-zerbitzuetan eta osasunean jarduten dutenetan, erabiltzaileek **askotariko diskriminazioa** pairatzen dute, generoan, jatorrian edo baliabideen eskasian oinarrituta gehienbat. Zerbitzu jakin batzuetako erabiltzaile horiek guztiek alde askotatik pairatze dute

diskriminazioa, eta, ondorioz, elkarteak dira haien erreferenteak, elkarte horietako bakoitzera hurbiltzera eraman dituen arrazoiak gorabehera. Egoera hori are adierazgarriagoa da artatutako pertsonen normalizatutako baliabideetatik arretarik jasotzen ez dutenean, eta, beraz, erakundearen berezko zerbitzuetatik soilik artatzen dituzte. Elkarterik ezean, pertsona horiek erabateko babesgabetasun-egoeran egongo lirateke eta horrek elkarte horien balio kontingentea nabarmentzen du.

Berrito ere, hainbat elkartetan, etengabe daude **gizarte-bazterkeria egoeran** bizi diren pertsonak. Neurri orokortua ez izan arren, elkarte batzuek bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden erabiltzaile horien ehuneko bat kontratatzen dute neurri aringarri gisa, eta beraz, funtzio bikoitza egiten du: laguntza eskaintzea eta gizarteratzea. Erakundeak eskaintzen duen laguntzaz gain, honako hau da babes-sistema indartu ostean gizarte osoari guztizko balio handia eskaintzen diona: **erabiltzaileek haien eguneroko bizitza modu autonomoan garatzea lortzen dutela** testuinguru normalizatuetan. Gainera, esku-hartzean zehar edo esku-hartzearen ondoren bizitza-proiektu independentea garatzea lortu duten pertsonen kopurua nabarmena da.

Erakundearen balio osoa ez dago soilik eskaintutako zerbitzuen bitartez erabiltzaileei egiten dion ekarpenean. **Eragin sozialaren eta politikoaren** arloan, modu nahiko orokortuan eta elkarte bakoitzak dagokion jardura arloan, kontsultatu ditugun elkarteek lortu dute berezko dokumentuak egin, editatu eta/edo zabaltzea, arau berriak egitea edo dagoeneko onartuta zeuden arauak onartzea, eta politika berriak sustatzeko edo aldaketak egiteko eragin nabarmena dute. Lorpen horiek guztiak erakundearen lanaren ondorio zuzena dira, eta, beraz, gizarte osoari egiten dioten ekarpenaren guztizko balioa ere neurri horretakoa da.

Azkenik, eta **ingurunearekin duten loturarekin eta konpromisoarekin** lotutako balioekin estu lotuta, elkartearen balio osoa aztertzeko funtsezko zutabeak dira boluntariora, bigarren mailako elkartearen parte izatea, eta bazkideen babesa eta sustapena. Arau orokor gisa, ia elkarte guztiak beste elkarte batzuekin elkarlanean aritu dira eta harreman egonkorra egin dute azken 10 urteotan. Horrek erakusten du elkarteek lurraldean eta bere inguruan duten errotzea eta sendotzea. Halaber, bigarren mailako sarean edo ekimenen parte izatea ohikoa da elkarte guztietan.

HSSan Balio Osoaren eta Balio Erantsiaren ondorengo azterketetarako gogoetak

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala (zehazki, 28. jarduketak erreferentzia egiten dio HSSren eta elkartearen balio osoa eta balio erantsia hautemateari, aitortzeari eta sustatzeari) sustatzeko estrategiak zehaztutako helburuak lortzeko bide berriak zabaltzeko asmo irmoarekin, egindako prozesuaren eta hobekuntza posibleen inguruko gogoeta-eremua aurkezten dugu.

Airean geratu dira prozesuaren hurrengo edizioetan kontuan hartu beharreko eta guztiz ebatzi ez diren **gako batzuk**. Lehenik eta behin, desadostasun handia dago lehen unean proiektuarekiko erakutsi zen interes maila altuaren eta lortutako parte-hartze eskasaren artean.

Proiektuak interesa eta motibazioa sortu ditu eta elkarteei deigarri gertatu zaie, baina ez du maila bereko parte-hartzea lortu. Bigarrenik, elkarteen artean jasotako iritziek diote galdetegiaren konplexutasunak eragina izan duela parte-hartze baxuan.

Helburu argi batzuetatik abiatzen gara, eta azken finean, ekimen sozialeko elkarte gisa zerk definitzen gaituen neurtu nahi dugu, hau da, zer egiten dugun, norekin, zerekin, nola egiten dugun eta zertarako egiten dugun. Eta alderdi horietako bakoitzarekin lotutako zer egintzek ematen duten balioa (guztizko balioa eta balio erantsia) eta gure izaeraren (ezaugarriak), misioaren (zeregina eta xedea) eta kulturaren (balioak, ereduak edo egiteko, antolatze eta gauzak kudeatzeko “moduak”) zer funtsezko dimentsio adierazten dituzten.

Horregatik, eta zalantzarik gabe, neurtu nahi den hori neurtzea ahalbidetzen duten **tresna argiak eta zehatzak** behar dira. Galdetegia aukera egokia da izaera kuantitatiboa duen informazioa neurtu eta kuantifikatzeko, baina zailtasun batzuk sortzen ditu alderdi kualitatiboagoak neurtzerakoan. Hain zuzen ere, alderdi kualitatibo horietan jarri behar dira ahaleginak, neurtu eta kasuen arabera bereizteko aukera ematen duen galdetegia diseinatzeko.

Hurrengo gogoetak **prozesuaren amaierako ebaluaziotik** abiatu dira. Guztizko balioaren eta balio erantsiaren galdetegia betez proiektuaren azkeneko fasean parte hartu duten erakundeei bidalitakoa da lehenengo galdetegia, eta tresnaren aurkezpenean parte hartu zuten, baina galdetegia bete ez zutenei bidalitakoa da bigarrena.

Ebaluazio horretan oinarrituz, berresten da galdetegi soil eta sintetikoago batek lagun dezakeela kalitate handiagoko informazioa biltzen, diseinua bideratu behar den hiru funtsezko premisaren ondorioz:

- **Galdetegi ulergarriagoa** diseinatzea. Galdetegia bezalako ikerketa-tresna batek ulerterraza izan behar du, bai euskarriari dagokionez (kasu honetan, online), bai edukiari dagokionez. Kasu honetan, galdetegia elkarteek bakarrik bete behar dutela kontuan izanik (laguntza teknikoa dute zalantza-kasuetarako), are garrantzitsuagoa da galdetegia ulergarria izatea.
- **Emaitzak gehitzeko** gaitasun handiagoa. Galdetegiaren amaierako helburua da erantzunak gehituz azterketa egitea. Horregatik, aldagaiak helburu horretarako baliozkotu behar dira. Horregatik da garrantzitsua parte hartzen duten eragileen errealitateari soilik erreferentzia egiten dieten ahalik eta aldagai gehien alde batera uztea, eta kasu desberdinak gehitzerakoan alderatuak izan daitezkeen aldagaietan arreta jartzea.
- **Erantzunen indize handiagoa**. Landa-lan trinko eta lagundutakoaz gain, hori guztiaren helburua da azterketaren erantzunen indizea handitzea, azterketaren unibertsoaren lagin adierazgarria lortzeko. Eskuragarri dauden baliabideen arabera, komeni da elkarte batzuk bisitatzea, estatistika-irizpideen arabera.
- **Egutegi estrategikoa egitea** sustapenaren une egokiena identifikatzeko. Elkarteek galdetegia betetzeko egin behar duten ahalegina kontuan hartuz, funtsezkoa da landa-lana egiteko une egokia aukeratzea. Galdetegia jasoko duten elkarte gehienak elkarte txikiak dira eta baliabide urriak dituzte. Sarri, hainbat ikerketa egitea, esaterako, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokiak sustatzen dituenak (Barometroa, Liburu zuria, etab.). Guztietan parte hartu nahi duten elkarteentzat ahalegin handia izan

daiteke. Horregatik, egutegi estrategikoa egiteak elkarte batzuen gainkarga arindu dezake, haien parte-hartzea behar duten azterketetan parte hartzerako orduan.

Hala ere, kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuek adierazten dute parte-hartze mailak galdetegian eragina duen arren, ez duela erabat baldintzatzen. Galdetegia bete ez duten elkarten kopuru nabarmen batek normalean horrelako galdetegiak bete ohi ditu. Gehienetan derrigor betetzeko galdetegiak dira, baina ez beti. Kasu batzuetan, erakundeak galdetegia egiterakoan duen kostua-etekina positiboa izaten da.

Horri dagokionez, derrigorrezko galdetegia ez denez, beharrezkoa da **tresna balioan jartzeko** estrategia bat (balorizaziorako zigilua edo identifikagarria, betetzen duenaren jatorria edo prebalentzia, esaterako). Era berean, elkarteei barne-komunikaziorako kanpaina bakarraren bitartez motibatu behar zaie. Osasun-krisiaren eta horrek ekarri dituen murrizketen ondorioz, aurten ezin izan da proiektua herrialdeetan aurkeztu, hasieran pentsatzen zen moduan, tresna elkarteetara hurbiltzeko.

Baloratu beharreko beste aukera bat da, betiere eskuragarri dauden baliabideen arabera, galdetegi proaktiboagoa egitea. Parte hartzera gonbidatuta dauden elkarten jarraipena egingo duen pertsona bat izatea, aurten elkarten eskura jarri den laguntza teknikoaren ordeiz.

Faktore horiek sustatu eta hobetzen lagun dezakete, zalantzarik gabe, zehaztutako helburuak modu eraginkorragoan lortzen, baita gonbidatuak diren ikerketa guztietan parte hartzeko ahalegina egiten duten elkarten partaidetza adeitsuagoa lortzen ere.

Azkenik, eta zehaztutako helburuak lortzeko tresna eta modu eraginkorragoetatik harago, ezin dugu ahaztu prozesuan lan egiten jarraitzeko beharra eta garrantzia. Laburbilduz, hasi besterik egin ez den bidea da hau, eta epe ertain eta luzerako prozesu baten modura ulertu behar da, finkatuz joango dena eta elkarteekin duen lotura areagotuko duena, eta, ondorioz, baita erantzunen kopurua ere. Beraz, sustatzen jarraitu beharra dago merezi duen garrantzia emateko.

GEHIGARRIAK

Galdeketa

ERAKUNDEEN GUZTIZKO BALIOAREN ETA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO GALDETEGIA

ERLAITZA: AURKEZPENA

Lan honen bidez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak (EHSS) euskal gizarteari egiten dion ekarpenari buruzko ikuspegi partekatua eraikitzen jarraitu nahi du SAREEN SAREAK. **Sektoreko erakunde bakoitzaren ekarpen soziala ezagutzean, agerian jartzean eta areagotzean** datza.

Sektorearen ekarpen sozialaren gaineko informazio gehigarria izatea ahalbidetuko du online galdetegi honek, erakundeek eurek emandako datuetatik abiatuta. Guztizko balioan (1) eta balio erantsian (2) oinarrituko da.

(1) GUZTIZKO BALIOA: Erakunde baten edo sektore baten guztizko balioztat hartzen da <i>“gizarteari egiten dion ekarpena, oro har”</i> .	(2) BALIO ERANTSIA: Balio erantsia esaten zaio esku-hartze sozialeko erakunde bakoitzak zerbitzuen hornikuntzari (erantzukizun publikokoa* izan edo ez) gehitzen dion balioari, derrigorrezkotzat jotzen diren elementuez harago. Hau da, <i>erakunde batek egin duen ekarpenari, zerbitzu bati edo zerbitzu zehatz batzuen konbinazioari edo sareari lotuta.</i>
--	---

**Zerbitzu bat erantzukizun publikokoa dela esaten da instituzio publikoek zerbitzu hori hartzailentzat erabilgarria eta irisgarria izatea bermatu behar dutenean; araudietan eta instituzio horien eskumenekoak diren prestazioen eta zerbitzuen zorro edo katalogoetan arautzen dira erantzukizun publikoko zerbitzuak.*

Zalantzarik gabe, EHSS osatzen dugun erakundeen eta pertsonen inplikazioa funtsezkoa da lan hau aurrera eramateko. Hori dela eta, **zuen dedikazioa eta interesa eskertzen dizkizuegu beste behin ere.**

Parte hartzen duten erakundeak EHSSko erakunde gisa identifikatu behar dira, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak zehazten dituen ezaugarriak oinarri hartuta: **egoitza eta jarduera EAEn izatea, eta ekimen sozialeko (3) eta esku-hartze sozialeko (4) erakundeak izatea.**

(3) EKIMEN SOZIALEKO erakundeak: Euskadiko hirugarren sektore sozialeko ekimen sozialeko erakundeak dira formalki eratuta dauden eta nortasun juridiko propioa duten ekimen sozialeko fundazioak, elkarteak, kooperatibak eta beste entitate oro, baldin eta honako ezaugarriak badituzte: a) borondatezko ekintzan oinarrituta daude; b) gizarte zibilaren parte dira, eta gizarte horretatik eta horrentzat sortzen dira; c) pribatuak dira; d) irabazi-asmorik gabekoak dira; e) eta parte-hartzaileak dira.	(4) ESKU HARTZEKO SOZIALEKO erakundeak: Esku-hartze sozialeko jardueratzat edo esku-hartze sozialeko esparrukotzat hartzen dira hauek sustatzea xede duten jarduerak: gizarteratzea, garapenerako lankidetzat, biztanleria osoaren eskubideen aitortza eta zaurgarritasun-, bazterketa-, babesgabetasun-, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familiek, taldeek, kolektiboek edo komunitateek beren eskubideak eraginkortasunez baliatzea, gizarte-bazterketaren, marjinazioaren, babesgabetasunaren eta indarkeria matxistaren kontra borroka eginez. Halaber, jarduera horiek gizartea eraldatzen dute, gizarte justuago, solidarioago, berdinzaleago, parte-hartzaileago eta demokratikoago bat lortzeko bidean aurrera egiteko.
--	--

Eskatutako datuak 2020koak izan behar dira.

2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduaren (EB) arabera tratatuko da jasotako informazioa. Pertsona fisikoen babesari buruzkoa da erregelamendu hori, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioari dagokienez. Era berean, **konfidentziasunez tratatuko dira datuak, eta erantzunen anonimotasuna bermatuko da**; izan ere, emaitzak ez dira banaka aztertuko, multzoan baizik.

Mesedez, adieraz ezazue **erakundearen izena**, proiektuan parte hartu duten erakundeen erregistro bat eduki ahal izateko.

ERAKUNDEAREN IZENA _____ Derrigorrez erantzun behar da.

Galdetegia bete den urtea _____ Derrigorren erantzun behar da.

Erakundeak EAEn ditu egoitza eta jarduera?

☐

Bai

☐

Ez

Online: erantzuna BAI izanez gero, mezu hau agertuko litzateke: Has zaitezke galdetegiari erantzuten.

Online: erantzuna EZ izanez gero, mezu hau agertuko litzateke: Galdetegiari erantzuteko beharrezkoa da zure erakundeak egoitza EAEn izatea eta jarduera bertan garatzea. Eskerrik asko zure interesagatik.

Galdetegia edo Excel dokumentua betetzeko orduan zalantzaren bat izanez gero edo argibideren bat behar izanez gero, Iker Fernandezekin jar zaitezke harremanetan mezu elektroniko bat bidalita ikfernandez@edefundazioa.org edo 94.400.99.99 telefono-zenbakira deituta.

1) Adierazi erakundearen izaera juridikoa:

☐ Elkartea	☐ Merkataritza-sozietatea
☐ Fundazioa	☐ Kongregazio erlijiosoa
☐ Kooperatiba	☐ Beste batzuk. Zehaztu _____
☐ Ekimen sozialeko kooperatiba	

2) Zein da zure erakundearen jardueraren geografia-eremu nagusia?

Oharra: erantzun bakarra aukera dezakezu, zure erakundearen errealitatera ondoen egokitzen dena. Zure jardura alorrek Lurralde Historiko bat baino gehiago hartzen baditu, EAE aukera markatu behar duzu; eta autonomia-erkidego bat baino gehiago hartzen baditu, Estatua aukera markatu behar duzu.

☐ Nazioartea	☐ Lurralde historikoa-Araba
☐ Estatua*	☐ Eskualdea (zehaztu) _____
☐ EAE*	☐ Udalerria (zehaztu) _____
☐ Lurralde historikoa-Bizkaia	☐ Udalerria baino beheragoko maila (auzoa, barrutia...)
☐ Lurralde historikoa-Gipuzkoa	☐ Beste bat (zehaztu) _____

3) Zure erakundearen jardura zer kontingentziarekin (egoerak, kolektiboak, etab.) dago lotuta, BATEZ ERE?

Oharra: erantzun bakarra aukera dezakezu, zure erakundearen errealitatera ondoen egokitzen dena.

☐ Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	☐ Desgaitasuna duten pertsonak
☐ Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	☐ Aurrekoetako bakar bat ere ez (zehaztu zein) _____
☐ Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak	_____

4) Zer EREMUTAN JARDUTEN da zure erakundea? Erantzun aniztuna.

	BAI	EZ
OSASUNA	☐	☐
ENPLEGUA	☐	☐
GIZARTE ZERBITZUAK	☐	☐
AISIALDIA	☐	☐
GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA	☐	☐
SOZIALA-ZEHARKAKOA. ZIBIKOA	☐	☐
BESTE eremu batzuk	☐	☐
Zehaztu _____		

5) Zure erakundea NAGUSIKI zer EREMUTAN jarduten den esan beharko bazenu, zeinetan esango zenuke?

Oharra: erantzun bakarra aukera dezakezu, zure erakundearen errealitatera ondoen egokitzen dena.

☐ Osasuna	☐ Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza
☐ Enplegua	☐ Soziala-zeharkakoa. Zibikoa

☐ Gizarte-zerbitzuak

☐ Beste batzuk (zehaztu) _____

☐ Aisialdia

6) Erakundearen urteko diru-sarreraren gutxi gorabeherako bolumena:

- ☐ 12.000 € edo gutxiago
☐ 12.001 € eta 60.000 € artean
☐ 60.001 € eta 300.000 € artean
☐ 300.001 € eta 1.500.000 € artean
☐ 1.500.000 € baino gehiago.

7) Inkesta erantzuten duen pertsona (ondoren harekin harremanetan jartzeko):

- Izen-abizenak
- Telefonoa
- Emaila
- Erakundearen duen kargua

ERLAITZA: GUZTIZKO BALIOAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK

Guztizko balioarekin lotutako adierazleetan sakonduko du erlaitz honek. Erakunde baten edo sektore baten guztizko balioa esaten zaio “gizarteari eginiko ekarpen osoari”.

Oharra: atal honetan eskatzen den informazioak 2020ko datuei buruzkoa izan behar du.

BERDINTASUNA ETA DUINTASUNA

1) Pertsona kopurua _____

Emakumezko erabiltzaileen % _____

Oharra: erabiltzaileetat hartzen ditugu zerbitzuak erabili dituzten edo jardueretan parte hartu duten pertsonak, memorian jasotakoaren arabera (ez dira kontuan hartzen zehaztu gabeko pertsona kopuru bati zuzendutako jarduerak, adibidez, sentsibilizazio-kanpainak); banakako arreta-plan bat duten edo taldeko etengabeko esku-hartzea jasotzen duten pertsonak, etab.

Arreta familiei zuzenduta egonez gero: familia erabiltzaileen kopurua _____

Sentsibilizazio-kanpainetan edo -jardueretan izandako erabiltzaile kopurua _____

Oharra: zehaztu gabeko pertsona kopuru bati zuzendutako sentsibilizazio-kanpainetan, herritar guztientzako ekintza irekietan... parte hartu duten pertsonen ari gara.

2) Diskriminazio anizkoitzeko egoerak bizi dituzten erabiltzaileen kopurua _____

Oharra: diskriminazio anizkoitza deitzen diogu diskriminazio mota bat baino gehiago jasateari hainbat faktoreren ondorioz, hala nola sexua, arraza, jatorri etnikoa, hizkuntza, adina, desgaitasuna, ondarea, orientazio sexuala, etab.

Eta zehazki: zeintzuk izaten dira diskriminazio anizkoitzaren arrazoi nagusiak? _____

Diskriminazio anizkoitza jasaten duten erabiltzaileen %, erabiltzaileen kopuru totalarekiko %____

3) Gizarte-bazterketa egoeran dauden erabiltzaileen edo onuradunen kopurua ____

Gizarte-bazterketa egoeran dauden erabiltzaileen edo onuradunen %, erabiltzaileen kopuru totalarekiko %____

4) Bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan bizi diren (edo DSBE jasotzen duten) eta erakundeak neurri aringarri gisa kontratatatu dituen pertsonen % ____ Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe).

Oharra: kontratatutako pertsonatzat edo soldatapeko langiletzat hartzen ditugu erakundearentzat zeregin jakin bat egiten duten eta horren truke soldata edo ordainsaria (eta ez jarduera batean parte hartzeagatik jasotako gastuen konpentsazioa) jasotzen duten pertsona guztiak. Noizean behineko laguntzaileak ez dira barne hartzen (ohiko lankidetzaren harremana izan behar du), ezta praktikak egiten ari diren pertsonak edo bekadunak ere. Babestutako enplegua duten langileak ere ez dira erregistratzen hemen, ez EEEtakoak eta ez laneratze-prozesuetakoak.

5) Erakundearen zerbitzu propioetan (erantzukizun publikoko katalogokoetan edo zorroetan jaso gabeak) edo plaza propioetan arreta jasotzen duten, eta baliabide normalizatuen (herritar guztiei zuzenduak) bidez arretarik jasotzen ez duten FAMILIEN kopurua (familien arretarako programak edo zerbitzuak daudenean) ____

Adierazi familia horien pisua (%), arreta jasotzen duten familia guztiekiko % ____

6) Erakundearen zerbitzu propioetan (erantzukizun publikoko katalogokoetan edo zorroetan jaso gabeak) edo plaza propioetan arreta jasotzen duten, eta baliabide normalizatuen (herritar guztiei zuzenduak) bidez arretarik jasotzen ez duten PERTSONEN kopurua ____

Oharra: erantzukizun publikoko arreta-sistemek barne hartzen ez dituzten kolektiboak zein diren jakin nahi dugu hemen, edo baldintza jakin batzuk ez betetzeagatik zer pertsona ez dituzten onartzen edo baztertzen dituzten. Hortaz, ez dira kontuan hartzen hornikuntzarako erakundearen laguntza jasotzen duten erantzukizun publikoko zerbitzuak.

Adierazi pertsona horien pisua (%), arreta jasotzen duten pertsona guztiekiko % ____

GIZARTE-JUSTIZIA ETA GIZARTERATZEA

7) Ez erantzun Lankidetzako edo Aisialdiko erakundea izanez gero. Erakundearen lehiaketaren bidez laguntza-sistemak (formalak/informalak) sendotu ondoren, ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitzen duten eta/edo ohiko bizitza autonomiaz eta testuinguru normalizatueta garatzen duten erabiltzaileen kopurua. ____

8) Ez erantzun Lankidetzako edo Aisialdiko erakundea izanez gero. Adierazi pertsona horien pisua (%), arreta jasotzen duten pertsona guztiekiko % ____

9) Ez erantzun Lankidetzako edo Aisialdiko erakundea izanez gero. Esku-hartzeak irauten duen bitartean edo esku-hartzea amaitutakoan bizi-proiektu independente bat (bere bizikidetzaren unitate propioa osatuz) garatzen duten pertsonen kopurua ____

10) Ez erantzun Lankidetzako edo Aisialdiko erakundea izanez gero. Adierazi pertsona horien pisua (%), arreta jasotzen duten pertsona guztiekiko % ____

11) Adierazi eragin sozialeko eta/edo politikoko prozesuen ondoren (erakundeak garatzen dituenak edo erakundeak parte hartzen duenak) zure erakundeak honako emaitzaren bat lortu duen.

	BAI	EZ
Dokumentuak (ikerketak, txostenak...) egin, editatu eta/edo hedatzea.		
Arau berriak edo arauen moldaketak onartzea (aldaketa zehatzak bultzatzea).		
Politika berriak edo politiken moldaketak (aldaketa zehatzak bultzatzea).		
Existitzen den arretarako sistema edo sare batean zerbitzu berriak, hartzaile berriak, profesional berriak, ikuspegi berriak, etab. txertatzea.		
Existitzen den zerbitzu batean prestazio berriak, hartzaile berriak, profesional berriak, ikuspegi berriak, etab. txertatzea.		

ELKARTASUNA

12) Adierazi une honetan zenbat boluntario dituen zure erakundeak.

Oharra: boluntariotzat hartzen ditugu ordainsari ekonomikorik jasotzen ez duten pertsonak, jarduera musu-truk egiten dutenak, elkartasunez, borondatez eta libreki, eta diruz ordaindutako zerbitzu profesionalak ordezkatu gabe. Gogoan izan gobernu-organoetako langileak ere sartuta daudela (zuzendaritza-batzordea edo patronatuko batzordea...). Boluntario egonkorrak eta noizean behineko boluntarioak zenbatu behar dituzu.

Emakumeen %	
Noizean behineko boluntarioen %	
Asteaz 20 ordu baino gehiago egiten dituzten boluntarioen %	

13) Adierazi esku-hartzerako proiektuen edo beste egitasmo batzuen kopurua, ezaugarri hauen arabera:

Boluntarioek sustatzen eta garatzen dituzten esku-hartzerako proiektuen edo beste egitasmo batzuen kopurua ____

Boluntarioek parte hartzen duten esku-hartzerako proiektuen edo beste egitasmo batzuen kopurua ____

Hartzaileek eta/edo familiartekoez sustatzen eta garatzen dituzten (batak besteari lagunduta) esku-hartzerako proiektuen edo beste egitasmo batzuen kopurua ____

INGURUNEAREKIKO LOTURA ETA KONPROMISOAK

14) Adierazi erakundeak azken hamar urteetan, gutxienez, lan egin duen lurraldean edo lurraldeetan dauden entitate eta instituzioen artean, horietako zenbatekin aritu den elkarlanean edo zenbatekin egin duen aliantza estrategikoren bat ____

15) Entitatea bigarren mailako erakunde edo ekimenen batean (sareak, federazioak, plataformak, elkarteak...) sartuta al dago?

- ☐ Bai. Zenbaten baitan? ____ Erakundea partaide den sarearen/sareen, federazioaren, taldearen edo plataformaren izena ____
- ☐ Ez

GIZARTE-PARTAIDETZA

16) Adierazi une honetan zenbat BAZKIDE dituen zure erakundeak ____

Oharra: fundazioek eta kongregazioek ez dute galdera hau erantzun behar. Bazkideak = une honetan bazkideen liburuan inskribatuta dauden pertsona fisikoak.

Emakumeen % bazkideen artean _____

Boluntarioen % bazkideen artean _____

Soldatapeko langileen % bazkideen artean _____

17) Pertsonen eta familien erakunde batzuetan familiako kide bakar bat egiten da bazkide, erakundeak familia osoarekiko harremana izan arren. Ohikoa da hori zure erakundean?

☐ Bai

☐ EzErantzuna Ez bada, pasatu 19. galderara

18) Aurreko galderaren erantzuna BAI bada. Esan zenezake, gutxi gorabehera, bazkide gisa kontabilizatuta ez dauden zenbat pertsona gehiagorekin duen harreman hori erakundeak? _____

ADIERAZLE OROKORRAK (lotuta daude gutzizko balioarekin, baina ez zuzenean funtsezko balio batekin)

Eredu mistoa

19) Esku-hartze sozialaren esparruan, erantzukizun publikoko zenbat zerbitzuren hornikuntzan laguntzen edo parte hartzen duen erakundeak (inkestak egiten den urtearen aurreko urtean edo itxitako ekitaldian) _____ Oharra:

erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe). Erantzuna 0 bada, pasatu 23. galderara.

Zerbitzu horien %, zerbitzu guztiekiko. Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe).

20) Adierazi zein diren zerbitzu horiek:

	Zerbitzuaren izena Oharra: adierazi erantzukizun publikoko katalogoetan edo zorroetan izendatzeko erabiltzen den izen bera, halakorik balego; edo, bestela, erakundeak esleitutako izen bat, "marka" bat edo antzekoren bat ez dena, eta zerbitzuaren edukia deskribatzen duena, labur-labur (eskainitako arreta eta hartzaileak).
1	
2	
3	
4	
5	

Ekarpen soziala eta zerga-itzulkina

21) Baliabide propioekin (boluntarioak, finantzaketa propioa, ondarea...) bultzatutako egitasmoen (jarduerak, proiektuak, erantzukizun publikokoak ez diren zerbitzuak...) kopurua _____ Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe). Erantzuna 0 bada, pasatu 23. galderara.

Zer ehuneko (%) ordezkatzan dute egitasmo guztiekiko? % _____ Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe).

Oharra: ez dira sartu behar erantzukizun publikoko zerbitzuak, hau da, araudian (legeak, dekretuak...) zehaztutako erantzukizun publikoko katalogoetan edo zorroetan jasotzen direnak. Printzipioz, administrazio publikoak finantzatu behar du proiektu horien % 100a, hura baita proiektu horien arduraduna.

Zenbat pertsonari ematen zaie arreta egitasmo horien bidez? _____

Zer ehuneko (%) ordezkatzan dute arreta jasotzen duten pertsona guztiekiko? % ____

22) Deskribatu labur-labur aurreko atalean aipatutako egitasmo bakoitza:

Oharra: adibidez, "150 erabiltzaile dituen aisialdiko programa, boluntarioen bidez sustatua (pertsona bakarra da profesionala, eta programaren koordinazioaz arduratzen da)".

1	
2	
3	
4	
5	

Berrikuntza eta ezaqutza sortzea

23) Ezagutza sortzeari dagokionez, adierazi ea azken bost urteetan zehar zure erakundeak honakorik egin duen:

	B AI	EZ	Deskribapena...
Bere helburuekin lotutako behar berriak identifikatu ditu.			
Proiektu, zerbitzu eta/edo beste jarduera berri batzuk diseinatu eta martxan jarri ditu.			Erantzuna baiezkoa bada, joan galdera honetako A atalera (beherago dago)
Existitzen diren proiektuekin, zerbitzuekin eta/edo beste jarduera batzuekin lotutako berrikuntzak eta/edo hobekuntzak diseinatu eta martxan jarri ditu.			Erantzuna baiezkoa bada, joan galdera honetako B atalera (beherago dago) (b)

23. galderako hiru itemen erantzuna EZ izanez gero, pasatu 24. galderara.

Erantzuna baiezkoa bada **(A)** Adierazi proiektuaren/proiektuen, zerbitzuaren/zerbitzuen, jardueraren/jardueren... izena edo oinarritzko deskribapena (Inkesta egin aurretiko urtean edo itxitako ekitaldian martxan jarritako guztiena).

	DESKRIBAPENA	IZAERA Hiru aukeretako bat hautatu behar duzu erantzuten duzun lerro bakoitzean.
1		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
2		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
3		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
4		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
5		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria

Erantzuna baiezkoa bada **(B)** Adierazi hobekuntzaren/hobekuntzen izena edo oinarritzko deskribapena. (Martxan jarritako guztiena).

	DESKRIBAPENA	IZAERA Hiru aukeretako bat hautatu behar duzu erantzuten duzun lerro bakoitzean.
--	--------------	--

1		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
2		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
3		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
4		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria
5		Hirugarrenen egitasmoa Egitasmo propioa Pertsona eta/edo familia hartzaileen eskaria

24) Argitalpenen eta komunikazio formalen kopurua (sektoreko aldizkarietan egindako argitalpenak eta/edo kongresuetan, jardunaldietan, etab. egindako komunikazio formalak; ez dira kontuan hartzen erakundearen komunikabide propioetan egindako argitalpenak eta/edo komunikazioak) _____

Koherentzia

25) Gobernu-organismoan dauden emakumeen kopurua _____ Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe).

Ordezkatzen duten %, gobernu-organismoa osatzen duten pertsona guztiekiko _____

Oharra: Gobernu-organismoa esaten diogu zuzendaritza-batzordeari, patronatuko batzordeari edo kontseilu errektoreari.

26) Zuzendaria edo gerentea zer da, emakumea ala gizona? Gizona/Emakumea _____

27) Zenbat emakumek dute soldatapeko ardura-posturen bat? _____ Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe).

Ordezkatzen duten %, ardura-posturen bat duten pertsona guztiekiko _____

ERLAITZA: BALIO ERANTSIAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK

Erakunde batek programa, zerbitzu edo zerbitzu-sare sendo baten bidez (erantzukizun publikokoa izan edo ez) **egiten duen ekarpenari** egiten diete erreferentzia balio erantsiaren adierazleek, derrigorrezkoak diren elementuez harago. Adibideak: eguneko zentroak, aisialdi-programak, indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta-zerbitzuak, etab. Zerbitzurik ematen ez duten erakundeek ez dute bete behar BALIO ERANTSIARI buruzko atal hau.

Atal honi erantzuteko, pentsatu zure erakundean balio erantsia sortzen duten zerbitzuetan.

Zure erakundeak zerbitzu mota bat baino gehiago eskaintzen badu, BALIO ERANTSIARI buruzko atal hau zerbitzu mota bakoitzeko gutxienez zerbitzu bati buruz betetzea gomendatzen dizugu, ikuspegi anitzagoa lortzeko.

Zure erakundeak mota bereko hainbat zerbitzu baditu, zerbitzu bakoitzari buruz bete behar da atal hau.

1) Zer zerbitzuren gaineko informazioa emango duzu? Adierazi izena eta deskribapen orokorra (zer kolektibori ematen zaion arreta, arreta mota, etab.)

		Erantzukizun publikokoa da?	
		BAI	EZ
1			
2			
3			
4			
5			

Oharra: erantzukizun publikoko zerbitzu esaten zaie erakunde publikoek hartzaileei erabilgarri izatea eta sarbidea edukitzea bermatu behar dietenak eta araudietan, zorroetan edo prestazioen katalogoetan eta beren konpetentziako zerbitzuetan araututa daudenak.

BERDINTASUNA ETA DUINTASUNA (pertsona erdigunean)

2) Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen edo, hala dagokionean, familien kopurua _____

Emakumeen %, erabiltzaile guztiekiko _____

3) Hala eskatzen dutenean, ERAKUNDEKO erreferentziako profesional batek emandako arreta pertsonalizatua jasotzen duten pertsonen edo, hala dagokionean, familien % _____

Oharra: "erreferentziako profesionala" ERAKUNDEAK kontratatzen duen pertsona bat da. Esku-hartze prozesuan zehar laguntza soziala ematen du eta, "kasuaren koordinazioarekin" lotutako beste funtzio batzuk ere betetzen ditu (beharren eta baliabideen diagnostikoa edo ebaluazioa, orientazioa, programazioa, jarraipena eta esku-hartzearen ebaluazioa). Arreta pertsonala, osoa eta jarraitua izan dadin lan egiten du, bai erakundean eta bai handik kanpo.

4) Erreferentziako profesionala duten kasuentzat baino ez. Batez beste, hilean zenbat aldiz elkartzen dira erabiltzailea edo, hala dagokionean, familia erreferentziako pertsonarekin? _____

5) Zerbitzuak arreta ematen dien eta programazio indibidualak edo pertsonalizatuak (proiektuak, planak, laguntza-planak...) prestatzen zaizkien pertsonen edo, hala dagokionean, familien kopurua _____

6) Erakundeak hitzemandako proiektuaren baitako zerbitzua diseinatzeko, definitzeko eta hobetzeko helburuz erabiltzaileekin/onuradunekin egindako bileren ordu kopurua _____

7) Aztertutako zerbitzuan arreta jasotzen duten pertsona guztien artean, adierazi zenbat pertsonak (eta, hala dagokionean, familiak) jasotzen duten arreta erakundearen beste zerbitzu batean/batzuetan ere _____

Ordezkatzen duten %, pertsona guztiekiko _____

8) Aztertutako zerbitzuan arreta jasotzen duten pertsona guztien artean, adierazi zenbat pertsonak (eta, hala dagokionean, familiak) jasotzen duten arreta erakunde edo instituzio baten baino gehiagoren zerbitzuetan _____

Ordezkatzen duten %, pertsona guztiekiko _____

Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe).

Erantzuna 0 baino handiagoa bada: Baduzue harremanik beste erakunde, instituzio, etab. horiekin?

- ☐ Bai, oso jarraitua eta arina.
- ☐ Bai, noizean behinekoa edo puntuala.

☐ Ez, ez da ohikoa.

9) Zerbitzuan artatutako pertsona guztien artean, adierazi zenbat pertsonak eta, hala dagokionean, familiak jasotzen duten arreta jarraitua (ez aldizkakoa, sartu-irtenekin) prozesu batean zehar (hezkuntza, gizarteratzea...) eta, behar denean, bizi guztiko arreta (*luzerako jarraitua*) _____

Ordezkatzen duten %, pertsona guztiekiko _____

JUSTIZIA SOZIALA ("arrazoietara" bideratua) ETA GIZARTERATZEA

10) Prebentzio-zerbitzuen (arriku-egoerak prebenitzera bideratutakoak eta prebentzioarekin lotutako beste batzuk) eta/edo sustapen-zerbitzuen kopurura, adibidez, mendekotasunen bat eta/edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako arretaren arlokoak, arreta goiztiarreko zerbitzuak eta prestazioak, zaintzaileentzako laguntza, arnasa, modu independentean bizitzeko laguntza, etab. _____

ELKARTASUNA

11) Baliabiderik izan ez arren edo oso behartsuak izan arren, aztertutako zerbitzua eskuratu ahal izaten duten pertsonen edo, hala dagokionean, familien kopurua, erakundearen baitako egokitzapenak egin direlako sarbiderako baldintzei (hala dagokionean, prezioa), helburuei, esku-hartzei... dagokienez, edo laguntzak txertatu direlako (bekak, ordutegiak zabaltzea edo arreta sendotzea...) _____

12) Borondatezko jardueraren batean eta/edo elkarri laguntzeko jardueraren batean parte hartzen duten pertsonen kopurua, zerbitzuaren edo zerbitzua osatzen duten jardueren esparruan _____

Eskainitako ordu kopurua _____

Oharra: erantzukizun publikoko zerbitzuetan, borondatezko edo elkarri laguntzeko jarduerak zerbitzua (edo zerbitzuak) izan behar dute kontuan, zerbitzuari zuzenean lotzen zaizkion prestazioak kontuan izan gabe.

LOTURA ETA KONPROMISOA INGURUNEAREKIN

13) Zerbitzuaren testuinguruan, zerbitzua kokatzen den komunitateko eragileekin (publikoak edo ez) lankidetzan sustatutako egitasmoen (jarduerak, proiektuak, programak...) kopurua _____

14) Adierazi zein diren egitasmo horiek:

1	
2	
3	
4	
5	

15) Komunitateari irekitako eta/edo komunitatean bertan (lokal propioetatik kanpo) egindako jardueren kopurua _____

16) Adierazi zein diren jarduera horiek:

1	
2	
3	
4	
5	

17) Zerbitzuan txertatuta dauden komunitateko jardueren kopurua ____

18) Adierazi zein diren jarduera horiek:

1	
2	
3	
4	
5	

GIZARTE-PARTAIDETZA

19) Erabiltzaileak/hartzaileak diren pertsonen eta familien euren zerbitzuan parte hartzea sustatzeko egitasmoen edo neurrien kopurua (edo, GGKEen kasuan, normalean parte hartzen ez duten kolektiboen parte-hartzea sustatzeko) ____

Oharra: erantzuna 0 bada, idatzi 0 (ez utzi bete gabe).

20) Adierazi zein diren egitasmo horiek:

	Zein dira egitasmo horiek?	Nork parte hartzen du?	Zer bitartekoren bidez parte hartzen da?
1			
2			
3			
4			
5			

Parte-hartzaileen ebaluazioa

- 0 eta 10 arteko eskalan, 0k “ez dut batere interesik” esan nahi du eta 10ek “guztiz interesatuta nago”. Zein zen **hasieran** proiektuarekiko zenuen interes maila? ____
- Eta galdetegia bete ostean, zein da proiektuarekiko **orain** duzun interes maila?
- Zenbateraino zaude ados honako baieztapen hauekin? Erabili 0tik 10era doan eskala: 0k “ez nago batere ados” esan nahi du eta 10ek “guztiz ados nago”.

	0-10 eskala	ED/EDE
Galdetegiko edukiak argiak eta ulergarriak ziren		99
Galdetegiko argibideek eta oharrek lana errazten zuten		99
Eskatzen zen informazioa egokia zen		99
Eskatzen zen informazioa jasotzeko erraza zen		99
Erabilitako tresna erabilerraza zen (online galdetegia)		99
Erabilitako tresnarekin galdetegia erantzun zitekeen		99
Autoebaluaziorako tresna (Excel) erabilgarria da barruan		99

- Galdetegiaren edukiei dagokienez, hobetzekorik ikusten duzu?
- Eta erabilitako tresnei dagokienez?
- Erantzuteko prozesuan, erakundeen eskura jarritako laguntza teknikoarekin harremanetan jarri behar izan duzu?

Telefonoz	1
Posta elektronikoaren bitartez	2
Ez, ez da beharrezkoa izan	3
ED/EDE	99

- Galdetegia betetzeko erakundeen eskura jarri den laguntza-sistema baloratuko dugu orain. Erabili 0tik 10era doan eskala: 0k “ez nago batere ados” esan nahi du eta 10ek “guztiz ados nago”.

	0-10 eskala	ED/EDE
Laguntza tekniko beharrezkoa da galdetegia betetzeko		99
Laguntza teknikoak azaldutako arazoak konpondu ditu		99
Laguntzaren ordutegia eta prestasuna nahikoak izan dira		99
Laguntzarekin harremanetan jartzeko bideak nahikoak dira (telefonoa eta posta elektronikoa)		99

- Azkenik, baduzu galdetegia erantzuteko prozesua erraztuko duen hobekuntzarik?

Ez-parte-hartzaileen ebaluazioa

1. Lehenik eta behin, ezagutzen al duzu Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko (EHSS) erakundearen guztizko balioa eta balio erantsia ebaluatzeko egindako lan-prozesua?

Bai, ondo ezagutzen dut	1
Bai, baina ez dut erabat ezagutzen	2
Ez, ez dut ezagutzen	3

2. 0 eta 10 arteko eskalan, 0k "ez dut batere interesik" esan nahi du eta 10ek "gutziz interesatuta nago". Zein zen **hasieran** proiektuarekiko zenuen interes maila? ____

3. EHSSko erakundearen guztizko balioaren eta balio erantsiaren ikerketan parte hartzeko gonbidapenik jaso al zenuen?

Bai	1
Ez	2
ED/EDE	99

4. [P2=1 bakarrik] Eta gonbidapena jaso ostean, ondorengo aukeretako baten bitartez parte hartzen saiatu zinen?

	Bai	Ez
Excelen autoebaluaziorako tresna	1	2
Informazio gehigarria sortzeko online galdetegia	1	2

5. Online galdetegiari dagokionez, zein izan ziren galdetegia ez erantzuteko izan zenituen oztopo nagusiak? (Hautatu dagozkion aukera guztiak)

Galdera batzuk zailegiak ziren.	1
Erantzuteko denbora ez zen nahikoa.	2
Erantzuteko jendea ez zen nahikoa.	3
Online euskarriarekin zailtasunak.	4
Epeak ez nituen ezagutzen	5
Prozesua ez nuen ezagutzen	6
Beste →Zein? _____ _____	bat, 97

6. Oztopo nagusia aukeratu beharko bazenu, zein izango litzateke? (Hautatu aukera bat)

Galdera batzuk zailegiak ziren.	1
Erantzuteko denbora ez zen nahikoa.	2
Erantzuteko ez zegoen nahikoa jende.	3
Online euskarriarekin zailtasunak.	4
Epeak ez nituen ezagutzen	5
Prozesua ez nuen ezagutzen	6

7. Azkenik, 0 eta 10 arteko eskalan, 0k "ez dut batere interesik" esan nahi du eta 10ek "guztiz interesatuta nago". Zein da **orain** proiektuarekiko duzun interes maila? _____